


enfeiuCarrean

Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura Mintegia

1992

7. zenbakia



Asier Fullaondo / Mikel Iriondo

Román Gárate

Enrique del Hoyo / Josu Lartategi / Irene Zubizarreta

Fernando Martínez Rueda

Josu Penades / Bittor Uraga

Nerea Zuloaga / Joseba Eskubi

enseiucarrean

© Deustuko Unibertsitatea - 1.postakutxa - 48080 BILBO

ISSN: 1130-8192

Legezko gordailua: BI-1113-91

Fotokonposaketa: Fotocomposición Ipar, S. Coop.
C/ Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimatzailea: A. G. ELKAR, S. Coop.
Autonomia, 71 - Bilbo

ZUZENDARITZA

Ana Isabel Morales
Bittor Uruga

ERREDAKZIOA

Leire Abrisketa
Paul Bilbao
Juanjo Etxebarria
Koldo Jule Garai
Nekane Goikoetxea
Josu Lartategi
Nagore Layuno
Iratxe Momoitio
Ana Isabel Morales
Joan Otaegi
Amaia Petralanda
Bittor Uruga
Nerea Zuloaga

KOLABORATZAILEAK

Joseba Eskubi
Asier Fullaondo
Roman Garate
Enrique del Hoyo
Mikel Iriondo
Josu Lartategi
Fernando Martínez Rueda
Josu Penades
Bittor Uruga
Irene Zubizarreta
Nerea Zuloaga

BATZORDE KONTSEILARIA

Juan Manuel Etxebarria
Joan Otaegi
Iñaki Ugarteburu
Bittor Uruga
Jesús Uranga

MARRAZKIAK

Joseba Eskubi

DISEINU GRAFIKOA

Alvaro Sánchez

ARGITALPENA

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila
1 Posta Kutxa 48080 Bilbo Tfnoa: (94) 445 31 00

ZABALKUNDEA

Ediciones Mensajero
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo
73 Posta Kutxa 48080 Bilbo
Tfnoa: (94) 447 03 58

Oharra: *Enseiucarrean*-ek ez ditu bere gain hartzen bere baitan batzen diren artikuluetan azalduko eritziak, eta, edozein kasutan, dagokien erantzunkizuna egileena ez beste inorena izango da.

Aita Barandiaran gogoan

A U R K I B I D E A

7. AURKIBIDEA. ❀ 11. EDITORIALA. ❀ 17. FULLAONDO, Asier eta IRIONDO, Mikel: «*Eutrofizazioaren inguruan*». ❀ 49. GARATE, Roman: «*Oroimena: herria, arkaikoa, historia*». ❀ 81. HOYO, Enrique del; LARTATEGI, Josu eta ZUBIZARRETA, Irene: «*Izuen gordeleketan barrena-ri hurbilketa semantiko*». ❀ 119. MARTINEZ RUEDA, Fernando. «*Obizko burdin manufakturaketa eta gizarte harremanak*». ❀ 139. PENADES, Josu: «*Gizatasunezko bizitza-ibilbidean kide*». ❀ 171. URAGA, Bittor: «*Bilboko gauetan*» ❀ 195. ZULOAGA, Nerea: «*Kriseiluaren itzaltze hura*».



ESATEN DUTE CAUCASO URRUNEAN, MENDI ERRALdoien artean izkututzen den herrixka batetan, amama misteriotsu bat bizi dela. Hizpideak dioenez, beltzez jantzita joaten da beti, berez inguratzen duen sekretuzko lainoari gauaren puska bat gehitu nahi balio bezala. Baina amama honek, gauak berak legetxe, iluna izan arren, badu berarekin itzalaren sosegu eta bakea, eta bere aurpegi ximurtuko begi ttikiek artizarraren zilar zahar eta jakintsua ispilatzen dute.

Amamaren eskuak azkar eta trebe mugitzen dira bere etxeko sukaldean belar izpiak eta loreak atondu eta multzokatzen dituenean. Kontatzen duteenez, landareen gaineko ezaguera miragarria dauka, eta bere etxera laguntza eske joaten den orok andere zaharrak emaniko gauza birekin irten ohi du: belar bete xorro bat, alde batean, eta amonaren ahotsaren ohiartzuna belarrietan sarturik, bestean.

Dirudienez, bere bisitarien antsizko hitzak entzun ostean, urrats ttikiez, tipi-tapa, apalategi batetara hurbiltzen da eta han, ileran dauden beirazko poteen artetik, bat aukeratzen du. Ondoren, bisitariari zuzen begiratu eta, besterik gabe, potetik ateratako poltsa berdea luzatu eta landarearen izena xuxurlatzen dio: «Eutsiok, *azaharearen lorea* duk», edota «Har ezan, hiretzat, *sandaloa*», edota «Hona hemen *belar mystikoa*»...

*Magnolia, jazmina, Ekialdeko zura
pentsamendu beltzak, pensamendu xuriak
labanda, adelpha, Nepaleko lorea
brionia, aphrodisia, bibolinlore etiopiarrek
aientxuria, liliak, opioaren izpiak
balsamodendroiaren malko mikatzak, lotoa;
Japoniako kamamila
tronboi loreak,
biko gezurtiaren hostoak...*

Eta horrela, beregana joandako guztiek, amamaren belar-loreen eragina sumatzen omen dute berehala; ez, ordea, beti beste barik sendatzeko: zurrumurruen arauera batzuk erabat erotu dira andere zaharra ikusiz geroztik, egundoko xelebrieriak egiten dituztelarik. Beste batzuk, jende errespetagarria berez, batere zuhurrak ez diren gauzak esaten hasi ei dira, zeruan dauden izarrak, azken elurtean lurrerako bidea aurkitu ezinik airean galdu eta zintzilik gelditu ziren elur malutak direla, adibidez.

Gauza bat dago argi: bat ere ez dela geratzen amama ikustera abiatu aurretik zegoen bezala, gertaera mirakulutsu batez zeharo aldatzen dela gaixo horrietako bakoitzaren bizimodua. Horregatixe da hain misteriozkoa Caucasoaren bihotzean bizi den amonatxo beltzez jantzitako hori, eta horregatixe baita, gauean, sutondoaren aurrean jezartzen denean, irribarre batek behialako edertasuna itzultzen dio andere zaharrari. Izan ere, lama jostalarien dantza betseinetan duelarik eta lore more ttipi bat eskuez ferekatzen duen bitartean, bururatzen zaio gizakiak oso animalia bitxiak direla, ez bait dira konturatzen hitz batek barruan gordetzen duen sekretuaren handitasunaz, eta, gortuta daudelarik, amama baten beharra suertatzen zaie, zeinek, bere etxe ondoko basoan —non, bestela?— belar txirotu, arrunt eta dohai gabekoak bildu eta beiraientzat birbataiatuz, mila mundu majiko iradokitzen bait dizkie.

* * *

Ez dugu guk ezagutu Caucasoko amona hori, baina istorioak egia baldin badio —segurua den gauza— dama horrek oso jakintsua behar zuen izan, bere ingurukoei hitzen misterioa sumaerazi zienez gero.

Askoz apalago, guk ere eutsi diogu, tematiok, hitzen joko zaharrari eta ostera ausartu gara loreen izenak entzun, esan, eta idaztera. Baina edade batetara iritsirik zentzuak moteltzen omen direlako, *Enseiucarrean*-eko atso-agureok odol gaztearen premia sentitu izan dugu, gureak baino begi-sudur-belarri finagoek kolore, usain eta soinurik esanguratsuenak non dauden erakuts diezaguten. Hala bada, gure aldizkariak eta zeuok, irakurle maite pazienteok, lasai har dezakezue arnas, hemendik aurrera zaharron ajeak behar den moduan zuzenduko dituztenak badirela jakinik. Eta gauza berriak aipatzen ari garela, mintza gaitzen orain *Enseiucarrean*-ek hurrengo aletik aurrera hartuko duen bide berriaz... edo zaharraz. Izan ere, aspaldidanik nagusi zuen joerari amore emanaz, gure aldizkaria literatura eta linguistika gaiez elikatuko da bakar-bakarrik, era honetan bere eremua behingoz eta garbiri zehazten duela. Honenbestez, hauxe izango duzue edukien aldetik heterojenitatez eratuko den azken alea, gure aurreko etapari *adio* esan eta datorrenari *ongi etorri* batez agur egiteko baliatuko zaiguna. Baina, gauza berriak hain berri ez diren bezala, zaharrak ere ez dira zahar huts: hirugarren aldiz *Enseiucarrean*

jantzi zuri-beltzez beztitu digun Eskubik, iluntasunean ontzen den ardoaren gisara, bere irudien zapore ezaguna eta aldi berean errepikaezina ekarri digu berriz ere. Zalantzaren ezinegona sortu nahian beti, Eskubik gizakiak eta gainerako izakien arteko mugak ez direla uste bezain argiak sujeritzen digu oraingoan. Nork daki? Agian berak bai izan zuen Caucasoko emakume haren ezagupidea, eta badaki askoz ere aberatsago dela barneko begiek ahaleginduz gero ikusten dutena gure zentzu traketsak suma dezaketena baizik. Egin ezazu zuk ere aproba, *Enseiucarrean* hartu eta hostoz hosto erantzi







EUTROFIZAZIOAREN INGURUAN

ASIER FULLAONDO, MIKEL IRIONDO

Sarrera¹

Eskuartean duzun lanarekin, irakurle, batik bat biologia-mailan eza-guna den eutrofizazioaren arazoari heldu nahi izan diogu, gure asmo eta xedea interesatu orori zabaltzea izan bada ere.

Eutrofizazioa, betidanik naturan eman den arren, gizarte aurreratuen agerpenarekin batean arazo bilakatu zaigu. Aipatu arazoa ez da, hortaz, benetako «arazo» bat, gizakiak azkartu eta larriagotu duen prozezu naturala baino.

Lan honen lehen puntuan eutrofizazioaren gaineko hurbilketa orokorrari ekingo zaio eta ondorenean honi erabat lotuta datorkigun ur-kalitatearen aldatetei eskainiko diegu gainbegirada bat. Honen ostean, eutrofizazio-prozesua bera aztertuko dugu zehazkiago, mota ezberdinak eta zein eragilek sortzen duten ere argituz. Azken honi jarraituz, eragile bortitzena zein den ikusiko dugu: gizakia bera, hain juxtu. Bide batez, uretan neur daitezkeen zenbait parametrotara pasatuz, hauen neurketa eta esanahia

¹ *Enseiucarrean-en oharra*: biologia artikulu honek ez dio jarraitzen Euskaltzaindiak hitz el-karketaren gainean eman arauari, eta grafikoki erruz darabiltza gidoiak. *Enseiucarrean-ek*, hala ere, bere hartan onartu egin du, batez ere kontutan harturik berau ohitura hagitz zabaldua dela euskara zientifikoan.

azterkatu nahi genituzke, eutrofia-gradua ezagutu eta konponbideen aukuraketa ahalbait ondoen egiteko, ondoren konponbide hauen gainean luzeago mintza gaitezen.

Artikulu hau E.H.U.-n, Biologia ikasketen laugarren mailako Ekologia asignaturan 1990eko apirilean aurkezturiko mintegi batetan oinarritua da. Hasiera batetan, zehaztasun eta zientifikotasunaren hariari jarraitu asmoz, euskararen maila zientifiko-teknikoaz baliatu nahi izan genuen, gure aburuz, euskarak konkistatzen diharduen eremu berri hori garatzeak izan beharko luke eta kultura-arloko guztion helburu printzipalenetariko bat. Bada, artikulua euskara teknikoan oinarritu zen lehen-lehenengo unetik. Alde honetatik, ostera, eta biologiako artikuluak irakurtzen ohituta ez daudenei eramangarriagoa egingo zaielakoan, mugak zertxobait bereiztea erabaki dugu *Enseiucarrean* aldizkarian aurkeztu dugunez geroztik, lana dibulgatibotzat hartuz. Aurreratu nahi genuke, hala eta guztiz ere, honelako gaietan trebatuak hobeto moldatuko direla irakurketara besteak baino.

Amaitzeko, eskerrak eman gura genizkieke Josu Lartategiri lana argitaratzen lagundu eta lagun ona izateagatik, Arturo Elosegik ekologia irakasleari bere aholkuengatik eta biologiako gure euskara-taldeari elkarrekin pasatutako esperientziengatik. Guztiei eskerrak.

1. Eutrofizazioaren arazoari hurbilketa

Uraren kolore urdin eta itxura gardenak bizitza-falta adierazten du. Bizitza-faltak, kasu honetan, uraren ez-emankortasuna adieraziko du. Ur-mota hauetan bizitza eskasa denez, ur-kontsumoa txikia izango da. Honegatik, bada, oxigeno-eskakizuna ere urria izango da, oxigeno-arazorik egongo ez delarik. Ur-mota honi oligotrofikoa deritzo.

Urak elikagai ugari duenean kolore arre edo berdea izango du, ordea. Ur hauek oso emankorrak izango dira, ekoizpen biziki altuak lor daitezkeelarik. Ur hauei eutrofikoak deritze.

Ur distrofikoa geratzen den azken ur-mota da. Ur distrofikoak elikagaien ondo ornituta daude, baina elikagai edo kanpo-faktore garrantzitsuren batek izaki bizidunen hazkuntza galeratzen du, edo behintzat modu garrantzitsuan mugatu. Faktore horiek *faktore mugatzaileak* dira.

Eutrofizazio-prozesua ur oligotrofikoetatik ur eutrofikoetara igarotzeko prozesua da, edo beste era batetan esanda, ur-elikagaien kontzentrazioaren emendapen-prozesua, horrek bizidunen kopuruaren emendapena ere dakarrelarik. Hortaz, eutrofizazio-prozesua uraren ongarritze-prozesua besterik ez da.

Zer ondorioztatzen du eutrofiak?

Batetik, biomasaren gehikuntza eta, bestetik, gizakiarentzako ur-kalitatearen murrizpena.

Biomasaren gehipenak emankortasunaren gehikuntza adierazten duenez, hau faboragarria liteke, izaki bizidunen eta biomasaren gehikuntza suposatzen bait du. Gaur egun, ordea, gizarteak gizakiaren baliabideak soilik hartzen ditu kontutan, eta bizitzaren emendapena bost axola zaio. Eta ez da ahaztu behar gizakiarentzat ur-kalitatea garrantzitsua dela oso.

Bi eutrofia-mota definituko dira lan honetan: *eutrofizazio naturala*, hots, prozesu naturalen bidez ematen dena (adibidez, laku baten kolmatatzeak erakarritako eutrofia), eta *eutrofizazio kulturala*, gizakiak eragindakoa. Gizakiaren eragina izango ez balitz, uraren kalitate naturala prozesu geologiko, biologiko eta hidrológico unibertsalen batuketak mugatuko luke.

Ur kontinentaletan hazkuntzaren elementu mugatzaileak fosforo, nitrogeno eta karbonoa dira, hauetarik garrantzitsuena fosforoaren kontzentrazioa delarik (fosforoa muga jartzen duena bait da, asko dagoenean hazkuntza bultzatuz eta gutxi dagoenean, aldiz, murriztuz). Ur naturaletan fosforoaren kontzentrazioa oso txikia izaten da, sedimentuek azkar fixatzen dutelarik. Fosforoaren garrantzia frogatzeko, esperimendu bat egin zen: laku bat bi zatitan banatu zen, bata fosforoz, nitrogenoz eta karbonoz ongarrituz eta bestea karbonoz eta nitrogenoz soilik. Lakuaren lehen zatian ikaragarrizko hazkuntza eman zen. Bestean, berriz, ez zen aldaketarik eman, ez auken konposizio espezifikoan ez eta kontzentrazioan ere. Esperimendu honek aurretik jakiten zena baieztatu zuen; alegia, fosforoa, ur kontinentaletan, hazkuntzaren mugatzailea dena.

2. Uraren kalitatea

Bizitzarako, ura oinarrizko molekula da, izaki bizidun guztiok oso portzentaia altuan ur bait gara. Izaki bizidunok ura behar dugu, baina ura, naturan, ez da ur-molekulez bakarrik eratzen, disolbatutako substantziak ere uretan agertzen bait dira. Ezpurutasun hauek uraren erabilgarritasuna murrizten dute, zenbait kasutan bizitzarako desegoki bihurtuz, batez ere izaki konplexuen bizitzarako, azken hauek uraren purutasun-maila handiagoa behar dute eta.

Urak hainbat propietate bereizgarri ditu, eta hauetarik garrantzitsuenetakoa disolbagarritasuna da. Urak molekula ugari disolbatzen du. Hau dela eta, hondakinak eta substantzia toxikoak kanporatzeko edo desagertarazteko

oso bide on eta merkea da: uretara bota eta kitto. Ura gaur egungo kutsadura-bide nagusia da.

Ura naturan molekula oso arrunta da, baina ur guztiek ez daukate gizakiaren erabilerarako gutxiengo purutasun-maila. Urak izaten dituen ez-purutasunak bi taldeotan bana daitezke: batetik, substantzia solugarriak eta, bestetik, suspentsioan daudenak. Hots;

— Disolbatuak:

- Gatzak (Zn, Cd, Na, Cl,... etab.)
- Materia organikoa (gluzidoak, proteinak,... etab.)

— Suspentsioan daudenak:

- Limoak, buztinak,... etab.
- Planktona, bakterioak,... etab.
- Landaretzaren hondakinak,... etab.

Uraren parametro guzti hauek aztertu behar ditugu, uraren purutasun-maila eta erabilgarritasuna mugatuko bait dute.

Egungo ur-purutasunaren eskakizun minimoak ez dira kontzentrazioetan soilik adierazten. Zenbait substantzia detektatzeak ura ez-erabilgarri bihurtzen du. Azken honek ondorioztatzen duena honako hauxe da: alegia, gero eta neurketa-teknika finagoak erabiliz, onar daitekeen kontzentrazioa txikiagoa dela.

Guzti honek, ur-purutasun maila egokia izateko, uren tratamendua derrigortzen du.

3. Eutrofizazio-prozesua

Gorago esan dugun legez, eutrofizazioa naturalki edo gizakiak eraginda egon daiteke.

3.1. *Eutrofizazio naturala*

Naturalki ur geldoetan bakarrik ematen da. Honen adibidetzat gure latitudetako laku dimiktiko bat har dezakegu, laku guztietan gerta daitekeen arren. Laku dimiktikoak, bere izenak esaten duen moduan, urteen birritan nahasten dira, ur guztia homogenezatuz. Nahasketa udaberrian eta udazkenean ematen da, udan zehar lakua zati bitan banatzen duen termoklina dagoela. Goi aldeko zatia epilimniona deitzen da eta behekoa hipolimniona.

Normalean, hipolimnionean, udan eta neguan bizitzeko oxigeno adina dago, nahasketen beharrik ez dagoelarik. Sedimentuak jalkitzen doazen bitartean, hipolimniona txikitzen doa, bertako oxigenoak gero eta bolumen gutxiago beteko duelarik. Honela, noizbait, nahasketa eman baino lehen, hipolimnionaren oxigeno guztia bertako animaliek arnastuko dute, anoxia-fenomenoa sortuz.

Egoera anoxikoan, sedimentuetan dauden fosfatoak disolbatzen hasiko dira, lakuaren elikagai-kopurua ikaragarri handituz. Era honetantxe, ondorengo urteetan auka-kopuru handiak haziko dira. Hauek hiltzean, beren gorputzen deskonposaketak, anoxia mantentzeaz gain, gas toxikoen sorrera ere ekarriko du.

Honela, azkenean, laku oligotrofikotik mesotrofikoa eta eutrofikora heldu gara. Beraz, hementxe ikus daitekeenez, eutrofizazio-prozesua prozesu graduala da.


3.2. *Eutrofizazio kulturala*

Eutrofizazio-mota hau, urtegi nahiz ibaietan ematen da, beren baitan gizakiak elikagai-kontzentrazioa handitzen duenean.


Prozesu hori aztertzeko laku bat hartuko dugu oinarritzat. Laku naturala 22. orrialdean dagoen lehen grafikoari dagokio, honako ziklo hau bezela: batez ere, diatomea eta klorofizeaz osatuta dagoen fitoplanktonak elikagaiak materia organikoan eraldatzen ditu, biomasaren ekoizle garrantzitsuenak direlarik. Ondoren, zooplanktonak diatomea eta klorofizeak jaten ditu, arrainek azken maila trofikoa eratzen dutelarik, gizakia kanpoan utzita. Bakterioek bizidun hauen gorotzak edo gorputz hilak deskonposatzen dituzte, berriro ere elikagaiak disolbatuz, honela berriz zikloa hasiz. Gizakiaren eragina, kasu honetan, arrantzara mugatuko da.

Bigarren irudian (22. orrialdean segituz), gizakiaren gaur egungo eragin tipikoa ikus daiteke. Gizakiak fosforo asko botatzen du ibai eta lakuetara, lakuetan pilatzen delarik. Bertan, hazteko erabiltzen du fitoplanktonak fosforo hori. Hazkuntza hori emateko behar den nitrogenoa fosforoa baino lehenago bukatzen denez, baina, nitrogenoa fixatzeko gai diren bakterioak izango dira gehien ugari-tuko direnak; hots, zianobakterioak. Horrela, hauek fitoplanktonaren osagai nagusia osatuko dute. Zooplanktonak, zianobakterioak jaten ez dituztenez, hil egingo dira, honela katea-trofikoa apurtzen delarik. Hau dela eta, zianofizeoak ez dira janak izango, hiltzerakoan bakterioek gorputz hilak deskonposatuko dituztelarik, laku-hondoko oxigenoa erabilirik. Anoxia egoera sortzen denez gero, sedimentuetako fosfatoak disolbatuko dira, arazoa larriagotuz.

A) LAKU NATURALA



B) LAKU EUTROFIKOA



3.3. *Eutrofizazioaren eragileak*

Lehen aipatu dugun moduan, eutrofizazioa naturala edo kulturala izan daiteke. Azken hau, guk aztertuko duguna izango da, eutrofizazio naturalaren eragilea natura bera bait da, jakina.

Puntu honetan, gizakiaren erruz jariatutako fosforo-iturriak aztertu-ko ditugu; hortaz, elikagaiak uretara jariatzen dituen edozein giza-ekintza, potentzialki, eutrofiaren eragile izan daiteke.

3.3.1. *Nekazaritza*

Gaur egungo nekazaritzak eragin nabarmena eduki dezake, luraren errendimendu maximoa izan behar bait du, honetarako, ongarriak kantitate handitan erabiltzen direlarik. Ongarriok fosforo eta nitrogeno-elementutan oso aberatsak dira, haizearen eta batik bat euriaren bidez, erreka, ibai edo lakuetara eramanez izaten direlarik. Ongarriaren arazoaren oinarrian, bi faktore agertzen dira: alde batetik, beharrezko den ongarria baino gehiago erabiltzea; eta bestetik, ongarrien aplikazio-uneari buruzkoa, hau da, landareen bizi-zikloaren pausu konkretu batzutan aplikatu behar direla soilik, eguraldi faboragarria ere izan beharko delarik.

3.3.2. *Abeltzantza*

Abereen gorotz eta hondakin nitrogenatuak oso aberatsak dira fosforo eta nitrogenotan, azken batean gorotzak ongarri natural onenak bait dira. Printzipioz ez zen arazorik egon behar, baina egungo egunean, batzutan, abereak leku oso konkretutan pilatzen direnez, arazoak sor daitezke. Arazo larrienak, eraikuntzen barnean pilatuta bizi diren abere eta animaliek sortzen dituzte, hots, oilo, ahate, eta esne-ekoizpenerako diren behi-etxaldeek. Leku hauetatik ateratako hondakinek ongarritze masiboak sortzen dituzte, arazoak ekar ditzaketelarik, hondakinen elikagaiak ibaietara hel bait daitezke.

3.3.3. *Deforestazioak*

Deforestazioak eragin handia eduki dezake eutrofizazio-prozesuetan. Deforestazioak, orokorki, hiru motatakoak dira:

- Zuhaitzen egurra erabiltzeko (papelerak, etxegintza,... etab.). Prozesu oso garrantzitsua da.
- Basoen orde, lantzeko lurak sortzeko. Hau hirugarren munduan ematen den prozesu tipikoa da.
- Suteen ondorioz emandako deforestazioa.

Nahiz eta hirurek kalte berdintsuak eragin, lehen biak kaltegarrienak izan daitezke, berforestazioa galerazten bait dute.

Basoa dagoen artean, elikagai gehienak basoak berak harrapatzen ditu, eta baita bertan mantendu ere, ziklo baten barnean geratzen direlarik. Basoak, bestalde, haize eta urek eragindako lurtzoruaren higadura galerazi eta oztopatzen du. Honela, basoak botatakoan, aurretik zegoen oreka apurtzen da, zuzeneko ondorio nagusia lurtzoruaren higadura delarik. Hau dela eta, lurtzoruaren gaineko ur-kantitatea areagotu eta ur-korronteak eratu egiten dira, eta basoak transpirazioz eta interzepsioaren bitartez egiten zuen uraren desbideraketa ez da ematen.

Noski, deforestazioak eutrofizazioan duen eragina elikagaien esportazioarekin zuzenki erlazionatuta egongo da. Honen oinarrian lau faktore daude:

- a) Erliebea: alegia, gero eta lauagoa izatean eragina txikiagoa izango da.
- b) Prezipitazio-kantitatea: plubiometria areagotzen den heinean elikagaien esportazioa ere areagotuko da eta.
- d) Lurtzoruaren geologia: lurtzoru-konposaketa desberdinek higadura-ahalmen ezberdina bait dute.
- e) Deforestazio-gradua.

Azkenik, aipatu behar da deforestazioaren eragina ez dela konstantea, hau da, hasieran elikagaien esportazioa oso handia bada ere, urteekin kopuru finkoan orekatuko dela.

3.3.4. *Herri eta hirietako zaborrak*

Zabor edo hondakin hauek oso aberatsak dira elikagaiei dagokienean, batez ere nitrogeno eta fosforoan. Zaborrok, lau motatakoak dira: gorrotzak, hondakin nitrogenatuak, garbikariak eta janari-hondakinak.

Kalkulatu egin da, batz besteko, pertsona bakoitzak kilogramo bat fosforo urtero hondakin modura botatzen duela herri aurreratuetan, kopuru honen erdia garbikarietatik datorrelarik. Honetaz gain, beste lau kilogramo nitrogeno botatzen da pertsona eta urteko.

3.3.5. *Hondakin industrialak*

Industria gehienek, beren prozesuetarako, ura darabilte, prozesuotan, normalean, ura kutsatzen delarik. Industria-mota asko dagoenez, ur industrialak arras ezberdinak izango dira beren konposaketa kimikoan.

Jariaketa-lekuaren arabera ere eragin ezberdina izango dute. Ur hauen ezaugarri ezberdinen kariaz, ondorengo eraginak sor daitezke:

- a) Ur batzuk pH-aren aldaketa sor dezakete, gehienetan pH-a txikitzen delarik. Kasu honetan, ur azidoetan fosfatoak eta metale pisutsuak disolbatzen dira eutrofizazioa bultzatuz eta urak intoxicatuz.
- b) Temperatura: hainbat prozesu industrialek beroa sortzen dute, temperatura jaitsi arazteko uraz baliatzen direlarik. Ur beroak izaki bizidunen metabolismoa areagotzen du, batez ere bakterioena, nahiz eta aukena ere areagotu. Azken hauek, baina, hazkuntza-tasa motelagoa dutenez, berorien gaineko eragina ez dute hain nabaria izango. Beroak, halaber, oxigeno disolbatuaren kontzentrazioa gutxitzen du. Prozesu guztiok anoxia-fenomenoaren azkartzea eragingo dute.
- d) Oxigenoaren eskakizun biologikoa (DBO): honek materia organikoa medio biologikoz, hau da, arnasketaren bidez oxidatzeko, beharrezkoa den oxigeno-kantitatea adieraziko du. Industriek DBO ezberdineko urak jariatuko dituzte. Industria bakoitzak, honegatik, eragin ezberdinak izango ditu uren anoxia-fenomenoetan.
- e) Amonioak, baita ere, oxigenoa kontsumitzen du, nitratoak sortzeko. Prozesu hau berez ematen da, oxigenoa uretan baldin bada-go.
- f) Suspentsioan dauden solidoek uhertasuna aldatzen dute laku eta urtegietan, eta hipolimnionaren fotosintesia galerazi edo behintzat gutxitu, honela anoxia faboratuz.
- g) Bestalde, industriek produktu toxikoak ere sortzen dituzte. Adibidez; fenolak, kadmioa, nikela,... etab.

Beherago ditugun puntuok, industria batzuren hondakin-uren eraginarekin laburpena izango da:

- a) Janari-industriek DBO eta suspentsioan dauden solidoen kopurua handitzen dute.
- b) Manufaktura kimikoen, DBO-a handitu, fenolak eta amonioa jariatu eta beroa sortzen dute.
- d) Burdin eta altzairu-manufakturrek pH-a txikitu eta amonioa eta fenolak jariatzen dituzte.
- e) Metaleak lantzen dituzten industriek, xaflaketa eta anodizazio-prozesuak direla medio, fosfatoak sortzen dituzte hondakin-produktu

legez. Honetaz gain, kadmio, nikel eta kuprea bezalako metale pisutsuak jariatzen dituzte, hauek pH-aren beherapena ere ekarriko dutelarik.

- f) Ehungintzan, garbiketa-prozesuen ondorioz detergente asko erabiltzen direnez, hondakin inorganikotan aberatsak diren urak sortzen dira.
- g) Garagardo-fabrikek suspentsioan dauden materiak areagotu, pH-a txikitu eta DBO-a handitzen dute.
- h) Esnekien industriek DBO-a handitu eta pH-a txikiagotzen dute.
- i) Petroleo-birfindegiek, beroa sortzeaz gain, pH-a txikitzen dute, amonioa eta fenolak ere jariatzen dituztelarik.
- j) Elektra-indarra sortzen duten zentraleek beroa sortarazten dute.

3.3.6. *Hirietako ur-korronteak*

Antzinean landarez beterik zeuden lur asko errepide, etxe nahiz aparkaleku bihurtu ditugu egungo egunean. Honegatik, lurra lehen zurgatzen zuen ura kaletik dabil orain, inolako zurgapenik eman gabe, edo behintzat oso kopuru txikitik ematen delarik. Ur hauek naturalki eraman behar zutena baino lau aldiz nitrogeno gehiago daramate, fosforoaren kopurua bikoitza delarik. Honekin batera, kutsadura-maila handituz joango da.

3.3.7. *Urtegiatiko landaretza*

Urtegiak eraikitzerakoan bertako landaretza kendu behar izaten da, urtegia urez bete baino lehen. Hau ez baldin bada egiten, landareak urez estaltzean hil eta deskonposatzen hasiko dira, honela uren elikagai-kontzentrazioa handituz.

3.3.8. *Meatzeak*

Meatzetatik ateratako mineralen garbiketak ere eragin handia uzten du, kutsadura metalikoaz aparte uhertasunaren aldaketa ugari emendatzen bait du, pH-a ere murrizten duelarik.

3.3.9. *Leku hezeen betetzea eta kanalizazioak*

Padurak bezalako leku hezeak betetzean iragazki natural bat galtzen da, elikagai eta metale pisutsuak gorde bait ditzakete eta zenbaitetan deskonposatu ere (hau konposatu organikoen kasuan).

Bestalde, kanalizazioek arazo bera dakarte, ibaien iragazkin bezala jokatzen duten ibai-hondoak desagertzen bait dira.

4. **Eutrofizazioaren adierazleak: eutrofizazio-graduaren araberako laku eta urtegien sailkapenerako erizpideak**

Gizonak fenomeno bati aurre egiten dionean ulertu eta ezagutu behar izaten du fenomeno bera, eta honen ondotik kontrolatzen saiatu. Hau edozein arazori aurre egiteko beharrezkoa da, baina arazoak konplexuagotzen diren heinean ikasketa hauek nabarmenki zailtzen dira. Ikasi nahi den fenomeno eutrofizazioa bezain konplexua denean ikasketa hau are gehiago zailtzen da, faktore kimiko, fisiko eta biologikoen batera eragiten bait dute, eta gainera faktore hauek ingurune baldintzen arabera aldakorrak izan bait daitezke oso. Ingurunearen topografia, klima, landaretza, geologia eta abar luze batek eutrofizazio-prozesuaren pausuak mugatzen ditu, eta baita aldatu ere. Hau dela kausa, leku berean prozesu zeharo ezberdinak eman daitezke, aurreko faktoreren bat aldatuz; honek lehenago aipaturikoa baino ez du baieztatzen, eta adibide gisa har dezakegu.

Eutrofizazioaren definizioak arazo ugari sortzen du, ez bait da prozesu finko eta zehatza. Eutrofizazio-prozesua gradiente baten barnean sartzen da, honek dakartzan arazo guztiekin, parametroen balioak ingurunez ingurune aldakorrak direnez ezin bait daiteke inoiz ere muga zehatzik jar.

Honegatik, eutrofizazio-maila adierazi eta zehazteko hainbat parametro ezberdin behatu eta aztertu behar da. Parametroak biologikoak izango dira beregainki, kimikoak ere oso garrantzitsuak izango direlarik. Parametro zenbaitzuren azterketari ekingo diogu, bai eta berorien neurketa-metodoei ere.

4.1. *Zuzeneko behaketa*

Behaketa hau, kasu oso argi eta nabariak direnean, baliagarria izaten da, eutrofizazio-prozesua azken muturreraino eramanda oso berezitasun nabariak bait ditu; hala nola, usain txarra, uraren gardentasun-falta, auka planktonikoen *bloom*-ak eta abar luzea. Eutrofizazioa ez da bat bateko prozesua, prozesu jarrai eta graduala baizik; honenbestez, nola esan genezake zein puntutan gauden prozesu horretan? Horixe da zehaztu eta erantzun beharreko galdera.

Vollenweider-ek eutrofizazioaren adierazle tipikotzat jotzen ditu ondorengo sintomak:

- Biomasaren gehikuntza: auken aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboa ematen da. Ur oligotrofikoetan agertzen diren aukak beste auka batzurekin ordezkutzen dira, bereziki zianobakterioekin, familia horren barruan honako generoak nagusi izango direlarik; alegia, *Oscillatoria*, *Anabaena* eta *Apharizoneon*. Auka hauetaz gain, beste hainbat auka ezberdinen kopuru-emendapena ere ematen da, hau nahikoa nabaria izango delarik urtegi zein lakuetakoz bazterretan dauden auketan (makrofitikoak, perifitikoak, flotatzaileak,... etab.).
- Fauna planktonikoaren eta arrainen aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboa: auketan ematen den aldaketak arrainena eragiten du, baina aldaketa hau ez da bat batekoa izaten, nolabaiteko denbora-desfasea jasaten bait du. Eutrofizazio-prozesua nahiko aurreratuta dagoenean arrainen aldaketa nabariagoa izaten da; halatan, eutrofizazio-prozesuaren hasierako pausuetan ez bide da adierazle onegia izaten.
- Ikuspuntu fisiko eta kimikoaren aldetik nabariena uraren propietateen aldaketa da; esaterako, uraren kolore-aldaketa, oxigenoaren disolbaketapatroien aldaketa, hipolimnionaren oxigeno-kopuruaren murrizketa eta, azkenik, inguruko elikagaien igoera. Azken hau, gaur eguneko metodo kimikoen bidez, oso erraz eta era fidagarrian neur daiteke.

Eutrofizazio-prozesua aurrera doan heinean sintoma hauen maiztasuna eta indarra areagotzen dira. Puntu batera heldutakoan, batez ere auken *bloom*-ei lotutako prozesu katastrofikoak maiz ematen dira. Hauetarik garrantzitsuenak oxigeno-faltarekin erlazionatuta daudenak dira. Oxigenofaltak zenbait mikroorganismoren hazkuntza baimentzen du, bakterio horiek, beharrezko duten energia, deskonposatzen duten materiatik lortzen dutelarik, prozesu kataboliko modura hartxidurak erabiliz. Deskonposaketa-prozesuaren ondorioz azido organiko ugari askatzen da, hauek pH-aren beherapena eragiten dutelarik. Beherapen horrek hainbat metaleren askapena ondorioztatzen du, pH azidoetan disolbagarri bihurtzen bait dira (honen adibide modura burdina eta manganesoa leudeke).

Metale pisutsuen askapenak arazo larriak ekar ditzake, kontzentrazio toxikotara hel bait daiteke. Halaber, pH azidoetan, zenbait izakiren metale hauekiko jasankortasun-tarteak estutzen dira, toxikotasun-efektua areagotuz.

Anoxia-fenomenoak, elektroihartzaile modura beste substratoak erabiltzea dakar, eta sortzen diren konposatu berriek hainbat espezieetarako toxikoak izatea ere dakarte; adibidez, azido sulfhidrikoa eta metanoak.

Guzti honek bertako espezie nobleenak desagertzea edo behinik behin modu garrantzitsuan murriztea suposa lezake.

Zuzeneko azterketan ez da hau guzti hau ikusten, eta aipatutako prozesuen agerpena baieztatzeko, bai eta prozesu hauen garrantzia norainokoa den ikusteko ere, azterketa gehiago egin behar izaten dira. Eutrofizazio-prozesuak puntu oso konkretutan eta oso zehatz eta ezagunak diren arrazoi batzurengatik ager daitezke. Honek ez du esan nahi urtegi guztia eutrofizazio-prozesua jasaten ari denik, ez bada leku konkretu batzutan eutrofizazio-arazoa dagoela.

4.2. *Datu limologikoen azalpena eta interpretazioa*

Ur-hondoan azterketa egin eta, eutrofia-mailaren hainbat datu finka daiteke. Hau dela eta, azterketan neurtu beharreko parametroak ondorengook dirateke: redox potentziala, espezie planktonikoen konposaketa eta aberastasuna, disolbaturik agertzen diren metale pisutsuen kontzentrazioa, disolbaturik dauden ioien konposaketa eta beste abar luzea.

Parametro horien azalpenari ekingo diogu.

Parametro hauen jarraipena egiten da, eta kontzentrazioa eta sakonera ardatz modura erabiliz hauen aldaketak grafiko batetan adierazten dira, eta honek urtegia eutrofizazio-prozesuaren zein puntutan dagoen adieraziko du.

Laku edota urtegi eutrofiko eta oligotrofikoen zenbait parametrotarako soslai tipikoak R.G. Wetzel-ek 1975.ean egin zituen. Soslai horiek termoklina dagoen kasuetan baliagarriak dira. Soslaiak, denboran zehar, jarraiera izan behar dute; beraz, datuak sarritan hartu behar izaten dira, honek adieraziko bait du zein maiztasunez ematen den prozesua, zein intentsitatez, zein urtarotan,...etab.

Azterketa hauek hainbat puntutan egin behar izaten dira egun berean, ezen urtegi edo lakua osotasunean aztertu behar bait da. Honek adieraz diezaioke aztertzaileari arazo orokor edo leku konkretu batekoa den soilik.

4.3. *Uhertasuna*

Argia, fotosintesian duen eraginagatik, faktore oso garrantzitsua da. Argitasunak neurri handian mugatzen ditu ekoizpen primarioko zonak. Hortaz, argitasuna neurtu beharreko faktorea da.

Argitasuna neurtzeko *Secchi-diskoa* erabili ohi da. Normalean diskoak sakonera dagoen ehuneko hamarra isladatzen du, eta zenbat isladatzen duen aztertuz, zenbat argi heltzen den ere jakin dezakegu. Edozein modutan, argi-intentsitatea neurtzea ez da nahikoa, eta argi-kalitatea ere neurtu

behar izaten da. Honetarako, argi uhin-neurtzailea hondorazten da, sakonera bakoitzean dagoen argi-kalitatea ematen duelarik aditzera.

Ur garbi eta sakonean kolorea urdina izaten da, 470 nm-ko uhin-luzeera absorbatzen ez bait dute; ur eutrofikoetan, aldiz, kolore berde nahiz arrea izaten da.

4.4. *Disolbaturiko oxigenoa*

Urtegi edo laku eutrofikoetan disolbaturiko oxigenoak zero-baliorainoko soslai klinogradioa eratzen du, eta zenbat eta eutrofia-gradu altuagoa izan zero-balioa edo balio nulua gero eta sakonera txikiagotan lortzen da. Laku edo urtegi oligotrofikoek, aitzitik, soslai ortogradioa eratzen dute. Urtegi oligotrofikoetan jazotako aldaketak zio hauengatik ematen dira; alegia, oxigenoak disolbatua izateko dituen ahalmen ezberdinengatik.


Hala eta guztiz ere, soslai heterogradioak ere aurki daitezke nolabaiteko maiztasunez, hauen agerpenerako arrazoi ezberdinak leudekeelarik.

Lehenengo kasua (oxigenoaren maximo metalimnetikoa), estratifikazio termikoa oso egonkorra denean eman ohi da: adibidez; topografia edota landaretza faboragarriengatik lekua oso babestuta dagoenean. Kasu hauetan, disolbaturiko oxigeno maximoa ekoizpen altuko aldeetan gertatzen da, honen erantzukizuna bertako landaretzari dagokiolarik, bertara heltzen den argi-motara zeharo adaptatuta bait daude. Goreneko ur-mailaren berotzearekin batera, disolbaturiko oxigenoaren kantitatea ere murrizten da. Arrazoa fisikoa da (tenperatura altutan gasak era kaxkarragoan disolbatzen dira). Beraz, ekoizpen altuko zona izan arren, uraren tenperatura nahiko altua izan daitekeenez, bertan disolbatutako oxigeno-kopurua ez da espero zitekeen bezain handia izango.


Kontrako kasua (oxigenoaren minimo metalimnetikoa) elkarrekin iharduten duten zenbait faktore ezberdinen menpe dago, eta prozesu hau maila trofogenotik eratorritako materia organikoaren sedimentazio-murrizketak faboratua da. Sedimentazio-murrizketaren erantzulea termoklina sendo bat izaten da.

Zenbait kasutan, metalimnionaren oxigeno minimoaren erantzulea zooplanktonaren gehiegizko kontzentrazioa da (gehienbat kopepodo ez-migratzaileak), sarritan honen eragilea metalimnionaren altuera berean gertatzen den malda txikiko aldaparen agerpena edo hondotik eratorritako goranzko metano-fluxuaren oxidazio bakterianoa izan daitekeelarik.

Oxigenoaren neurketarako metodo ezberdinak daude, batzu analitiko eta beste batzu elektrodotan oinarritutakoak; azken hauek metodo errazagoak dira eta datu askoren lorpena ere baimentzen dute.



1. Fig. Oligotrofiko, eutrofiko, kalkareo eta banaketa heterogradokoak diren laku estratifikatueta azal daitezkeen oxigeno disolbatu, karbono inorganiko eta pH-aren soslai bertikal idealizatuak (Wetzel, 1975).



2. Fig. Oligotrofiko eta eutrofikoak diren laku estratifikatueta azal daitezkeen nitrato eta amonioaren soslai bertikal idealizatuak (Wetzel, 1975).

4.5. Karbono inorganikoa eta pH-a

Karbono eta pH-aren soslai bertikalak kontrako bideei jarraitzen zaizkie. Gainera, laku edo urtegi oligotrofikoetan ezberdinak izaten dira.

Epilimniona berotzeak CO₂-ren solubilitasuna beheratzen du eta, ondorioz, disolbatutako karbono-kantitatea murrizten da. Efektu hau nabarmenagoa egiten da ur bigun eta ez-alkalinoetan. Honi maila honetako aukerak CO₂-ren fixaketa gehitu behar izaten zaio, eta honek guzti honek pH-aren gorapena dakar. Ur-hondoan CO₂ eta HCO₃⁻-ren (azken hau amonio bikarbonatoaren eraketagatik) metaketa nabaritzen da, eta baita bikarbonatoarena ere; hau dela eta, hondoko pH-a azidoa izaten da. Karbono honen jatorria erortzen ari den materia organikoaren deskonposaketan dago, materia honen kontzentrazioa geroago eta handiagoa izatean metaketa ere handiagotu egiten delarik, pH-a, beraz, txikiagotuz.

Honek karbonoaren kontzentrazio-aldaketa nabaria dagoela adierazten du, bere ondorioekin batean: hots, pH-aldaketa, CO₂-ren eskuragarritasuna, argitasun-maila eta abar luzea.

4.6. Nitrogeno inorganikoa

Amonio eta nitratoaren soslaiak, laku edo urtegi eutrofiko eta oligotrofikoetan, erabat ezberdinak dira. Eutrofikoen Hipolimnionean gertatzen den materia organikoaren deskonposaketa dela bide, amonioaren kontzentrazioak gorakada oso nabaria jasaten du. Laku edo urtegi oligotrofikoetan, berriz, nitrifikazio-prozesuak eraginda, amonioaren kontzentrazioa konstante mantentzen da.

Nitratoari dagokionean, ur eutrofikoetan bere kontzentrazioa murrizten da. Desnitrifikazioagatik, aldiz, mantendu zein igon daiteke oligotrofikoetan, bertako zenbait izaki fixatzeko gai bait dira.

Beste aldera mintzatuz, nitrogenoaren kuantifikazioa autoanalizatzailen bidez egiten da.

4.7. Fosforoa

Fosforo totalaren nahiz disolbatuaren soslaiak, ur eutrofikoetan hondorantz hurbiltzen garen heinean, distribuzio ezberdinak har ditzakete. Fosforo-kontzentrazioek gradiente positibo oso markatua izaten dute. Ur oligotrofikoetan, alderantziz, soslai ortogradoak izaten dituzte.

Sedimentuen eta uraren arteko elkarraldaketek eragin nabarmenak izaten dituzte fosforoaren kontzentrazioan; honen arrazoia hau da, hots, baldintza anaerobioek sedimentuetan dauden fosfatoen disolbaketa baimentzen dutela.

4.8. *Burdina, manganesoa eta redox potentziala*

Fosfatoen prezipitazioa uretango burdinen kontzentrazioak baldintzatuta dago guztiz. pH azidoetan fosfato eta burdinaren disolbagarritasuna areagotzen da, baina honek badauka fosfato eta burdina eraentzeko autoerregulazio-metodo propioa, pH azidoetan gatz disolbagaitzak eratzen bait dituzte.

Burdina eta manganesoaren kontzentrazioak medioaren redox potentzialaren aldaketa jasaten du. Redox potentzial baxuetan, ioi hauek disolbagarri bihurtzen dira, honek sortarazten dituen arazoekin, ioi hauek izaki bizidunei oso toxikoak gertatzen bait zaizkie. Ur oxigenatuetan, pH-a basikoa denez, arazo hau ez da gertatzen, eta metale pisutsuen kontzentrazioak maila oso baxuetan agertzen dira. Bestalde, metale hauen kontzentrazioak neurtzeko, autoanalizatzaileak erabiltzen dira.

4.9. *Silizea*

Silizearen kontzentrazioek, denboraz zein sakoneraz, aldaketa bortitzak aurkeztzen dituzte. Ur oligotrofikoetan ere, aldaketa hauek oso nabarmenak izan daitezke. Zeharreko aldaketen arrazoia zianofizeen *bloom*-etan aurki dezakegu. *Bloom* hauek ematen direnean, auken tekak eraikitzeke silize guztia kontsumitzen da, eta silizearen berriztapena ez da inoiz kontsumo hau bezain azkarra izaten. Espazioan zeharreko aldaketen jatorria, ordea, zianofizeen sedimentatze-prozesuan bilatu behar da, ekoizpena handiagotuz sedimentazioa ere areagotuko bait da.

4.10. *Ekoizpen primarioa*


Ekoizpenari dagozkion soslai bertikalak argiaren eskuragarritasunaren soslaiei ere dagozkie. Zianofizea eta gainerako auken ekoizpena argiaren menpe dago. Beraz, argitasun handiagoa dagoen leku edo aldeetan, hau da, ur-azalean, ekoizpen maximoa emango da. Ur-azalean sortuko diren auka-mota nagusiak, flotatzeko ahalmena dutenak eta nitrogeno atmosferikoa fixatzeko gai direnak izango dira. Honekin batera, zona eutrofiko eta trofogenoen zabalera-murrizketa ematen da.

Ekoizpen primarioa neurtzeko karbono 14-aren kontzentrazio-beherapena edo uretan disolbaturiko oxigenoaren kontzentrazioa neur daiteke. Uretan dauden auken «a» klorofilaren kuantifikazioa egin daiteke, honek ahalmen-fotosintetizatzailearen ideia eman bait dezake.


Ekoizpen maximoa ur-azalean ematen da, bertan agertzen bait dira izaki fotosintetizatzaile gehienak. Fitoplankton honen osatzaile nagusienak zianofizea flotatzaileak eta nitrogeno fixatzaileak dira.

4.11. Sedimentuak


Sedimentuak oso garrantzitsuak dira ur eutrofikoaren kontrolean, era natural eta autokontrolatua mediotik elikagaiak kentzeko gai dira eta. Sedimentu hauen konposaketa granulometrikoa eta baita konposizio kimikoa ere garrantzi handikoak dira, depurazio-ahalmen nagusiak horietan oinarritzen bait dira.




3. Fig. Oligotrofiko eta eutrofikoak diren laku estratifikatueta azal daitezkeen fosforo totala eta fosforo disolbagarriaren soslai bertikal idealizatuak (Wetzel, 1975).



4. Fig. Oligotrofiko eta eutrofikoak diren laku estratifikatueta azal daitezkeen burdina, manganeso eta redox potentzialaren soslai bertikal idealizatuak (Wetzel, 1975).



5. Fig. Oligotrofiko, eutrofiko eta banaketa heterogradokoak diren laku estratifikatuetan azal daitezkeen silizearen soslai bertikal idealizatuak (Wetzel, 1975).



6. Fig. Eutrofia areagotzen ari den lakuetan azal daitezkeen ekoizpen fitoplanktonikoaren (ur-bolumen unitateko) soslai bertikal idealizatuak (Wetzel, 1975).

Sedimentuak era zuzenean daude erlazionatuta eutrofizazioarekin. Naturan ematen diren berezko eutrofizazio-prozesuak lakuaren desagerpe-narekin batera gertatzen dira. Eta hau sedimentuen sedimentazioagatik ematen da.

4.12. *Datu-lorpena eta tratamendua*

Lortzen diren datuek urtegi osoaren egoera adierazi behar dute; beraz, laginketa urtegi osoan egin behar izaten da. Laginketa egiten den kasu ba-koitzean, zenbait datu hartu behar izaten dira kontutan; hala nola, data, ur-maila, uraren tenperatura, zenbat euri egin duen azken egunetan,... etab.

Datu hauetaz gain, aurretik aipatutako parametroak aztertu eta neur-tu behar dira. Tratamenduak estatistikoa behar du izan. Lehenago aipatu diren grafikoak egin behar dira, bai eta datu hauen denboran zeharreko ja-rraipenean ere. Gero, haien arteko erlazioak aztertu behar izaten dira, zen-bait parametro elkarrekin agertzen bait da, eta kontrakoa ere gerta daitekeela-rik. Hau dela eta, zioak zein diren ikusteko, hainbat azterketa estatistiko egin behar izaten da.

4.13. *Neurketa-metodoak*

Landaretzaren laginak hartzeko, hauek flotatzaileak direneko kasue-tan, *van Dorn* izeneko botilak erabiltzen dira. Fitoplankton eta zooplank-tona harrapatzeko, ostera, sare-mota ezberdin batzu erabili behar dira. La-gina hartutakoan, izakion kontaketa eta identifikazioari ekin behar izaten zaio. Horretarako, kontatzaileak daude.

Sedimentuen laginketarako, dragak beharrezkoak izaten dira (Ekman edo Peterson-motatakoak, adibidez). *Core*-zilindroak ere erabil daitezke.

Tenperatura, pH-a, konduktibitatea, redox potentziala eta antzekoak neurtzea, egokiak diren elektrodoen bidez egiten da.

Elikagaien azterketa ezin da zuzenean egin. Bada, ur-laginak hartzen dira eta, ondoren, laborategian, HPLC edo antzeko autoanalizatzaileak erabiltzen dira azterketak egiteko.

Ohizko metodoekin ere egin daitezke, baina hauek askoz ere nekaga-riagoak dira, batez ere lagin asko aztertu behar direneko kasuetan.

4.14. *Eutrofizazioaren indizeak*

Margalef-ek dioenaren arabera, eutrofizazioa laku edo urtegiei eragiten dien tentsio egoera besterik ez da. Beraz, eutrofizazio-prozesuaren adierazleak

egon badaude, laku eta urtegien eutrofizazio-prozesuaren zein puntutan gauden adieraziko dutenak, hain zuzen ere. Prozesuok denboran zeharreko aldaketak jasango dituzte, batzutan orekan, eta bestetan eutrofizazioa handituz edo gutxituz.

Biomasa totala / ekoizpen primarioa
Biomasa totala / bakterio-biomasa
Zooplankton-biomasa / fitoplankton-biomasa
Zoofago-biomasa / fitofago-biomasa
Fitoplankton-biomasa / klorofila
Dinoflagelatuak / Diatomeak

Kasu guzti hauen emaitza handitzen denean, eutrofizazio-prozesua aurrera doala esan nahi du. Emaitzen balioa gutxitzen denean, aldiz, urtegia tentsio exogenoa jasaten ari dela adierazi nahi du.

Indizeok ez dira oraindik gehiegi ikertu, eta ez dago balore zehatzik eutrofizazio-prozesuaren zein puntutan gauden azaltzeko. Shapiro-ren araber (1975), indizea izan dadin honako ezaugarriok bete behar ditu:

1. Metodoak erraza izan behar du.
2. Metodoak aldakortasun tarte txikia izan behar du, eutrofizazio-prozesua tarte ezberdinetan bana ahal izateko.
3. Metodoak objetiboa izan behar du, inolako baldintzapen eta aurreritzirik gabe.
4. Metodoak absolutua izan behar du, eta ez erlatiboa, edozein kasutan erabili ahal izateko.
5. Metodoak zientifikoki baliagarria izan behar du, erlazio ez-linealak lineal modura ezin daitezkeelarik erabili.
6. Metodoak ulergarria izan behar du, bai zientifikoentzat bai eta uraren inguruan lan egiten duten guztientzat ere.

Hainbat indizek ez dituzte betetzen Shapiro-ren ezaugarriak, leku konkretu batzutan bakarrik aplika daitezkeelarik. Halatan, hauek ez dira eutrofizazio-prozesu guztietarako baliagarriak izango. Egun, metodorik erabilienetakoa Carlson-ena da. Indize honen balioak zerotik (oligotrofiko) ehunera (eutrofiko) doaz. Emaitz horiek uhertasunean dute oinarria. *Secchi-diskoa* ikusten deneko sakonera (z_s) eta eutrofia-graduaren (TSI) arteko erlazioa honako hau da:

$$TSI = 10 (6 - \log_2 z_s)$$

Indize bera beste parametro batzuren bidez kalkula daiteke, hauen erlazioa eta Secchi-diskoaren arteko erlazioa aurretik bait dakigu.

$$TSI = 10 (6 - \log_2 7,7/c_f * 0,68)$$

Klorofilaren kontzentrazioa (c_f) mg/m^3 -tan adierazten da.

4.15. Parametro limologiko errazak eutrofizazio-adierazle modura

Aurreko indizeak alde batera utzita, badaude beste eutrofizazio-indikatzaile onargarriak, limologikoak direnak. Indikatzaile hauek, uraren mineralizazio mailan oinarritzen dira, alkalinitatearen arabera ordenatzen direlarik. Baina, metodo hau ez da hain egokia eutrofizazioa adierazteko. Hau gainditzeko, klorofilaren kontzentrazioak edo antzeko beste indize edo parametro batzu neur daitezke.

Margalef-ek egin zuen ikasketaren ondoren, estatu espainolaren urtegi guztietan nolabaiteko eutrofizazio-maila dagoela ikus daiteke; beraz, mugak ezin dira oligotrofia eta eutrofia izan, eutrofizazio-gradu altua edo baxua baizik.

Margalef-ek honako muga hau jarri du eutrofizazioan: behatutako baloreek sarritan igarotzen badituzte parametro hauek, urtegi oso eutrofi-koak izango dira, eta hainbat arazo sor dezakete uraren erabilerrako; muga hau gainditzen duten urek eutrofizazio maila nahiko handia izango dute, uraren erabilera hainbat gauzetarako murriztuz.

1. TAULA

Carlsonen egoera trofikoaren indizeari (TSI) dagozkion fosforo totala (P_t), klorofila (c_f) eta Secchi-ren sakoneraren balioak (z_s). (Carlson, 1974).

TSI	Z_s (m)	P_t (ur-azala) (mg/m^3)	Klorofila (ur-azala) (mg/m^3)
0	64	1	0,24
10	32	2	0,12
20	16	4	0,34
30	8	8	0,94
40	4	16	2,6
50	2	32	6,4
60	1	65	20
70	0,5	130	56
80	0,25	260	154
90	0,12	519	427
100	0,062	1032	1183

2. TAULA

PARAMETROA	MUGA
Zelula-kopurua	5000/ml
klorofila-kontzentrazioa	5 mg/m ³
Ur-azaleko ekoizpen primarioa	3 mg C/m ³ h
Fosforo-kontzentrazioa	15 mg/m ³
Nitrato-kontzentrazioa	140 mg/m ³
Secchi-diskoaren sakonera maximoa	3 m

EUTROFIA-MAILAREN INDIKATZAILE PLANKTONIKOAK

PARAMETROA	EUTROFIA-MAILA		
	Oligotrofikoa	Mesotrofikoa	Eutrofikoa
Auka-kopurua/ml	2000	2000-15000	15000
Klorofila maximoa (alde eufotikoan) mg/m ³	3	3-20	20
Ekoizpen primarioa gC/m ³	0,2	0,2-0,75	0,75
Biomasa mg/l	1	1-10	10
Bolumen zelularra mm ³ /l	5	5-30	30
Rotiferoak/l	0-10	10-250	250
Mikrokrustazeoak/l	0-1	1-25	25

(C.I. Weber-en arabera, EPA, USA, Landner-ek aipatua, OMS,1976)

5. Eutrofizazioaren kontrola eta konponbideak

Hasi baino lehen, gogoan eduki behar da dagoeneko aipatu den ideia bat, hots, eutrofizazioak izaki bizidunen kopuru-emendapena suposatzen duela. Hortaz, soilik gizakiaren kontsumorako edo gozamenerako erabiltzen den ura izango da deseutrofizatu beharrekoa. Modu honetan, eutrofizazio-graduaren eraiketan erabiltzen diren metodoak azaltzeko, urtegia hartuko dugu oinarritzat, urtegiatako ura izango bait da deseutrofizazioaren behar handiena duena.

Aipatu beharra dago, baita ere, eutrofizazio kulturalak berez duela desgertzeko joera, gizakiaren eragina amaituz gero. Deseutrofizazio-prozesua uraren

berrizatze-abiadurari zuzenki lotuta dago (gero eta berrizatze-abiadura handiagoa izan, deseutrofizazioa ere bizkorrago emango da).

Eutrofizazioa kontrolatzeko, pausu batzuri jarraitu behar zaie:

Lehenik, eutrofia-mailaren ikerketa egin beharko da, ahal izanez gero etorkizuneko eutrofia-maila zehaztuz.

Bigarrenez, urtegiak izan dezakeen eutrofia-maila maximoa behar dugu jakin, honi fosforo-sarrera maximoa doituz. Hau uraren erabileraren menpe egongo da.

Hirugarrenez, fosforo-sarrera murriztea, non eta nola egin argitu behar delarik, metodo errezen eta merkeenez baliatzeko. Pausu hau urtegiara sartzen diren uretan egitekoa da.

Eta azkenez, fosforo-sarrerak erreketan ezingo balira mugatu, urtegiaren metodo bereziak erabili beharko lirateke.

Orain arte ikusitakoak ikusita, argi geratu da kontrolatu beharra dagoen parametroa fosforoa izango dela. Honetarako, ondoren aipu egingo ditugun metodoak daude.

5.1. Fosforo-sarriren murriztea

5.1.1. Iturri lekutueta

Eragin handiena duten fosforo-iturriak, iturri lekutu edo lokalizatuak dira, hauen artean garrantzitsuenak herri eta hirietako etxe-zaborrak direlarik. Eragin handiena duten arren, aiseago konpon daitezkeenak ere badira.

Sarrera hauek eraentzeko, modu garrantzitsu bi aipa ditzakegu:

Suedia eta Estatu Batuetan erabiltzen den sistema berezia da lehena. Kasu honetan, garbikarien fosforoaren ordean, kalte gutxiago sortzen duten substantziak jartzen dira, hala nola NTA, EDTA,... etab. Metodo hau nahikoa garestia da.

Bestea aurrekoa baino arruntagoa da, eta saneamendu-sareen hobekuntzan eta hedakuntzan datza. Honela, depuradoreen kokatzeak garrantzi handia izango du, efizientzia handiagoa lortzeaz denaz bezanbatean:

- a) Tratamendu konbentzionala: metodo honi esker, materia organikoa baztertzen da, fosforoa bide ez-zuzenen bidez alboratzen delarik. Halarik ere, gehienez fosforoaren erdia baino ez da desagertzen, kasu hauetan lokatz aktiboak erabiltzen direlarik. Prozesu honetan zenbait pausu egin daiteke: sareen bidezko iragazketa, materiale solido handiak kenduz; dekantazioa, substantzia solidoak

sedimentatuz; haren bidezko iragazketa, partikula solidoak eta patogeno guztiak bereiziz, bai eta disoluzioan dagoen materia organiko gehiena ere; aire-bidezko desferrizazioa; nitrifikazio biologikoa; zapora eta usain txarrak kentzeko, ozonizazioa eta azidifikazioa erabiltzen dira, bai eta ikatz-aktiboren bidez eginiko beste iragazketa bat ere; azkenik, klorazioa egiten da.

- b) Inoiz, aurreko prozesuez gain, prezipitazio kimikoa edo tratamendu tertziarioa ere burutzen da. Orduan, karea, burdina edo aluminioa botatzen da, fosfatoekin erreakzionatuz gatz disolbagaitzak era daitezten. Aurreko metodoa baino garestiagoa den arren, fosforoaren ehuneko laurogeitamabosta kentzen da. Prozesu honetatik lorturiko urak, ezin daitezke zuzenean erabili gizakiaren kontsumorako, prozesaketan konposatu toxikoak erabili bait dira.

5.1.2. *Iturri zabaletan*

Erantzule garrantzitsuenak iturri zabalak direnean, ondorengo pausu hauetan oinarritu behar da kontrola: metodorik merkeena nekazarien hezkuntza da, esan nahi baita, nekazariari ezagutaraztea noiz eta zein kantitatean aplikatu behar diren ongarriak; beste kasu batzutan, ibai-bazterrak babesteko programak egin daitezke, urbanizazio-eraiketa eta zuhaitz-mozketatik begiratu asmoz. Hala eta guztiz ere, iturri zabaletako fosforoa ez da orainokoa batere kontrolatu, aipatu metodoak ez bait dira normalean betetzen.

Agi denez, fosforoaren murriztea urtegi-tako sarreretan egin beharko da.

5.1.3. *Urtegi-sarreretan*

Hemen aipu egingo diren metodoak lehenagoko metodoekin batean ere erabil daitezke. Garrantzitsuenak hauexek izango lirateke:

- a) Aurre-urtegiak: urtegi heldu baino lehen ibaietan zehar aurre-urtegiak kokatzea, edo beste modu batetara esanda, padura artifizialak egitea, zona hauek bait dira ekoizpen eta kontsumo maximoko zonan; beraz, hemendik aterako den ura, nahikoa puru eta elikagairik gabekoa izango da. Sistema honen arazoa edo desabantaila auka-kopuruaren fluktuazioan datza, neguan auka-kopuru txikia dagoenez lortuko den purutasuna gutxituko bait da, elikagaien desagertzea hain efektiboa izango ez delarik. Gainera, sedimentazioa ere gutxituko

da. Metodo honek fosforoaren ehuneko hirurogeia baztertuko du. Honelako kasuetan, uraren berriztatze-denborak aski laburra behar du izan, ezelango anoxia fenomenorik gerta ez dadin.

- b) Urtegi-sarreretan jarritako depuradorak: oraingo honetan, gatz ferrikoak erabiliz jalkitzen da fosforoa, ondoren beste prozesu bartzuri jarraituz ehuneko laurogeitamarrean murriz daitekeelarik (Alemaniako Wahnbach urtegia jar daiteke enenplu gisa).
- d) Lur-barneko iragazketa: ur-etorri eskaseko erreketan egiten da, erreka-hondoan harea eta buztin limoak ezartzen direlarik. Metodo honen bidez fosfato gehientsuenak kimikoki fixa daitezke.
- e) Erreken bideraketa: erreka bat, oso kutsatuta baldin badago, desbidera daiteke, eta ur garbiak dituenean urtegitara atzera bideratu. Era honetan, elikagaien kontzentrazioa gutxitzen da. Baina, hau ez da beti posible.
- f) Urtegi-inguruko etxe-zaborrak kolektoreekin batzen dira, depuradoraraino garraiatuz, aurretik ikusitako pausuak emango direlarik.

Goiko metodo orok huts egiten badute, eraenketa-prozesua urtegian bertan eman beharko da.

5.2. *Eutrofizazioaren kontrola urtegitan*

Hemen aipatuko ditugun teknikek epe laburretarako soilik balio dute, epe luzetan arazoak bait dakartzate. Teknika hauek, eutrofia kendu beharrean, ezkutatu egiten dute.

5.2.1. *Zirkulazio artifizialak*

Metodo hau dela bide, ur-masa osoa nahastua izatea erdiesten da, termoklina desagertarazi eta sakoneko geruzetan eman daitezkeen anoxia-fenomenoak galeraziz. Hau lortzeko, ur-kapa sakonetan aire konprimitua injeztatzen da. Turbulentziek eraginda, zianofizeoen hazkuntza-tasa urritzen da, behe-geruzetara garraiatuak izaten dira eta. Baina, zirkulazio artifizialak arazoak ere izaten ditu, turbulenzia hauek sedimentuetako elikagaiak disolba eta igon bait ditzakete. Metodo hau erabilia da, batez ere, anoxia-fenomenoak ekiditzeko.

5.2.2. *Dragak*

Sarri askotan, urtegitako elikagaiak kendu asmoz, lupetzak dragatzen dira. Metodo hau, arazo tekniko eta ekonomikoak direla eta, sakonera gutxiko

zonetan soilik erabil daitezke. Metodo honek hainbat arazo dauka: batetik, sedimentu guztiak ez badira kentzen, sakoneko sedimentuen askapena eman daiteke; eta bestetik, sedimentuen mugimenduak fosforo sedimentatuaren berdisolbaketa ekar dezake, honek epilimnionaren elikagai-kontzentrazioa areagotuz. Metodo honekin ateratako lokatzak toxikoak ez baldin badira, nekazal lurrak ongarrizatzeko erabiltzen dira. Toxikoa denean, berriz, lokatzen intzinerazioa konponbiderik onena izan ohi da. Suedian nahikoa emaitz onekin izan da erabilia.

5.2.3. *Geruza zimentatzaileak*

Beste metodo bat sedimentuen immobilizazioa izango litzateke, honetarako geruza zimentatzaileez baliatuz. Metodo hau ez da egungo egunean erabiltzen.

5.2.4. *Sedimentuen tratamendua in situ*

Dragek desabantail ugari sortzen dutenez, batzutan metodo berri hau erabiltzen da. Frantzia eta Suedian frogatu da, gehienbat.

Sedimentuen goikaldeko hamabost zentimetroetan alumina sulfatoa injektatzen da, lokatzek fosforoarekiko duten absortzio-maila gehitzearren. Honetaz gain, epilimnionean jalkitzaileak ere gainerarazten dira, fosforoaren prezipitazioa emanik.

5.2.5. *Auka eta makrofitoen baztertzea*

Hiru mekanismo-mota ditugu:

- a) Mekanismo kimikoak: usu, kupre sulfatoa erabili ohi da, animaliei kalterik ekarri gabe auka eta makrofitoak hiltzen bait ditu. Mekanismo merke eta azkarra da. Halabaina, arazo bi sor ditzake: alde batetik, zooplanktonaren kontra joatea; eta bestetik, auken gaineko eragina iraunkorra ez izatea, fosforoa uretan geratuz, hurrengo aukek hartu zain. Beraz, auka eta makrofito ugari dagoenean soilik izan ohi da erabilgarria. Urpeko makrofitoak hiltzeko sodio arseniatoaz ere balia daiteke, baina toxikoagoa denez, eta sedimentuetan pilatzen denez, ez da oso erabilia.
- b) Mekanismo mekanikoak: kasu honetan, makinaren bitartez landareak kentzen dira, edozein landare-mota ken daitekeelarik. *Bloom*-en eragina ezabatzeke aspirazio-bonba eta iragazketa bezalako teknikak

erabiltzen dira. Metodootatik jadetsiriko materia organikoa urtegietatik urrun eraman behar da, uraren elikagai-kontzentrazioa berriro ere igon ez dezan. Hortaz, lokatzak eta materia organikoa uzteko lekua oso ondo aukeratu behar da.

- d) Metodo biologikoak: azken metodo hauetan fitofago eta herbiboroak erabiltzen dira, ekosistemaren barnean sartzen direlarik. Hauen artean ondokoak ditugu: intsektuak (ur-euliak, koleoptero batzu eta ortopteroak), moluskoak (*Marisa* generoko marrazkiloak), krustazeoak (*Daphia* generoko kladozeroak), arrain herbiboroak (karpa arrunta eta berdea, bai eta *Tilapia* generoko arrainak ere), hegazti akuatikoak eta manatia (ugaztuna). Guzti hauetarik erabilienak arrain herbiboroak dira, baina gero arrainok arrantzan atzeman beharra dago, honela fosforoaren kontzentrazioa gutxitzeko (fosforoa mediotik ateratzen bait da, berriro ere deskonposatzen ez delarik urtegian, elikagai bihurtu gabe).

Zianobakterioak eraentzeko, fagoen beharra egongo litzateke, edota onddo parasitikoena. Azken hau, baina, ez da oraino erabili, eta ez luke arazoa erabat konponduko, fosforoa ez bait da mediotik kentzen.

6. Eutrofizazioaren gaineko azken hitza

Eutrofizazio-prozesuaren gorabeherak jorratu eta, berau zertan den ikusi ahal izan da, hau da, izaki bizidunen emendapena erakartzen duen prozesu bat, gizakiaren aurrerapenerako oztopo delarik. Beraz horrela, kalitate oneko urak erdieste garrantzi handikoa izango da, beste izaki bizidunen ugaritzea galerazi arren. Haatik, toki guztietan kalitate hobekuntza hau aurrera eraman beharrik ez dago, zenbait aintzira edo lakutan eutrofizazio naturala ematen utzi bait daiteke, ekosistema-mota hori desagertu ez dadin. Urtegiatan, halarik ere, nahitaezkoa da eutrofizazioa galeraztea, honetarako metodo anitz erabil daitekeelarik. Metodook, banan banaka bederen, ez lukete eutrofizazioa egotziko. Horregatik, denak batera erabili behar dira; alegia, posible direnak, elkar baztertzen ez duten heinean. Honelaxe, etorkizunean agertzen diren eraenketa-metodo berriei esker, seguruenez, urtegiatiko eutrofia kulturalak arazo izateari utziko dio. Hori da lan honen egileen esperantza.

BIBLIOGRAFIA

- BARROIN, G., «La contaminación del agua por fosfatos» in *Mundo científico*, Barcelona, Fontan, 1990, 104 zenb., 790-798 or.
- DESBORDES, M., DEUSTH, J.K. & FREROT, A., «El agua de lluvia en las ciudades» in *Mundo Científico*, Barcelona, Fontan, 1990, 104 zenb., 752-760 or.
- HENDERSON-SELLES, B. & MARCKLAND, H.R., *Decaying Lakes. The Origins and Control of Cultural Eutrophication*, Chischester, John Wiley & Sons, 1987.
- MARGALEF, R., *Ecología*, Barcelona, Omega, 1982.
- MARGALEF, R., *Limnología*, Barcelona, Omega, 1983.
- MEYBECK, M.: «La contaminación de los ríos» in *Mundo científico*, Barcelona, Fontan, 1990, 104 zenb., 789-790 or.
- ORTIZ CASAS, J.L.: «Generalidades sobre métodos de prevención y control de la eutrofización» in *Curso sobre eutrofización de embalses. Gabinete de formación y documentación*, Madrid, CEDEX-MOPU, 1988.
- ORTIZ CASAS, J.L.: «Indicadores de eutrofización. Criterios de clasificación de lagos y embalses según el grado de la eutrofia» in *Curso sobre eutrofización de embalses. Gabinete de formación y documentación*, Madrid, CEDEX-MOPU, 1988.
- RIERA, J.L. & MORGUI, J.A.: «Limnología regional de los embalses españoles» in *Mundo científico*, Barcelona, Fontan, 1990, 104 zenb., 720-728 or.







OROIMENA: HERRIA, ARKAIKOA, HISTORIA

ROMAN GARATE

*EDOZEIN ERATAKO PENTSAKERA LANEAN EDO GIZA
ihardunean, gogoaren alderdi hirukoitza azaltzen da: oroimena, adimena eta
nahimena.*

Gogatzen edo aztertzen dugun dena, adimen - nahimen bikoteari zuzen zuzenean *artez* lotuta, begibistan azaltzen da. Edo den dena bikote horrek mamitua eta eraginda ikusten da. Ez zaigu, ostera, oroimenarekin horrela gertatzen. Eta horregatik, hain zuzen, hitz bereizia edo gogoeta bereizia egingo dut hemen, oroimenari buruz. Hirukote *sagaratu* horretan, oroimena izan ala ez izan edo oroimenik ez balitz ere berdin samar izango ginatekeela uste izan dugu eta usten da, sarritan. Uste horretan jokatzeko da, sarritan. Ez da, ia, ikasturterik unibertsitatean igarotzen, horrelako zerbait entzun gabe: «Gurea, adimen arazoa da. Oroimena... kakaumeentzat!». Edo horren ildotik datorrena, askok aitortzen dute, itxurazko xalotasunaz, baietz! oroimen makala dutela, baina kontuz! Ze, adimena, ostera ...! La Rouchefoucauld-ek zioena: «Tout le monde se plaint de sa mémoire, et personne ne se plaint de son ugement». (La Rochefoucauld. *Maximes*. Garnier. Paris. 27. orr.)

Ez dago, baina, horrelako *osterarik!* Karl Rahnerren hitzekin, *bat* da gogoia. Ez da *bat* adimena eta *beste* bat oroimena. Eta batera datoz, horrez gero, adimena, nahimena eta *oro*-mena. *gogoaren* alderdi hirukoitza.

Harmonian azaldu behar den giza-gogoaren ahalmen hirukoitza. Oroimena baztertzea, bada, gizakia nolabait baztertzea da edo nolabait gizakia makaltzea da. Esan beharrik ez litzateke, jakina, oroimen mota asko direla, gogo moten arabera... gizaki moten edo gizabanakoen arabera. Oroimen mota asko, gizaki oroimendunaren jerarkiaren arabera, bere balioen arabera. Oroimena, bada, gogoaren antzera, gizabanako pertsonalitatearen arabera eta horren kulturaren arabera izango da. Ze, G. Torrente Ballesterrek ondo zioen bezala: «la memoria, columna de la personalidad y soporte de la cultura» da. (*El País*. 16.11.86)

Egia: «Oroimena, pertsonalitatearen bizkar hezurra eta kulturaren zutabe-zutikakoa da». Zuzen, bada, G. Torrente Ballester bere salaketan:

La educación moderna se desinteresa de la maduración armónica de las facultades, posterga unas en beneficio de otras (piénsese, por ejemplo en el descrédito de la memoria, columna de la personalidad y soporte de la cultura).

Oroimena: 1. pertsonalitatearen bizkar hezurra da. Oroimena, gizakia da. Oroimena, gizabanakoa, bere bizitza bereizia, bere pertsona eta pertsonalitatea da. Oroimena: gogoaren norberarekiko norberaren begitartea (presentzia). Igaroa, joana, antzinatea, lehengoa, iraganiko kronoa eta utopia *gaurkotzen* eta *bertaratzen* duen gogo. Igaroa, antzinitatea, lehengoa, iraganakoa krono eta utopia, *oraintxe* eta *hemen*, gure baitan berpizten duen gogo, oroitzen duena, *oraintzen* duena. *oroimena* = *orain-mena*.

oroitzea ala *ez*, *gizakia* ala *ez* bestekoa da.

Oroimena, pertsona-gizabanakoaren eta pertsona-kulturaren edo herri-kulturaren funtsa da.

Aski luze mintzatu izan naiz oroimenaren bi alderdi hauetaz nere *Etika Sarrera Ez-ta-bai-dan* deritzan liburuan, oroimenaren alderdi bakarreko edo pribatuari eta oroimenaren alderdi gizarteko edo publikoari buruz alegia. Hemen, alderdi bakarreko edo pribatua utziz, alderdi gizarteko edo publikoari buruz esandako zerbait jasoko dut.

Oroimena-herria

G. Torrente Ballesterren esaeraren bigarren zatiak ondo dienez: «Oroimena... kulturaren zutabe-zutikakoa da». Reyes Matek «memoria filosófica-histórica» deitzen duena. Edo Manuel Pradok San Agustinek lehenago esan zuena baieztatuz, beste hitz hauekin:

La cultura es la memoria de un pueblo, su ordenador particular, y en él, ha ido, siglo tras siglo, procesando datos, a fin de utilizarlos en el momento oportuno». (*El País*.2.8.89).

San Agustinek piskat lehentxoago esandako hitz berak, bai, Pradosen *pueblo* ordez *gizadia* (*humanitas*) jarriz gero: «Hirugarrena, kulturaren lorpenak gordetzen dituen oroimena. Kultura, berriz, gizadiaren oroimena bezala da». (*De quant.* an. 44, 70-77).

Gizabanakoari hainbesteko arazoa bazaio oroimena, beste hainbeste zaio herriari, *kulturari* zuzen zuzenean (artez) lotuta zaion oroimena. Zinez, gizabanakoari baino arazo haundiagoa zaio herriari, kulturari lotuta zaion oroimena. Ze, gertatzen edo existitzen bada ere oroimen gabeko gizabanakorik, gizabanako amnesiadunik, ezinezkoa da horrelako *herririk*: «Los pueblos nunca son amnésicos». Egia hutsa bait da, toki guztietan, Roberto Bergallik Argentinari buruz bere *El discurso jurídico del olvido* deritzan idazkia amaitzeko jartzen zuena:

Proceder de otra forma supone una limitación del conocimiento y el análisis de lo que está ocurriendo en Argentina, lo cual, como memoria colectiva, para cualquier sociedad que pretenda identificarse y perpetuarse como tal, es el elemento fundamental de su unidad y de su personalidad, mientras que la transmisión de este capital intelectual es la condición necesaria para la supervivencia material y social (*El País*. 30. 11.88)

Eta gauza bera Juan Goytisolok:

«Una sociedad se define no sólo ante el futuro, sino frente al pasado, —escribe Octavio Paz— sus recuerdos no son menos reveladores que sus proyectos». (*El País*. 5.11.88)

Ez da amnesia duen herririk. Bertan behera geldituko litzateke suntsituta herri amnesiaduna. Herriaren bizkar hezur eta zutabe zutikakoa faltako litzaioke: *haztura-tradizioa!* Zenbatezin eratako erakundez, egituraz, ohituraz, folklorez, kirolez..., kulturaz zuztartuta eta mamituta dagoen eta den *tradizioa* faltako litzaioke. *begibistan* diren mila eratako ezaugarri eta sinboloz- bandera-ikurrinaz, musikaz, jazkeraz, jolasez, sukalkintzaz, edertiz ... eta *sakoneneraino* heltzen den ezaugarri-sinbolo- komunikabideaz, *hizkuntzaz* alegia, zuztartuta eta mamituta den *tradizioa* faltako litzaioke. Zentzugabeko mamua, esanahi gabeko hitza edo eduki gabeko errealitatea bilakatuko litzateke *tradizioa*. Hutsune hutsa eskeintzen duen tradizioa. Erabateko *nihilismoa* litzatekeen tradizioa. Ze, *tradición*... «Comunicación o transmisión

de noticias ... hechas de padres a hijos al correr de los tiempos y sucederse las generaciones» da, ondo dioen bezala la Real Academia Española hiztegiak. Ez litzateke tradizioarik, ez litzateke kulturarik, ez litzateke heziketa *gizatiarrik*, ez eta *askatasunik*, batera datoz eta —bat ez badira— horiek, F. Savaterrek ondo dioen bezala:

Además, la memoria de la tradición cultural es parte esencial del concepto humanista de educación, que nunca puede reducirse a la suma de destrezas o de procedimientos instrumentales: la memoria que muestra el paradójico *trayecto* humano, lo que bella pero enfáticamente Croce designó como «hazaña de la libertad». (*El País*. 21-22.4.90) Azp.berea.

Hori den dena bertan behera ezereztuta geldituko litzateke oroimenik gabe. Ze, hori dena, nahitaez, oroimenaren zeregina da. Oroimenarena ere, gutxienez. Ez litzateke *comunicación* oroimenik gabe. Ez litzateke «transmisión de noticias hechas de padres a hijos» guraso seme-alaben lotura-batasunik oroimenik gabe. Ez litzateke «correr de los tiempos» *denborarik gabe*. Ez dago denborarik, ordea, oroimenik gabe: «...el autor de *El Discurso del Método* afirmaba: 'Yo soy tiempo porque recuerdo haber tenido pensamientos anteriores». (*El País*. 17. 9.87 Azp.berea).

Ez litzateke bata bestearen ondorioarik edo *sucederse*, oroimenaren oraintze barik. Ze, tradizioa oroimenaren ekintza da funtsean: «La tradición es un recurso de la memoria activa». (*El País*. 6.9.87)

Ez da, bada, herri amnesiadunik. Beste gauza, zeharo desberdina, *amnistia* duen edo *amnistia* ematen duen herria. Desberdinak diren bezala *ahaztea* eta *barkatzea* edo *ahaztea* eta *zuzena* (*justizia*) egitea. Abedeko bait da: «Amnistía no es amnesia». Ze, baldin zuztar bat badute ere etimologian amnistiak eta amnesiak, erabat bi gauza desberdin dira gaurko errealitatean. Ez dago, esan bezala, amnesia duen herririk. Herriarena da, ostera, behar den edo komeni den amnistia *eskeintzea*. Eta herri gutxi izango dira, gauregun, nolabaiteko amnistiari izan ez dutenik. Amnistiari ezin izango lukkeen herria, ordea, ez pipiak baizik tiraniak jotako herria litzateke. Amnistia ezintasun hori, ez litzateke herriarena, herri hori zanpatzen duen gobernu mota batena baizik. Horregatik, ondo bereizten ditu, M. Benedettik, herriak eta gobernuak:

Los pueblos nunca son amnésicos. Amnistía no es amnesia. La tradición es un recurso de la memoria colectiva, pero también hay otros, menos inofensivos. Tampoco los gobiernos son amnésicos, aunque a veces intentan ser olvidadores. (*El País*. 6. 9.89)

Herriak ez du zergatik ahaztu. Gobernuek, oster, —gizabanako bazuen antzera— interes handiak izaten dituzte ahazteko. Ez amnistia eskeintzeko herriaren ordezkari direnez, komeni ez zaiena *ahazteko* baizik. Ondo, bada, M. Benedetti ahazle izateko era hori adierazten duenean: «Curiosamente, su forma de olvidar suele ser proselitista, ya que su objeto es que también los demás olviden.» Ez du, horrela ahantzi nahi duenak amnistiarekin zerikusirik. Gobernuak horrela nahi duena trukea da. «Do ut yes» da. Nik ahaztu egingo dut zuk ahaz dezazun. Truke hori, baina, *prostituziorik* haundienaren antzeko da. Ze trukatzaileak —gobernua eta herria alegia— neurri bat beragaz neurtezinekoak dira. Batetik, gobernua edo gobernatzailea: herriaren *ordezkaria*, herriak aukeratutakoa —benetakoa gobernua bada— eta herriak ken dezakeena, herritik baitatozkio gobernuari bere nortasuna eta agintea: «*Rex gratia populi!*» aspaldian eta behin betiko Suarez-Molina-Vitoriak munduari aldarrikatu zioten bezala. Hori batetik: *herriaren* eta *herriarentzat* den heinean benetan gobernu edo gobernadore dena —berdin delarik zernolako gobernua edo gobernadore-lehendakari den ordezkari hori—.

Eta bestetik, herria bera. gobernurik onena eta gobernadorerik onenak izanik ere —edo inoiz izango balitu—, gobernua eta gobernadoreak baino askoz gehiago dena. Ze, onenean ere, gobernua eta gobernadoreak, *herriaren* eta *herriarentzako* osakai batzu dira. Horregatik, bada, errez ulertzen da M. Benedettik dioena: «Siempre es un mal síntoma cuando un gobernante intenta basar su poder en el olvido colectivo». Ezinezkoa eskatzen dio herriari guziekiko ahaztea eskatzen dionak. Edo bere burua elbarritzea eskatzen dio herriari guziekiko ahaztea eskatzen dionak. Norbera murriztea edo elbarriztea da herria amnesian jaustea. Herri beraren zuztar galtzea, herria beraren tradizio galtzea, herri beraren nortasuna galtzea da —amnesia edo guziekiko ahaztea ematen den neurrian—.

Amnesia hori, guziekiko ahazte hori, hutsetik hasi nahi izatea beste litzateke. Hutsetik hasiko litzatekeen herria, baina, ameskeria hutsa litzateke. Eta ameskeria hutsa litzatekeen herria, ezinezkoa da: «Por lo general, es entonces cuando propone comenzar de cero, como si eso fuera posible».

Oroimena-aintzinakotasuna-arkaikoa

Baldin ameskeria bada ere hori ba da horretan saiatzen denik. Bada lehengoa, igaroa, antzinakoa, tradizioa ahaztea nahiko lukeenik. Bada *aurrelari* mozarroz edo «iraultzaile» harrokeriaz —hipokresiaz ez bada—, herriari barre egiten dionik, herriak lehengoa, igaroa, antzinakoa, tradizioa,

atzekoa ere gogoan duelako, oroitzen duelako. Bada, horregatik, herria atzeari eta *atzeratua* deitzen eta salatzen duenik. Eurena, atzera inoiz ez begiratzea da. Eurena, beti *aurrera* begiratzea da. Eurak *aurrelari* dira:

por lo general, es entonces cuando propone empezar desde cero, como si eso fuera posible. Lo cierto es que esa frase tiene para él un encanto particular. Hay que prohibirse mirar hacia atrás; hay que mirar siempre adelante.

Ondo eta sarritan salatu zituen *aurrelari* horiek *progreztzat* edo *zibilizazio-parvenutzat*, J. Ortega y Gassetek:

Como todos los *parvenus*, el *parvenu* de la civilización se avergüenza de las horas humildes en que inició su existencia y tiende a sigilarlas. El *progresista* de nuestro tiempo es el mejor ejemplar de esta clase; de aquí su fobia hacia el pasado, sobre todo hacia el hombre primitivo. Deslumbrado por las botas nuevas de la civilización actual, cree que el pretérito no puede enseñarnos nada, y mucho menos ese pasado absoluto, fuera ya de la cronología que habita el hombre prehistórico. (*obras* de J. Ortega y Gasset. Espasa Calpe. Madrid. 1932. 346. orr.Azp. berea).

Beti aurrera! Atzera begiratzea ... atzeratuena litzateke.

Eta aurkituko ditu, nola ez, gobernadore aurrelari horrek, *intelektual* aurrelariak, *atzeratuak* onenean historiaren linbora jaurtitzeko lagunak. Euren linboko hitz-argi-ilunez *atzeratuei* aurrelarien sanbenitoak leporatzeko prest daudenak. Adibidez, *arcaísmo antzinakotasun* hitzaz.

Hitz hori da, nonbait, *progre* edo *parvenu* zibilizatuak aurkitzen duen egokiena, J. Ortega y Gassetek dioen «ese pasado absoluto, fuera ya de la cronología, que habita el hombre prehistórico» adierazteko.

Arcaísmo *antzinakotasun* sanbenitoaz epaitzen bazaitu intelektual aurrelariak, kito! Egina du zureak... berak kokatzen zaituen linboz landa, behintzat. Ze, ez dakigu non demontreko sorgin-magiaz, euren hitz horrek, *arcaísmo* hitzak alegia, linbokoa baino ilunpe beltzago du, zentzu atzerakoiagoa du.

Egia, ez dugula R. A. Españolaren hiztegian *arcaísmo* hitz horren esanahi lotsagarri edo *atzerakoirik* aurkitzen, ez bada lotsagarri edo atzerakoi antzinakoa, aspaldikoa izatea! Eta ez da neretzat atzerakoi edo lotsagarri, pozik bait naiz neu naizen gizakiari, esate baterako, milaka edo miloika urte aitortzen bazaizkio. Lotsagarri ez zaidan bezala euskarak edo grezierak milakako arcaísmo badu, hots : «*arcaísmo*. Del lat. *archaismus*, y éste del gr.

arjaismos. m. Calidad de arcaico.» Eta «arcaico, ca ... Pertenciente o relativo al arcaísmo. 2. *muy antiguo*. (Azp. nir.).

Eta bada, nonbait, nere gusto berdinekoa denik gaurko *jakintsuen* artean. Hor, adibidez, «Gregorio Salvador Caja, miembro de la Real Academia de la Lengua Española.» Jakintsu horren iritziz: «*Gregorio Salvador asegura que el castellano es más antiguo que el euskera*. (*El País*. 30.8.89)

Gaztelera, euskara baino zaharragoa omen da! Eta euskara baino zaharragoa gaztelera, Euskal Herrian bertan! Ez dut uste gaztelerrari aitortzen dion *aintzinakotasuna* edo *arcaísmo* gaztelarentzat inolako gutxiagokotzat epaitzen duenik!

Horrez gero, *arcaísmo* eta horrelako sanbenitoak, Flandesko jostun haien edo 1575.ean Príncipe Don Juan Manuelek bere *El Conde Lucanor* deritzan «tres hombres burladores» haien *jakinduriaren* eta *trebatasunaren* pareko gelditzen dira ... —orduan bezala— ikusten edo aditzen duguna bakarrik —besterik ez— aitortzeko xalotasuna dugunon herri jendearentzat. *Tabu-ek* bakarrik ematen bait diote *arcaísmo* eta horrelako sanbenitoei euren *eragina*. Beldurrak, modan ez egotearen lotsak, «seme natural» sanbenitoaren tabuak edo horren antzekoak *atzeratu-arcaico* sanbenitoaren tabuek ematen diete hitz horiei euren eragina. Berdin zaio, aditzen edo ikusten ez dugunarekin ez aho zabalik ez eta txaloka hasteko, intelektual hori *jeniotzat* gorraipatutako Jon Juaristi bada ere. Horren hitzak, zur eta lur, —nola ez!— gogoratzen dizkigu bere gurtzaile Jesus Ceberioiok:

Juaristi agrega que el PNV es «incapaz de entender una sociedad basada en lazos políticos». Estudioso del siglo XIX, asegura que los vascos no han tenido en su historia conciencia de unidad política, aunque sí unos privilegios comunes, los fueros, cuya defensa los unió ocasionalmente. Los derechos históricos que Arzallus invoca han teñido, a su juicio, de *arcaísmo* la vida política vasca, restando poder al Gobierno de Victoria en favor de las diputaciones. (*El País*. 23.11.86. Azp. nir.).

Dixit! Juaristik. Eta kito. Ez da behar beste hitzik. Ze, zintzo jassotzen duen bezala J.Ceberioiok, Arzallusek —berdin berdin litzaidake ezkerreko edo eskubiko beste edozein balitz, gauza gutxi baitzaizkit «pertsonalitate gurpena» bezain iguingarri— aipatzen dituen eskubideak «han teñido, a su juicio, de arcaísmo la vida política vasca».

«... *desarcaísmo*.» Eta ez dago besterik esan beharrik ... ulertzen duenarentzat ... horretan ezkututzen den jakinduri sakona *susmatzen* duten Flandesko jostunen goresle-miresleentzat.

Amets mamuekin eta hitz-harroputzekin hitz jokoan ez jausteko, gogora dezagun Ortega y Gassetek «ese pasado absoluto, fuera ya de la cronología

que habita el hombre prehistórico» horretaz zioguna. Zaila, Ortega y Gassetek dioen hori bezain *arcaicorik* aurkitzea. *Arcaico* eta *arcaismo* horri buruz duen pentsakera gogoz babesten du. *Arcaico*, antzinako, aspaldiko hori zuzpertzeari nahi du. Ez, Rousseauen antzera, antzinakoan geratzeko edo aintzinakora itzultzeko. Baizik gaur garen eta izan behar garen gizaki, herri eta kultura osatzeko:

Sería, no obstante, tergiversar completamente mi pensamiento emparentarlo con el de Rousseau. Yo pido que se atienda y fomente la vida espontánea, primitiva, del espíritu, precisamente a fin de asegurar y enriquecer la cultura y la civilización. Rousseau, por el contrario, odia éstas, las califica de desvarío y enfermedad, proponiendo la vuelta a la existencia primitiva. A mí esto me parece una salvajada. (*La paradoja del salvajismo*. J.Ortega y Gasset. Espasa calpe, S.A., Madrid-Barcelona, 1932. 346. orr.).

Ortega y Gassetekin gaude *arkaismo* zaleak, bere azken hitz hori *salvajada* aurreragoko utziz —oker begitantzen bait zait neri *salvajada* hitzesanahi hori—.

Oroimenaz-adimenaz eta nahimenaz gizaki bat eta *gogo* bat garen bezala, *gaurkook*, jatorrizko *primitivo* edo antzinako *arkaiko* gizakiarekin. Eta zenbat eta geureago egiten dugun jatorrizko hura, hainbat eta osoago egiten dugu gaur garen eta izan behar garen herria eta kultura: «el valor de la vida primitiva es ser fontana inagotable de la organización cultural y civil».

Ez dugu, ez, nahi gaurkoa, izan ginen hartara atzeratzea, ez bait ginateke Rousseauen basamortura itzuliko, baizik Marxek hainbeste aldiz barregarritzat hartzen zituen *robinsonkerietan* jausiko:

tomarla a ella misma como tipo ideal de organización es, claro está, una perversión como tantas otras en que abunda la obra de Rousseau. Situar, según él hace, al hombre primitivo en el bosque de Fontainebleau, más que un imposible retorno al salvaje se me ha antojado siempre gana de hacer el *robinson*.

Ez dugu, bada, inolaz, lotsakizuntzat *aintzinazale* edo *arcaico* izatea, bestera baizik. Eta *antzinazale* edo *arkaiko* izen horiek sanbenitotzat leporatzen diguten euren ere, horien miresle izaten dira, sarritan, J.Ortega y Gassetek ondo jarraitzen duen bezala:

Esta valoración de la vida espontánea, y si se quiere denominarla así, de la vida salvaje del espíritu, es, al cabo, la misma que todo el mundo

acepta sin darse cuenta de ello. Nada más general en nuestra época que la admiración por el hombre *antiguo*, simbolizado en la obra de Plutarco. Lo mejor que sabemos decir de ciertas personalidades vigorosas es que tienen un carácter antiguo (Lib. ber. 346-347. orr.).

Eta herriak, herri xeheak, bai, J.Ortega y Gassetek hor «carácter antiguo» ari aitortzen dizkion tasunak antzematen dizkio bere *antzinako arcaico* jatorriari. Oso ondo dio J.Ortega y Gassetek:

Pues bien; si fuese esta la ocasión para hacer la psicología del hombre de Plutarco, veríamos que lo que nosotros admiramos en él no son estos o los otros contenidos de su cultura —la cultura griega, que tanto estimamos por otras razones, es posterior al tipo psicológico que Plutarco describe—, sino ciertas coalidades psíquicas generales, como son el ímpetu para obrar y la energía para soportar, la solidaridad e interno acuerdo con el que la persona se mueve y que le presta ese cariz de substancia íntegra (hombre íntegro decimos aún por el hombre honrado), toda ella quieta o toda ella vibrante como el bronce y el mármol; en fin, la violencia de los apetitos, el envidiable afán que aquellos hombres sabían sentir por el mado o la riqueza, por la gloria o por la sabiduría. Espíritus mucho menos complejo que los nuestros, eran, en cambio, más vitales; sus últimos resortes biológicos funcionaban con mucha mayor tensión y les hacía avanzar sobre el área de la existencia certeros y retemblando como dardos bien templados. (Lib. ber.).

Politegi eta *erromantikoegi* dioela hor gure gizaki *arcaico*-ari buruz, bere «carácter antiguo» horri buruz, J.Ortega y Gassetek, esan edo pentsa dezake bateren batek. Daitekeena. Hori da, baina, hemen, gutxiena. Guri hemen ardura diguna, zera da: *arcaico* hitzaz *progre* eta *parvenus* horiek euren linbora edo euren lur-zeruz landa madarikatzen dutena, geure geurea dela edo dugula. Ze, Ortega y Gassetekin amaitzeko:

Pues bien; como Nietzsche repetía, citando a Jaubert: «El salvaje no es sino el *antiguo moderno*, es el hombre de Plutarco sin Plutarco. Bajo la autoridad y prestigio que envuelve la cultura grecorromana, admiramos en el hombre antiguo el hombre primitivo». (Lib. ber. 347. orr. Azp. berea).

Benetan, ez genuke inor *arcaico primitivo salvaje* horren gorai patzaile hoberik aurkituko, F. Nietzsche bera baino. Ikus nere «F. Nietzsche. Su filosofía...».

Asko gara, gaur egun, Ortega y Gassetekin bat gatozenok. Horietako bat dugu Nelly Schainth. Askorekin du, berak ere, gaur egun topikoa

dena: «El sueño occidental de una sociedad omnitecnológica ofrece la dudosa solvencia de un paraíso de plástico». (*El Viejo Topo*. Extra. 14).

Eta zimardiko etorkizun horren aurrean, norberaren zuztarretara jotzen du gaurko kontzientziak, «De cara a un futuro tan ambiguo, un horizonte tan cargado de venturas desventuradas, la conciencia presente se vuelve hacia el pasado en busca de ciertas claves que le devuelvan arraigo».

Ahal duen ondasunik *arraigo* sakonenaraino, Ortega y Gassetek «ese pasado absoluto, fuera ya de la cronología, que habita el hombre prehistórico» esaten zuen horretaraino:

Pero nuestro escepticismo no se satisface ya con un pasado histórico o biográfico, presa deglutida por la usura del tiempo. Intentamos, más bien, rescatar una *prehistoria* fundacional, de vigencia secreta e inextinguible, tan actual hoy como ayer. (Azp. nir.).

Pre-historia horren esanahi eta errealitaterik sakonena, ordea, *arcaico* den horretan kokatzen du:

La noción de prehistoria, así encarada, no se refiere a las edades primitivas y a su periodización según criterios cronológicos. En el sentido que habrá de ocuparnos, la categoría *prehistoria* trata de ceñir lo *arcaico* como una de las dimensiones vigentes en la experiencia histórica del individuo en tanto decurso biográfico de la sociedad en cuanto proceso sociocultural. (Azp. nir.).

Oso ondo Nelly Schnaith. Eta benetan ondo, Nietzscheren pareko —beste ikuspegia bazuen ere— izan zen Sigmund Freud, bere baieztapenarean lekuko dakarrenean:

Freud fue el primero que descifró esta perdurable contemporaneidad de lo arcaico, su operatividad bajo formas de pulsión inconsciente. Como todo ser viviente, el hombre tiene comienzo y fin. Pero la especificidad de su propio comienzo, el de la humanidad y el del individuo, hace que el mismo se imprima como huella prehistórica indeleble, de solapada actividad en la consecución de cualquier designio histórico. (*El Viejo topo*. Extra 14).

Ez gaitezen, bada, *arcaísmo* sanbenito hori leporatu nahi badigute bere errealitate-gabeziak, kezka. Irakurtzekoa deritzot, zelan *progre* eta *parvenus* askok *arcaico*-tzat madarikatutakoak, Pablo de la Higuera bere «artículo arcaico» deritzan idazkian, ironia finaz, barregarri azaltzen dituen. (*El País*. 24.5.88).

Pablo de la Higuera en bidetik egiten du E. San Martínek *progre* eta *parvenus* horiek *arcaico* zakuan uholdera edo leizera edo pikutara jaurtitzen dituztenen zerrenda bat. Ze:

Cada cual podría enumerar una larga lista de conceptos o realidades que pertenecen definitivamente al reino de *lo arcaico*. (*El País*. 29.7.88.- Azp. nir.).

Eta hor bere zerrenda bitxia:

Quién citaría cosas tales como progreso social, compromiso, clases, Tercer Mundo. Algún otro traería a colación los sindicatos. La sola palabra obrero con todas sus gastadas derivaciones, produce sonrisas de condescendencia en nuestros interlocutores. Escuchar vocablos tales como dialéctica provoca la carcajada abierta. Y así se podría ocupar una sobremesa entera con una nueva variante del no menos antiguo juego de las palabras. Ideología, o debate ideológico, pertenece por méritos propios a la primera división de esas categorías de conceptos. Nada como dicha palabra para definir un mundo que se quisiera como parte del pasado para siempre jamás. En ella resume lo inútil de un tiempo donde lo importante no eran esas cosas que hoy pueden figurar en el primer plano de nuestras preocupaciones: la segunda casa, un automóvil de importación, los cursos de inglés de los niños. No ya antigua, sino completamente rancia, parece cualquier pretensión de introducir el elemento ideológico en el debate político. Privado para siempre de cualquier confrontación en el terreno de las ideas, ese debate se reduce a una pura cuenta de resultados. Ha surgido así el político-gestor, el político-empresario. Su obsesión: que las cuentas cuadren, no importa cuáles sean los activos y que haya habido que malvender para obtener ese resultado.

Alferrik, baina, *arkaiko-zakuan*, zerrenda horretan azaltzen direnak pikutara bidali nahi izatea. Ezin gaurkorik bizi, *atzoko arkaiko* diren horiek gabe. Ezin aurrera egin, esate baterako, *ideologia* etiketatxoaz, arkaiko zakuan, ilunpe mundura jaurtitzea nahiko luketen gaurko eta biharko errealitate hori gabe. Alferrik gabe, euren atzez paradisuatik arkaikoari darion ideologia jaurtitzea nahi badute:

Los que no entren en el juego serán expulsados del paraíso de los balances y desterrados al lazareto de los apestados de nuestros tiempos. (*El País*. 29.7.88).

Alferrik, euren paradisuatik hainbesteko madarikazio zigorraz jaurtitzea nahi badute:

Además de antiguos de reliquias de la historia, serán tildados de doctrinarios, de utópicos, de saboteadores de un orden supuestamente igualitario donde las cosas son mucho más sencillas, donde los campeones de este bando sólo se diferencia de los adalides del de enfrente por la barrera diferenciadora del coche oficial y del número de votos. Abolida para siempre cualquier otra diferencia, los agentes se enfrentan a un tajante y reservado derecho de admisión. (*El País*. 29.7.89).

Alferrik, ze ez da euren jokaera hori *euren ideologia* nabarmenaren aitormen-oihurik agirierna baizik:

Pero sólo segundos después, a pesar de todo, de que una voz casi ahogada en su propia melancolía grite hacia el lado de la puerta que la negación de las ideas como motor político *es ya en sí misma una ideología*. (*El País*. 29.7.88. Azp. nir.).

Ideologia nabarmenena eta ideologia *arkaikoa* edo *zaharra*, benetan, behin eta berriz errepikatzen eta frogatzen den arkaismo zaharra, alegia:

Una ideología *antigua* y probada de la que en este rincón del mundo conocemos algunos de sus resultados. (Azp. nir.).

Ezinezkoa eta barregarria, bada, lehengoa, atzokoa, antzinakoa, arkaikoa oroitu gabe, gaurkoari ekitea.

Ezinezkoa aurrera egitea, aurrera begiratzea, atzera ere begiratu gabe, igaroa *oroitu* gabe, *arcaismoz* ere bizi gabe.

Hizkuntza

Ezinezkoa politika, historiaren oroimenik gabe. Ezinezko politika tradizioz gabe. Ezinezko politika funtzezko *patrimoniorik* gabe. Politika eta Europaren *patrimonia*, ordea, Europako herrien identitatea eta nortasuna eusten eta indartzen dituena edo eutsi eta indartu behar duena, *kulturatan* jartzen da, gaur egun, sarritan:

Recapitulemos, Europa no es gran cosa; si quiere serlo necesita recuperar la fuerza creativa y cultural que había tenido, pero sustituyendo toda la serie de prepotencias y agresividades que la han caracterizado históricamente, por una notable prudencia ideológica que impida que la propia idea de Europa llegue a convertirse en una verdad con mayúscula. Europa será cultural o no será; Europa será si conseguimos destapar una

cultura como valor supranacional de intercambio y de creatividad. Ante las inmóviles escenas de la política y de la economía le queda la *cultura* como posibilidad de desafío, a sí misma y a sus propios valores como posibilidad de superación de su propio principio de realidad y de identidad histórica. (*Ajoblanco*. N. 3. Diciembre 1987. Azp. nir.).

Kultura, Europaren patrimonioa. Kultura, Eurparen identitatea. Kultura, Europaren etorkizun-eginkizuna. Eta askorentzat «*patrimonio kulturalik* garrantzitsuena ... hizkuntza da. Espainera espainarrentzat, Areilzak «Real Academia Española»n sartzerakoan egindako bere hitzaldian oso ondo zioen bezala:

la necesaria protección y defensa de la lengua española «y los riesgos y peligros que acechan al porvenir del lenguaje.» Ya que se trata del *más importante patrimonio cultural*, que pertenece a los pueblos ...

Hizkuntza (espainera noski) «el *mas importante patrimonio cultural* que pertenece a los pueblos ..». Hori behintzat, ez bait da falta, Miterranden antzera, hizkuntza eta herria *bat beretzat* duenik:

... la desaparición de una lengua significa la desaparición de un pueblo. (*El País*. 27.7.89).

Horrela dio Miterrandek, berak funtsezkotzat duen zereginari buruz, *nortasun kulturalari* buruz mintzatzerakoan:

Por ello, he propuesto en Eureka audiovisual, porque es necesario que movilizemos los recursos europeos para defender nuestra identidad cultural. No es que considere que la cultura y las imágenes norteamericanas sean malas en sí. Algunas son admirables. Pero nuestras lenguas, nuestras culturas europeas, están en peligro, y la desaparición de una lengua significa la desaparición de un pueblo. Los soviéticos lo han comprendido. Nuestra propuesta les interesa porque ellos corren el mismo peligro. Así se sienten más europeos y dispuestos a participar en una acción común. Debemos alentar este movimiento. (*El País*. 27.7.89).

Eta hizkuntza, *euskara*, jakina, patrimoniorik garrantzitsuena Euskal Herriarentzat: ... *la lengua menos favorecida históricamente tiene derecho a una protección especial, sobre todo porque es un patrimonio esencial* Koldo Michelenaren hitzetan. «Koldo Michelena —ordea— catedrático de filología indoeuropea, raro sabio de ejemplar *vasco...*», bertan dioenez.

Arnasa hartzen dugu, bada, kulturaren patrimoniorik garrantzitsuena den —ez badugu ere historiako batasun politiko *kontzientzia*— hizkuntza, gure arcaísmoan sartzen dela ikusiz. Eta nolabaiteko arintasuna sentitzen dugu Aitorren leinukook, *beste komunitate kultural* bateko antzezleak eta kritikalaria ere *leinu* edo *tribu* eta areagoko joko atzerakoian, gaur egun, nahasten direla ikusiz:

Por lo demás, es cierto que hay también, entre los críticos, ignorantes, creadores frustrados y vicerreyecitos de taifas literarios, dedicados a expresar su amargura mediante el sistemático ataque al prójimo. La crítica está necesitada de una autocritica en este país, entre otras cosas, porque, salvo rarísimas excepciones tiende a desenvolverse en el mundo de los aficionados, *los clanes* y los círculos iniciáticos de la cultura. Bien mirado, la polémica que ahora se suscita no deja de ser una *batalla tribal*, entre castas de una misma comunidad cultural, cuya opacidad frente a la sociedad de la que se nutren debería avergonzar por igual a críticos y criticados. Frente al *gremialismo* de éstos es pueril enarbolar el *corporativismo* de los primeros. Todos tenemos una lección que aprender, comenzando por los medios de comunicación. Pues la muy hispánica y *racial* manía del veto, el palo y el tentetieso y el *se van a enterar*, fruto exclusivo de la envidia y el pesar por el bien ajeno, ha causado ya demasiados estragos en nuestra depauperada comunidad cultural. (*El País*. 11.11.87. Azp. nir., «*se van a enterar*» kenduta).

Ez gara, nonbait, bakarrak euskaldunok, leinu edo tribu eta vicerreyecitos clanes eta horrelakoen bataila tribaletan gure arcaísmoak bultzatuta edo atxilotuta gaudenok. Komenigarri da, behar bada, egia hau ez ahaztea. Behin eta berriz leporatzen zaiguna bait da, batera edo bestera arcaísmoaren sanmalditza. Eta ez patrimonio kulturalik garrantzitsuena alderatzen denean, baizik patrimonio kulturalik garrantzitsuena aztertzen denean ere, hizkuntza aztertzen denean alegia.

Horrela, José Carlos Mainer, «Los nuevos austrohúngaros» izeneko idazkian. Hor, bat dator, funtsean, J. C. Mainer Jon Juaristirekin, euskal politika arazoan. Jon Juaristik arkaísmoak akartutako eusko politika eta lotura politikoz oinarritutako euskal gizartearen gauzeza adierazten zuena, gogorrago epaitzen du J. C. Mainerrek. Gaur, Euskal Herrian, *eskizofrenian* bizi gara. Eskizofrenia edo bikoiztasun hori, J. Juaristik azaldutakoari zor zaio, alde batetik: egitismo politiko arkaikoari. Bat datoz horretan J. Juaristi eta J. C. Mainer.

Azken honen bereiztasuna, ordea, hizkuntza kontuan da. Ze, eskizofrenia horren iturria edo hasiera, *hizkuntza*-tik datorkio Euskal Herriari,

hizkuntza da, funtsean edo lehen iturrian behintzat, «egitismo politiko arkaikoa»ren areago den arkaitz- arkaikoa:

En el País vasco alentó los inicios del vasquismo, pero lo que hoy se vive es más complejo: una esquizofrenia entre un proyecto político arcaico y las exigencias de una sociedad industrial ... (*El País*. 10.12.87).

Hizkuntza da «los inicios del vasquismo» xaxatu eta berotu zuen lehen zoritxarra, gaur, nonbait, konplexuagoa den vasquismoa: «una esquizofrenia entre un proyecto político arcaico» horren iturria edo arkaitza, arcaicoago den arcaismoan datza: *hizkuntza*-n, alegia. Hori da Espainiako funtsezko zoritxarra! Ez zen izan Espainia, gauza —horra hor Espainiaren *gauzeza*— arcaismo hori, *euskera* alegia, birrintzeko eta suntsitzeko, Italiak eta Frantziak euren hizkuntzaz lortu zuten batasunaren antzera. XIX. gizaldiko Espainiako «iraultza liberal burgesa»ren *gauzezari* zor zaio euskararen nolabaiteko nortasuna edo gaurreguneko Espainiak duen hizkuntza-korapiloa «problema lingüístico». Ez zen izan XIX. gizaldiko Espainia hura iraultza liberal burgesa Italiaren eta Frantziaren antzeko garaipenaz lortzeko gauza. Hots, uztarri banakoa ezartzeko «imponer el yugo de lo unitario» gauza. Hor dago Espainiaren jatorrizko pekatua edo hobena: gure euskararen nolabaiteko gaurreguneko nortasuna! «Arcaismo»aren arkaitz-arkaikoa!:

En España hay, y esto es innegable, un «problema lingüístico» ... Aventuraré una hipótesis explicativa del «problema lingüístico español», aunque sea para desmentirla y rebajarla a renglón seguido: (*El País*. 10.12.87).

Ez da, baina, *desmentirla* hori inolaz ere azaltzen. *Rebajarla*, bai, nolabait, baina bere hitz hauen arabera bakarrik: «Claro que conviene establecer matices de peso. Quizá el paradigma no se ajuste del todo sino a Galicia». Eta bere *rebaja* eta guztiko hitzak dira jarraian datozenak eta gorago aipatu ditugunak:

En el País Vasco alentó los inicios del vasquismo, pero lo que hoy se vive es más complejo: una esquizofrenia entre un proyecto político arcaico y las exigencias de una sociedad industrial. (*El País*. 10.12.87).

Bere «hipótesis explicativa», bada, horrela azaltzen du: «nuestro 'problema' es una consecuencia más de la insuficiencia institucional de nuestro siglo XIX, de nuestra revolución liberal burguesa, que fue *incapaz de imponer el yugo de lo unitario* con la rotundidad, el éxito y la aceptación con que

lo hicieron otros vecinos plurilingües (Francia desde Napoleón, e Italia, más próxima, desde el cercano risorgimento).» *gauzeza uztarri banakoia ... bortxatzeko ...* Puntu hau ez du inola ere, Mainerrek, berak aipatutako «hipótesis explicativa»n biguntzen *rebajarla* eta are gutxiago *desmentirla* gezurtatzen. Ez zen izan XIX. gizaldiko iraultza liberal burguesa espainarra bere *uztarriean, batasun uztarriean euskara* bortxatzeko gauza:

«Nuestro ‘problema’ es una consecuencia más de la insuficiencia institucional de nuestro siglo XIX, de nuestra revolución liberal burguesa, que *fue incapaz de imponer el yugo de lo unitario.*» Ez zen izan gauza, ez behintzat beste auzokoez lortu zuten bezala: «... imponer el yugo de lo unitario con la rotundidad, el éxito y la aceptación con que lo hicieron otros vecinos plurilingües (Francia desde Napoleón, e Italia, más próxima, desde el cercano Risorgimento)». Italian, Frantzian, joan behar ziren bidetik egin zen uztarripetze hori: «Allí actuó el prestigio de una imagen nacional que se asentó en una poderosa educación pública y en un oportuno manejo de medidas secularizadas de la sociedad. *Hemen, ostera ... aurrelari batzuentzat manikeismo-deabru-beltz hutsadenak eragozi zuen, hein haundian, behintzat, uztarripetze hori: «aquí, sin embargo, la educación nacional fue la cenicienta de la Administración decimonónica, y la ingerencia de la Iglesia católica cegó muchos de sus caminos.» (El País. 10.12.87).*

Arcaismo guztietan *arkaikoen* den hizkuntzak, arkaismo atzeratuen den Elizaren laguntza izan zuen. Eta Elizan bertan bere elizkiderik arkaikoenengan eta gizarterik arkaikoenarengan aurkitu zuen euskarak bere gordelekua: «No es casual, ni punto menos, que las lenguas vernáculas que sobrevivieron a tantos maestros mal pagados por los municipios e incultos de solemnidad encontraran su refugio bajo las faldas del párroco en sociedades muy rurales como las nuestras».

Eta horren jarraian dator Mainerrek gorago aipatutako *rebaja*. Ez, inola ere ez, *desmentido delakoa*: «Claro que conviene establecer matices de peso. Quizá el paradigma no se ajuste del todo sino a Galicia». Horretara laburtzen du berak aipatutako *rebajarla* eta *desmentirla*. Galizian bakarrik betetzen dela *zeharo* ikusi dugun bere «hipótesis explicativa.» Euskal Herrian, ordea;

En el País Vasco alentó los inicios del vasquismo, pero lo que hoy se vive es más complejo: una esquizofrenia entre un proyecto político arcaico y las exigencias de una sociedad industrial. (*El País*. 10.12.87).

Eta *arrazoitasunez* mamituta bide den J. C. Mainer ez da gizarte industrial horren *zirikaldia ulertzeko* gauza. Ez dator bera, bat, berak aipa

tzen dituen haiekin «quienes han hecho aquello del ‘Estado español’ su jaulatoria predilecta y pasan los días asegurando las ‘señas de identidad’ más recónditas». Ezin da horiekin bat etorri ze horiena, madarikazio sagaratuaz jota dago: arrazoigabekoaren madarikazioaz: «Y aquellos se encuentran más en la estirpe de la apelación irracional (y dicen que mágica) de las esencias *colectivas*». Eta horren *arrazoizkoa* edo *racional* izanik —edo horregatik ote da?— ezin du ulertu zelan gizarte industrialak, gaurko gizarte industrialak «proyecto arcaico político»ra jotzen duen! Ezin du *ulertu* arrazoizko *razionalistak*, egitasmoko politiko arkaikoak gizarte industrialarengan edo gizarte industrialarekiko duen arrakasta. Eta horregatik, gizarte industrial horren joerari edo egitasmoko politiko arkaiko horren arrakastari *zirikaldia* eta zirikaldi *misteriotsu* gainera, deitzen dio: «una esquizofrenia entre un proyecto político arcaico y la experiencia de una sociedad industrial misteriosamente *tentada* por la simplicidad de *aquél*.

Ez da harritzekoa, bada, ulertzen ez duen edo —modako aurrelari hitzaz esateko— *razionalizatzen* (*racionalizar*) ez duen misterioz mamituta zirikaldi horri «eskizofrenia» deitzen badio. Bere *ulertze-razionalizatzearaz* landa dagoenez, beste edozein asmaketa izen jarri liezaioke. Ihes egiten dio arkaikoaren xalotasunak «misteriosamente tentada por la simplicidad de aquél. (Azp. nir.). Konplexuegia da bera, J. C. Mainer, bai eta bere ulermena, haundiegia noski ... horrelako xinplekeriak ezerezak uler edo *razionalizatze*ko. Hala ere *argi* eta *garbi* ditu egitasmoko politiko *arkaikoaren*, hots, zirikatzailearen eta gizarte industrialaren, hots, zirikatuaeren tasunak:

una esquizofrenia entre un proyecto político arcaico y las exigencias de una sociedad industrial misteriosamente tentada por la simplicidad de aquél, entre una tendencia al profetismo y otra al pacto inteligente. (*El País*. 10.12.87).

Argi eta garbi daude, J. C. Mainerren begientzako, tasunak: gizarte industrialari zirikatzen duena, eta *misterioski* zirikatu gainera, egitasmoko politiko arkaikoaren *xalotasuna simplicidad* da. Xalotasun arkaiko horri, igarletzako joera «tendencia al profetismo» dario. Gizarte industrialari, osteraz, hitzarmen *intelijenterako* «pacto inteligente» joera dario. Arkaiko ilunpearen gizarte industrial argiarentzako *intelijentearentzako* zirikaldia! Ulertezina! «misteriosamente tentada.» J. C. Mainer *razionalistak* uler ez dezakeen arkaiko xaloaren zirikaldi *irrazionala*. Ze, zirikaldi horren oinarria etnozentrismoaz, matriarkaduaz eta gizon-indarraren gurpenaz markatuta dago:

... una sociedad industrial misteriosamente tentada por la simplicidad de aquél, entre una tendencia al profetismo y otra al pacto inteligente, y todo ello sobre una base antropológica marcada por el etnocentrismo, el matriarcado y el culto de la fuerza viril. (*El País*. 10.12.87).

Beste hitz batzuetan, J. C. Maineren hitzetan alegia, esateko, zirikal-di *misteriotsu* horren oinarria *arrazoiaurkakoaz* irrazionalaz markatuta eta mamituta dago. Garbi bait dago, «una base antropológica marcada por el etnocentrismo, el matriarcado y el culto de la fuerza viril,» lehen berak, hasieran esan duen arrazoiaurkako deia «apelación irracional» dela eta arrazoiaurkako «apelación irracional» barruan dagoela:

Y aquellos se encuentran mejor en la estirpe de la apelación irracional (y dicen que mágica) de las esencias *colectivas*. (*El País*. 10.12.87).

Etengabe, behin eta berriz azaltzen den leloa: Arrazoidunen *razionalisten* dogmatizatzea. Euren argi —*arrazoia*ren adimenak edo ulermenak aditzen edo ulertzen ez duenaren ilunpe zorigaitza. Laister aztertuko dugu hori, zehazki, hein batean behintzat.

Orain, oroimenari darion arkaikoari jarraituz, ikusi dugu zelan ulertzen duen J. C. Mainerrek Euskal Herriko arazoa eta problema. Euskarak, jatorrizko hizkuntzak, gizarte oso *ruralaren* arkaismo horrek zer edo zer konplexuari eman dio arnasa:

En el País Vasco alentó los inicios del vasquismo, pero lo que hoy se vive es más complejo: una esquizofrenia. (*El País*. 10.12.87).

Konplexuagoa da, hala ere, Kataluniak duen *arkaismo* problema: «Más complejo es todavía el caso de Cataluña». (*El País*. 10.12.87).

Konplexuagoa dioen hori, baina, Euskal Herrian bezala, bere *hizkuntzari* lotua da. Bietan, *hizkuntza*-ren arazoa da edo, gutxienez, *arkaikoen* den horri lotutako arazo-problema. Euskal Herrian, berak dioenez, *hizkuntzak* eman zion hasiera gaurko eskizofreniari. Katalunian, arazo osoa, Euskal Herrikoa baino konplexuagoa, bere *jatorrizko hizkuntzarekin identifikatzen* da:

Más complejo es todavía el caso de Cataluña ... protagonista de un proceso de definición nacional patológicamente identificado *con la lengua propia*. (*El País*. 10.12.87. Azp. nir).

Arazo nazionala *bere jatorrizko hizkuntzarekin identifikatzen* duen Katalunia. Arazo konplexuagoa, nonbait! Eta ez da harritzekoa identifika-zio hori *gaixotasun*-tzat epaitzen badu: Patologiatzat, alegia: «un proceso de

definición nacional patológicamente» identificado con la propia lengua». (*El País*. 10.12.87. Azp. nir).

Eta Kataluniako patologia hori Euskal Herriko *eskizofrenia* baino txarragozat jotzen du, nonbait, razionalista argiaren diagnostiko zorrotzak. Ze «El problema lingüístico no es aquí la subsistencia del gallego, del euskera y del catalán, sino la *pelea*». (*El País*. 10.12.87. Azp. berea).

Bereiztasun bitxia eta ... makala. Euskara hizkuntza arazo problemari *subsistencia* arazoa deitzen dio. Katalanera hizkuntza arazoari *pelea*. Ze alde dago, baina, bien artean? Ez al da gure euskararen *subsistencia* edo *iraupenaren* arazoa topiko bihurtu zaigun Schakespearearen esaerarena?: «To be or not to be, this is the question.» Izan ala ez izan ... *subsistencia* ala hiltzea ... *agonia* arazoa, *agonia* egoera, *agonia* grezieraz, *pelea* gazteleraz, *borroka* euskaraz ... arazo *bat* eta *bera*.

Ez dugu nahi euskaldunok euskera hil dadin. Ez dugu nahi euskaldunok euskerarekin batera hil gaitezen. Guretzat hartzen ditugu Mitte-rrand jaunaren hitz horiek:

... la desaparición de una lengua significa la desaparición de un pueblo. (*El País*. 27.7.89).

Ez dugu nahi euskaldunok gure *agonia* edo *borroka*, ez dugu gure euskararen *agonia* edo *borroka* nahi. *Agonia* edo *borroka* horretan gaude, baina. *Agonia* edo *borroka* hori gara baina, euskaldunok. *Subsistencia* iraupenaren *agonian* gaude eta gara. *Agonia* eta *borroka* horretan gaude, *ere*, gutxienez. *Agonia* eta *borroka* hori gara, *ere*, gutxienez. Eta *agonia* zale ez garenez, *borroka* zale ez garenez... *agonia* edo *borroka* hori gaintitza nahi dugu. Osatzea nahi dugu! Eta hor paradoxa! Benetan hori nahi izatea, *agonia* eta *borroka* gogorragoa eta estuagoa da.

Arrazoi eskasekoa edo *arrazoi* gabekoa da *arrazionalista* horren *subsistencia* eta *pelea* hitzen arteko bereizkuntza.

Besterik da, ze bide hartzen diren *agonia* hori gaintitzeko, *borroka* hori gaintitzeko. J. C. MainerreK Kataluniari egotzen dion *borroka*, gehiagotan egotzen edo leporatzen zaio euskaldunari:

El problema lingüístico no es aquí la subsistencia del gallego, del euskara y del catalán, sino la *pelea* de sus hablantes contra el español y la obsesión de culpabilizarlo de sus males, cuando tienen tan a mano los nombres de los responsables políticos de humillaciones y *miserias*. (*El País*. 10.12.87).

Ohituta gaude euskaldunok hori entzuten: mamuak sortzen ditugula. Gaixoak garel. «Obsesoak» garel. Gure gaitzak Madrilen jirabiran bizi

direnen erru edo kulpa bihurtzen ditugula: «la pelea de sus hablantes y la *obsesión* de sus males.» (Azp. nir. Arazo katrapilatua, benetan, J. C. Mainerrek aipatzen duena.)

Beste berriz dator, baina, arrazionalista argitsua, berak ulertzen ez duen ilunpera, bere argia baino sendoagoa den arazo *ilunera*:

El problema es haber trasladado a la cuestión lingüística no los aspectos más constructivos de la nacionalidad, sino un oscuro problema de autoafirmación personal por intercesión de la colectividad. (*El País*. 10.12.87).

Iluna da razionalista argitsuarentzat hizkuntza arazoari, kolektibitatearen bitartez lotzen zaion norberaren baieztatze pertsonala. Egia esan, eta bere hitz horiek irakurriz, ez da erraza ikustea non dagoen «problema ilun» hori. Ze, abedekoa dirudi hizkuntza arazoa norberaren baieztatze pertsonalari lotuta —ez badago identifikatuta— dagoela ikustea. Abedekoa ere razionalitate alderdirik eraikileenak «los aspectos más constructivos de la racionalidad» norberaren baieztatze pertsonalarekin bat datozela ikustea. Orduan, zer? Non dago «problema ilun» hori? Arrazionalista argitsuaren dogman, *kolektibitate* horren bitartekotzan. Esan bait du J. C. Mainerrek bere artikulua hasieran: kolektibitatearen esentzia horien deia *arrazoiaurkakoa irrazionala* da: «Y aquéllos se encuentran mejor en la estirpe de la apelación irracional (y dicen que mágica) de las esencias *colectivas*. (*El País*. 10.12.87).

Zergatik, baina, arrazioaurkakoa *irracional*? Ahatik ... esandakoagatik: arrazionalista argitsuaren dogmagatik: *zientziagatik*. Arrazoaia, zientzia da. Zientzia-arrazoia ez dena, iluna da, ilunpea da, arrazioaurkakoa da, *majia* da. Edo hobeto esateko: zientzia-arrazoia ez dena...*ez* da. Ez izatea aina da. Edo izatearen aurkakoa da. Zientziak konbentzitzen ez dituen mamu ilun majikoak dira:

Y es que muchas de las tergiversaciones escandalosas que denuncia el libro de Gregorio Salvador se refugian en sentimientos y agresividades más profundas, a las que la ciencia no convence. (*El País*. 10.12.87).

Zientziaren *arrazionalismo*-aren dogma erresumatik ilunpera jaurtitako *arkaismo* arkaikoen den hizkuntzaren madarikazioa.

Beti, ordea, madarikazioa edo baiezpina bada ere —madarikazioa *arrazionalista*-rentzat eta baiezpina herri gizakiarentzat— ezin gara hizkuntza barik bizi, ezin gara *arkaismo* barik bizi. Ezin gara *ahazte kolektiboan* bizi edo izan, M. Benedettiren hitzetara itzuliz:

Siempre es un mal síntoma cuando un gobernante intenta buscar su poder en el *olvido colectivo*. (*El País*. 6.9.87. Azp.nir.).

Ezinezkoa da ahazte kolektiboa. Ezinezkoa da gaurkoa atzokorik gabe. Ezinezkoa da gaurkoa *arkaismo*-rik gabe. Sintoma oso txarra da gobernadoreak edo letradunak ahazte kolektiboren bat opa duenean.

Bada, hala ere, Benedetik jarraitzen duen bezala, hutsetik hastea nahiko lukeen horrelako gobernadorerik. Ondo esan du, noski, zelako gobernadorea den hori: «Siempre es un mal síntoma cuando un gobernante intenta *basar su poder* en el *olvido colectivo*. *Bere, gobernadorearen boterea* lortzeko nahi du *ahazte* hori. Egia da, *horrelako* gobernadoreari ondo egokitzen zaiola jarraian dioena: «Lo cierto es que esa frase tiene un encanto particular. Hay que prohibirse mirar hacia atrás; hay que mirar siempre hacia adelante». (*El País*. 6.9.87).

Historia

Hitz horien bestelakoak eta aurkakoak dirudite hizlari eta, batez ere, idazlari trebe eta dizdiratsu den Jon Juaristiren beste hauek:

La verdadera historia, la digna de tal nombre, es una administración del olvido (*El Correo Español*. 22.12.87).

Hitz politak, behar bada. Politak, piroteknia jolaserako esanak balira. Hitz hutsak, ordea, euren esanahian. Hitz hutsak, onenean, hots bitarakoak edo zimardikoak, okerrak eta ankerrak ez badira. Ze, baldin Benedetirekin bat bagatoz, J. Juaristiren hitz horiek egia *mota* bat lirateke. Egia *mota hori*, M. Benedettiren pentsakera onartuz, horrela esango genuke: «La historia, la digna de muchos *opresores*, es una administración del *olvido*».

«Una administración *del olvido*», ahaztearen administrazioa salatzen du M. Benedetik «la obediencia debida» egin duten eta egiten duten Argentinako gaurko historian. Eta horixe bera, «ahaztearen administrazioa» hain zuzen, salatzen du M. Benedetik, hilabete batzu beranduago, Uruguayan egin duten eta egiten den gaurko historian.

Historiagile horiek ondo dakite, bai jakin ere, *zer ahaztu* behar den, *zer izan behar den ahaztua*. Ondo dakite, bai, zoritxarrez. Eta komentatu berri dugun M. Benedettiren «Variaciones sobre el olvido» horretan, zeinen egia azaltzen den «La Historia y los olvidos» funtsezko *variación* hori. Egia! Egia beldurgarria!

J. Juaristiren hitzak, bada, bitarakoak dira onenean, hain ondo egokitzen bait dira zapaltzaileen *ahazleen* historiara.

Garbi dago, bestalde, J. Juaristik, bere historiaren definizioa edo gogaia edo hitzak, beste zentzunezko hitzak trukaturaz eman zezakeela: La verdadera historia, la digna de tal nombre, es una administración del recuerdo.» Hori da jarraian esaten duena: «El historiador debe saber qué ha de ser recordado y qué arrojado al *sumidero*». (Azp. nir.). Trukatutako hitzekin, esanahi berdina izango luke. Eta hori, *onenean*, ez dagokio ez J. Juaristiri ez beste inori, hitzaren zehaztasunaz beste gizaki baten hitza ... (eta hitza baino areago) suntsitu nahi duenean, ez da ari, Jon Juaristi, berriro esan, piroteknia jolas-jokoan, hitz-polit-jario-lehiaketan. Ez du hori frogatu beharrik, behintzat. Estiloa du. Berriz esan, baina, bere definizioa, *olvidoren* ordez *recuerdo* jarrita berdin geldituko ... onenean. Berdin geldituko litzatekeen bezala bere definizioaren alde idazten duen esaera hau aldatuz: «El historiador debe saber qué ha de ser recordado y qué arrojado al *sumidero*». (Azp. nir.). Berdin, hori horrela idatziko balu: «El historiador debe saber qué ha de ser olvidado y qué rescatado del *sumidero*...» Edo amaitzeko jartzen dituen hitz hauen ordez: «El historiador necesita aprender a olvidar, casi tanto como a salvar del olvido aquello que merece ser recordado» beste hauek jarriko balitu: «El historiador necesita aprender a recordar, casi tanto como a confiar al olvido aquello que no merece ser recordado».

Bitarakoak, bada, J. Juaristiren hitzak, onenean, edo okerrak eta ankerrak, M. Benedettiren hitzen aurkakotzat ulertzen badira —hitz jokoe-tan sartzen ez denak ulertzeko diruditen bezala.

Eta ez dakit zenbateraino izan daitezkeen bitarakoak edo —dauden pasarte godor sutsuan daudelarik—, *faramalla* mota lotsagarri hitzak, horien antzekoak baten batek deitzen dituen bezala.

Edo ez ote dira hitz bitarakoak, ez ote hitz okerrak eta ankerrak... baizik Nietzscheren «Jaunaren hitzak?» *Jaunak* nahi duena, gogoak ematen diona esateko *bere* hitza? Ez al da hori, *Jaun* hori, agintzeko, menperatzeko, bedeinkatzeko-madarikatzeko, nahi duena egiteko, gogoak ematen diona egiteko hitza duen *jauna* «der herr»? Ez al dago herritik, jendetzatik, gizaki arruntetik, ikutezinezko, ikusezinezko, ulertezinezko gailurrean?! Ez al da hori *el historiador? Historiagilea?*

Ze, historiagilea jartzen du J. Juaristik denaren jaun eta jabe. *Historiagilea* da zer ahaztu eta zer oroitu erabaki behar duena: «El historiador debe saber qué ha de ser recordado y qué arrojado al *sumidero*.» *Historiagilea* «El Historiador» da nor-zer zerura eta nor-zer lurpean jartzea erabaki behar duena.

Nor da, baina, *historiagilea*? Ez, noski, herria. Ez, noski, herri gizaki edo jende xaloa, *bebekoa*. Ez eta erdi mailakoa, ez nolabaiteko erdi *mailakoa* ere.

Goikoa! Jauna! Jaun-goikoa! Salbatzailea ... goiko jaun horrek *salbatu* nahi badu, jakina: «No seré yo quien salve de su merecida *nada* el nombre, parecido lejanamente al de aquél, de un triste gacetillero que trata en vano de curarse de su mediocridad congénita por la mediocre vía que han seguido tantos mediocres que en Vasconia han *sido*. Behekoetatik, nolabaiteko erdi mailakoetatik, erdi-ipurdikoetatik haruntza dago *historiagilea* den Jon Juaristi jauna. Bere gustoko ez den kritika egin dion lankide edo gizaki bat, edo horren izena, merezi izan duen ezerezko madarikazioan betiko utziko duen jauna. Ez du hori berak *salbatuko*: «No seré yo quien salve de su merecida nada el nombre ... de un triste gacetillero...»

Ez du hori salbatuko! Hori bakarrik edo hori besterik lagako ez balu baina ezerezpenean salbatzaileak! Izen eta gizaki hori, ordea, Euskal Herrian diren askoren antzeko da:

No seré yo quien salve de su merecida nada el nombre ... de un triste gacetillero que trata en vano de curarse de su mediocridad congénita por la mediocre vía que han seguido tantos mediocres que en Vasconia han sido (*El País*. 22. 12.83).

Eta eskerrak! izen gabeko horren antzeko kritikak eta pertsonak piku bat ardura zaizkiola *historiagileari*?!! Ze, izen gabeko erdi-ipurdiko horren kritika bost axola zaiolarik, kritikalar hori Herri honetan —bere eritziz— aldragu edo *kanalla* direnekin *batera* madarikatzen du:

Como no recuerdo el nombre de otros que, antes que él, pidieron mi expulsión de la Universidad. De los canallas de este país, hay que recordar sólo las canalladas —Hipercor, Zaragoza ...—, pero no sus nombres. (*El Correo*. 22.12.87).

Historiagilearen izate sendoari darion izena haize-arin diren horien izenaz haruntzago dago, bestekaldean dago. Beste mundu batean dago! Ze ez da horrelakoei lotzen dioen ezer, ez eta beraren eta horien lurra eta mundua bat bera izan bada ere: «Seres de insoportable levedad, demasiado leves para tener un nombre, nada *me une a ellos*, ni siquiera el infeliz accidente de haber nacido en una tierra que han cubierto de *vergüenza*. (Azp. nir.). Beste munduko historiagilea! Bera jaio izan den lur eta munduarekin zer ikusirik ez duena. Ezinezko ahazte-nahastea. Bizi bizi, sutan, erresuminean *oroitzen* duen *ahazte* madarikatzailea! Zeinen urruti, *historiagilea*,

antzinako klasiko harengandik, gizatiar oro bere buru eta bihotz somatzen zuen harengandik: «Homo sum, humani nihil a me alienum puto». «Gizaki naiz, ez deritzot ezer gizatiarrik, nigandik urrun». (Terenzio. *Eautontimorúmenos. El vengador de sí mismo. 77 zenb.*).

Zenbatek eta zenbatek hartu izan duten esaera hori euren ikurtzat, euren lelotzat, euren bizitzaren funtsezko egiatzat! Terenzioren lelo horrekin amaitzen zuen, esate baterako, K. Marxek, bere barreneko aitormenak: «*Bekentnisse ... nihil humani a me alienum uto.*» Jon Juaristik, ostera, ez du zer ikusirik ez eta bere herritarrekin ere: «nada me une a ellos, ni siquiera el infeliz accidente de haber nacido en una tierra que han cubierto de vergüenza». (*El Correo. 22.12.87*).

Zergatik? Bada ... *horrela* mintzatzerakoan, esaera horren hastapenez haruntzago dagoelako. Esaera horren aierutik bestekaldean, haruntzago dagoelako. Horrela mintzatzerakoan, Terenzioren «Homo sum ...» *gizaki naiz* aintzakotzat hartzen ez duelako. Ez da berea *gizakia* arazoz. Ez da berea *gizaki* izatea. Bera... *historiagilea* da. Lotsakizun zaio berari erdi mailakoa. Bera, nonbait, erdi mailako *mediocre* diren gehien horiek zapuztea, madarikatzea eta ezerezte da. Bera, hemengo *zoritxarrezko eraskinez* (accidente) haruntzago dago: «nada me une a ellos, ni siquiera el infeliz accidente de haber nacido en una tierra que han cubierto de vergüenza.» Izan da bestelakorik, zorionez, Euskal Herrian jaiotakoen artean. Ez zuen, ez, zoritxarrezko eraskintzat, zeharo bestela baizik, orain arte mundu osoan entzute handikoen izan dugun Euskal Herriko semeak. Berak, merezi ez zuen duintasuntzat zuen Azpeitian jaio izatea. Eta ordaindu ezin izaterainoko esker ona aitortzen zien azpeitiarrei, jatorriz euren herrikide jaio izatea:

Su divina Majestad sabe bien cuándo y cuántas veces me han puesto en voluntad intensa y deseos muy crecidos, si en alguna cosa (aunque mínima) pudiese hacer todo placer y todo servicio espiritual en la su divina bondad a todos y a todas naturales de esa *misma tierra*, de donde Dios N.S. me dió, por la su acostumbrada misericordia, mi primer principio y ser natural, *sin yo jamás le merecer ni poderle gratificar*. Y estos tales deseos ... me llevaron desde París en *esta villa*, ahora habrá cinco años pasados, no con mucha salud corporal .. (Carta a *los habitantes de azpeitia*. Agosto-Setiembre 1540. B.A.C. 1952, 675. orr. Azp. nir.).

Inazio baino zertxoago *arruntago* dugun —oraindik behintzat— J. Juaristik muzin egiten dio gure lur honetan jaio izateari. Bera, hemengo, Euskal Herriko erdipurdiko Erakundeez, koldar eta ezgauza diren Euskal Unibertsitate erakundeaz haruntzago, bestekaldean dago: «Más aún, no tendría por deshonor que me expulsaran de una Universidad mediocre

—mediocre, porque se ha llenado de mediocres—, cobarde e incapaz de defender públicamente a sus miembros (en lo que a mí respecta, no se ha dado por enterada de ésta ni de otras descalificaciones calumniosas de que ha sido objeto ... Una Universidad, en fin ... buscando siempre la mediocridad, la mediocridad y la mediocridad.» Horretaz, horrelakoez haruntzago dago. Non kokatuko ote da *historiagilea*? Zer oroituko ote du *historiagile*-ak? Dena edo ia dena zikintzen duen erdipurdikoa *mediocridad* mdarikatuz, geldituko al zaio zer edo zer *oroitzeko*? A bai! Gailurrak! *Historiagileak* aukeratzen dituen gailurrak?! Orain arte, ia beti, *historiagileak* egin izan duen Historia?! Bertol Brechtek, erdipurdiko herriarekin *mediocre*-ekin salatzen zuen *historiagilearen* historia? Auskalo!

«Zazpi Ateko Tebas, nork eraiki zuen?
Erregeen izenak dira liburuetan azaltzen.
Erregeek errestatu al zituzten harritzar mokil haiek?
Eta hainbeste aldiz suntsitutako Babilonia
nork eraiki zuen atzera beste hainbeste aldiz?
Urre Liman, ze etxetan bizi ziren bera eraiki zuten langileak?
Txina harresia amaitu izan zen gauean,
nora joan ziren igeltseroak?
Erroma Haundia garamimakoz beteta dago. Nork
jaso zituen? Zeini gaindu zitzaien kaiserra?
Bizantziok, hain goretsiak, jauretxeak bakarrik
al zituen bere biztanleentzat?
Amets-Atlantidan bertan, itsasoak bera irensten zuen
gauean, oihuka, biztanleak, euren jopuei laguntza eskean.
Alejandro gazteak eskuratu zuen India.
Berak bakarrik ote?
Kaiserrak galiarrak garaitu zituen.
Ez al zeraman sukaldari bat ere?
Negarrari eman zion Felipe II.ak bere ontzidia
urperatzerakoan. Ez al zuen negar egin beste inork?
Federiko II.ak Zazpi Urtetako guda garaitu zuen.
Nork gehiago, gainera?
Garaipen bat orri bakoitzean.
Nork janaritzen zituen garaipen jan-edanak?
Gizaki haundi bat hamar urtero.
Nork ordaintzen zituen bere jasoak?
Historia bakoitzarentzat galdera *bat*.

(Bertold Brecht. *Poemas y canciones. La Hora XXV. 172 zenb.*).

Izen haundi, gailur altsu (goren), hamar urteroko bat, garaile horien artean kokatzen da, nonbait, J. Juaristi jauna, J. Juaristi *historiagaila* edo J. Juaristiren historia. B. Brechten antzeko *beste historiak* izan daitezkeela ... bost axola J. Juaristiri. Herriaren ahoan entzuten den «eso es otra historia» edo «así se escribe la historia» delakoak piku bat ardura dio, nonbait, J. Juaristiri. Berea, Historia edo *goimailako* historia da. Ez du berak, nonbait, ikusi nahi, jakin nahi, aski dela pertsona izatea, pare gabeko sakonerak eta gailurrak norberarengan bizitzeko. Ez dela *literatura* gailurra, ikuspegi *bakarra*, gizakia ... kosmosa ... edertia gozatzeko, Proustek zioen bezala:

Sé muy bien que hay del amor hacia determinados lugares otras formas de expresión distintas al amor literario, formas menos conscientes, pero quizá tan profundas. Sé que hay hombres que no son artistas, jefes de oficina, pequeños y grandes burgueses, médicos que, en lugar de poseer un lindo apartamento en París o un coche, o ir al teatro, invierten una parte de su ingreso en gozar de una casita en Bretaña, en donde se pasean por la noche, inconscientes del placer estético que experimentan, y que como máximo lo expresan diciendo de cuando en cuando: «Hace buen tiempo, qué buen tiempo,» o «qué agradable es pasearse por la noche (Marcel Proust. *Ensayos Literarios*. Edhasa. Barcelona. 1971 142 orr.).

Ez du, baina J. Juaristik *erdi mailako*-ekin zerikusirik. Gutxiago erdi-mailakoen azpian diren izengabeko herritarrekin. Eta ez Himalaiak ez eta bestelako gailurrek egingo ez dutena, J. Juaristik egin egingo du. Himalaia lainu gainean jasotzeko, J. Juaristi kanpatorre puntan jartzeko beharrezko den dena ... bere oinarriak madarikatu: «Una Universidad mediocre, como corresponde a un pueblo mediocre: de escritores mediocres, de asesinos mediocres, de pintores mediocres, de escultores mediocres. De gentuza mediocre».

Madarikatu egiten ditu *barkatzen* ez dakitelako: «De gentuza mediocre que no perdona.» Madarikatu egiten ditu ongidamuz eraginda mendekura jotzen dutelako: «que se venga de quienes consiguen publicar un libro o exponer su obra más allá de Pancorbo.» Madarikatu egiten ditu, Historiagilearen, *epailearen*, bakoitzari *bere* izena, izanari darion izena ematen dion jaunaren aurka protestatzen dutelako: «De gentuza mediocre que no perdona, que se venga de quienes consiguen publicar un libro o exponer su obra más allá de Pancorbo, de quienes levantan su voz un poco más de lo debido para llamar a las cosas por su nombre: *zibilizatu* egiten duen jaunaren hitzak eta izenak, alegia: «a las salvajadas, salvajadas.» Edozein makurkeria, zapalketa eta oker-injustizia anker ... *salvajada* da. Ez du alferrik,

mikrofonoa, zibilizatuena ... «de quienes levantan su voz un poco más de lo debido para llamar a las cosas por su nombre: a las salvajadas, salvajadas; *Civilizar* da, nonbait, *berrea*. *Civilizar*. (De *civil*) tr. Sacar del estado *salvaje* a pueblos o *personas*. R.A.E. Azp. nir. Eta Real Academia Española berak: «*Salvaje*. (De *salvaje*.)» adj. ... Natural de aquellos países que no tienen *cultura*».

Kultura gabeko herriak ... *salvaje*-ak! basatiak! Kultura gabeko herriak euren egoera *salbajetik* atera egiten duena = *Civilizar!* Horretan dugu, nonbait Jon Juaristi zibilizatu. *Salbaje* horien mota bat *asesino*-a: «a los asesinos, asesinos;» Eta ez du gutxi zibilizatuak, Real Academia Española-ren arabera *asesinoa* aintzakotzat hartzen badu: «*Asesino*, na. (Del ár. *hassassin*.) los bebedores de hasis (preparación narcótica hecha de las hojas y sumidades del *cáñamo*),! Bakezko jendea, kafezale edo kamamilazalearen pareko, nonbait, berez, edo hobeto esango genuke *eurenez*. Beste gauza da, bakezko edale horiek onartu ez bazuten gure *civilizar-praxi* askatzailea. Euren lurrera, euren herrira joan ginen *zibilizatu*-ok zibilizatzerara ... Eta euren lurraren, herriaren ... kulturaren alde euren zena gorde nahi izan zuten. Zibilizatzerara, gu, armaturik eta ondo armaturik gainera, joan ginen ... eta eurek *puñal* sastakai mota bat erabili zuten ... *Salbajada!!! Puñal*-az sastakiaz ... zibilizatzailea ... garbitu! eta *salvajada* basakeria hori zerion *izena* eman genion zibilizaleok!: «Asesinar. (De asesino).» tr. Matar a una persona *alevosamente*, o por precio, o con premeditación. 2. fig. Causar viva aflicción o grandes disgustos. 3. fig. Engañar o hacer traición a mansalva y en asunto grave a persona que se fiaba de quien la *hace*.

Salvajeak, asesinoak eta horien pareko diren *chapuceros*: «... llamar a las cosas por su nombre: a las salvajadas, salvajadas; a los asesinos, asesinos; a los chapuceros, chapuceros,» Ez bait da *chapuceroa esku-langile* mota bat baizik. Arotzaren ekintza, alegia: «*chapucero* (De chapuz)» Eta «chapuz. (Del ant. fr. *chapolis*)» armazón de la silla y carpintero, del verbo *chapuiser*, carpintear ...».

Izan zen behin gizon arrunt bat bere izenaz eta izanaz mundu osoa gainezkatu zuena. Bere jaiotzaz gero jartzen dio munduak bere noizkoa historia osoari. Gizon arrunt hura ... *chapucero* bat zen. Hori leporatzen zioten, harrituta eta haserre, mespretxuz, bere herritarrek: «Ez al da hau tektoa?» Mc. 6,3. Ez *arki-tektoa*, baizik *tekto* arrunta! Horrela zen; esku langile zen, sugile, hargin, igeltsero ... *arotz* zen Jesus hura! Gizaki guztioi, *chapucero* izan arren *gizaki* izatearen Berri Ona zabaltzen diguna.

Zer da, baina, esku-langile arrunta, tekto hutsa, *letradun*-aren aurrean?

Bitxia badirudi ere, esku-langilearena izan zen, antzinan, *unibertsitari* izena. Industria edo langintza elkargoek zuten *unibertsitate* izena. Zazpi

urteko ikastaroa izaten omen zen —A. Smithek dioskunez— gehienetan, unibertsitate haien ikastaro epea:

Zazpi urte izan ziren, antza, Europa osoan, langintza elkargo gehien ikastarorako jarritako epea. Elkargo guzti haiek unibertsitateak deituak izan ziren, antzinan; hori da eta, beraz, edozein eratako elkargoentzako izen latin propioa. Suginen unibertsitatea, jostunen unibertsitatea eta abar, antzinako herrien aspaldiko araudietan arronki aurkitzen ditugun adierazpenak dira. (134. orr. Adam Smith. *The Wealth of Nations*. The University of Chicago Press. Chicago. 1976).

Laister hasi ziren, hala ere, industria-langintza elkargoei titulu hori kentzen. Eta gaur, *zibilizatutako unibersitari* izen hori, letradunari ematen zaio. Eta letradunen artean, jaun eta jabe den *letra-fundista*-ren aurrean, berari darion eta dagokion horretan gelditu da letraduna ez dena: *chapucero* izatean. *Salbajeak, asesinoak, chapuceroak, denak* batean eta batera J. Juaristik madarikatutako —edo izendutako bakarrik?!— «gentuza mediocre-piloan». Eta bere madarikazio hori ondo borobiltzeko: «para llamar a las cosas por su nombre: a las salvajadas, salvajadas; a los asesinos, asesinos; a los chapuceros, chapuceros, y a la inmensa mayoría, cobardes. (*El Correo*. 22.12.87).

Eskerrak J. Juaristik *salvaje, asesino, chapucero, cobarde* eta horietako deabru gixaxo batzuei —bakan batzuei noski— betirako izena ematen die-la: «Pobres diablos que sólo podrán exhibir, al final de su mediocre vida, la condescendencia que quizá tuve con ellos mencionando su nombre al insultarlos (pero esta vez no lo haré)». A ze nolako zoriona! —euren zoritxarean bertan— deabrutxo horiena! J. Juaristik, izen eta guzti, betirako madarikatu ditu! Euren heriotz-orduko zoriona ... J. Juaristiri esker!

J. Juaristiren talento *ez chocheante*-ari esker ... gutxi batzuen heriotz-ordujo zoriona... J. Juaristik izen eta guzti madarikatuak izatea. Esandako-arekin eta beste honekin konformatu beharko dira gehienak:

Tibios animalejos, como este limpiabacinillas de talentos chocheantes, que descubren ahora lo que puede ser el último chollo de su miserable vida. (*El Correo*. 22.12.87).

Bizitza miserablea! Bere bizitza miserablea! Bere jabearen abotsa edo hotsa izatea. *Bere jabearena*, noski. Ez J. Juaristirena. *beste* jabe batena baizik ... hori zoritxarra ... «de su miserable vida.» Bere jabe eta bere buru J. Juaristi izan balu ... *ez* zen huskerien, arkaismoen bila ibiliko. J. Juaristiren

erresuma bila edo J. Juaristiren erresuman, gailurrean, izango zen. Ez da, tamalez, horrela:

El último chollo de su miserable vida: plagiar la voz de su amo, buscar sobre todas las cosas el reino de la identidad vasca y de su justicia (la justicia vasca es a la justicia lo que el arte vasco es al arte). (*El Correo*. 22.11.87).

Euskal identitatea eta justizia ... zentzu gabeko hitzak. Ez da euskal identitaterik ... ez da, horrez gero, oroimen beharrik ez dena oroitzeko. Ez da euskal justiziarik ...; okerra da, horrez gero, ezinezko dena oroitzeko oroimenik. - «Salbajeak, asesinoak, txapuzeroak, koldarrak...» begibistan daude. Ez da horretarako oroimen beharrik, ikusi baizik. Ez da ere ez justiziarik ez eta arterik (edertirik). Eta hori dena argi eta garbi dago, ze, horiek nahi dutena, batez ere, J. Juaristi urkatzea da: «Tibios animalejos ... y, sobre todo, exigir que se me justicie.» Den dena begibistan frogatuta dago!

Horrela lortuko du jende zirtzil edo *gentuza* zirtzileri horrek euren ezeretzaz asetzeko atsedena. Ezeretzaren eredu: Oteizak ikertu, aurkitu eta aurkeztutako bazter sagaratu, euskal identitatearen arke-tipo (arkaiko-tipo) den Cromlech gizartea:

Lograrán penetrar así en el recinto sagrado del Cromlech, donde su inanidad se sentirá, espero, satisfecha. (*El Correo*. 22.12.87).

Ezeretzean ezeretzaz, ezer ez den euskal identitateaz asetzen den jende zirtzila. Horrela diotsa J. Juaristi jaun-goikoak, gizon-andre izatera (gizaki izatera) heltzen ez den jende zirtzilari: «Lograrán penetrar así en el recinto sagrado del Cromlech, donde su inanidad se sentirá, espero, satisfecha. Porque nada complace tanto a la nadería como la propia nada. Pues, nada. Felicidades. De nada, *hombre (lo de hombre es un decir)*. (Azp. nir.). Eta ondo baino hobeto amaitzen du, esandako hitz horien arabera, *historiagileak* eskeini digun artikulua: «Quien nada busca o busca la identidad vasca, es decir, nada, la nada merece y la nada encuentra, y es sabido que, en este asqueroso país, quien nada no se hoga.» Ondo bete du «bene-tako historia ... ahaztearen administrazioa» dela esan digun *historiagileak*. Euskal identitarik dagoen edo den ere, ahaztu egin du ... edo ahazten saiatu da, behintzat. Ahazten saiatu, ezin ahazturik, ze, beregan du, bere musuetan gutxienez —eta hori benetan asko dela zioen Nietzschek— euskal identitatea, euskal kultura *ere* den herri hau, *iguingarri* zaion herri hau:

«Quien nada busca o busca la identidad vasca, es decir, nada, la nada merece y la nada encuentra, y es sabido que, en *este* asqueroso *pais*, quien nada no se *aboga*. (Azp. nir.). Ez bedi ito, bada, J. Juaristi jauna, egiten zaion (zaizkion) hainbeste okerrez, kalumniaz, iguingarriz. Ez liguke eta, orduan «La historia y los olvidos» idazkiaren antzeko —ez bestelako— artikulorik eskeiniko. Ez liguke eta horrelako artikulurik eskeiniko, *oroimenak* duen garrantzia ikusteko. Ze, *oroimen*-ari darion eta dagokion garrantziari buruz ari garela aipatu dugu J. Juaristiren artikulua hau, argibide legez, M. Benedettiren hitzak gureganatuz J. Juaristiren hitzak ez bezelakoak iruditzen bait zitzaizkigun M. Benedettiren hitz hauek:

La palabra es probablemente la mayor dificultad que enfrentan los olvidadores profesionales, porque la vocación congénita de la palabra no es omitir, sino nombrar, así como la justicia está para juzgar y no para complicarla en *el olvido*. (*El País*. 6.9.87. Azp. nir.).

M. Benedettik aipatzen dituen «olvidadores profesionales» horietako bat azaltzen zitzaigun J. Juaristi bere artikulua horretan: «*La historia y los olvidadores*. M. Benedettiren hitzaren aurkakoa azaltzen zitzaigun J. Juaristiren *ahaztearen administrazioa*.

Oroimenaren aurkako, orain-menaren aurkako ahazleak salatzen ari ginen M. Benedettirekin. *Hitza*-ren alde, *logo-hitza* den oroimenaren alde gaude. Ez da ez, hitza, ez aipatzeko, izendatzeko baizik; justizia epaitzeko den bezala eta ez ahaztearen nahaste borrarastean olertzeko:

porque la vocación congénita de la palabra no es omitir, sino nombrar, así como la justicia está para juzgar y no para complicarla en *el olvido*. (*El País*. 6.9.87).







IZUEN GORDELEKUETAN BARRENARI HURBIKETA SEMANTIKOA

ENRIQUE DEL HOYO, JOSU LARTATEGI, IRENE ZUBIZARRETA

Sarrera

«(...) *literatura oro literaturaren literatura da, hots, literatura berari buruzkoa, eta poema orok aurreko poemagintzan du erroa, eta nirea ere erreferentzia literarioz beterik dago*» (Prologoa, 6. orr.)

Joseba Sarrionandiaren honako hitzokin eman geniezaioke hasiera semantikazko alderdi honi, funtsean bere *Izuen gordelekuetan barrena*-n¹ nonnahi dakuskigulako metaliteraturaren ikutuak.

Olerki liburua zertan den jakiteko autorearen sarrera irakurtzea dugu komenigarriena, hantxe bait diosku liburua *bitakora kaiera* dela, ondorenekoa bidaia bezala azaltzen zaigularik. Beraz, lehen zutabea bidaiaren sinboloa dugu eta beronen bidez gauzatzen da metaliteraturaren ezaugarria. Bidaiak itsasoan barrena garamatza gehienetan, baina batzutan laberinto edota ziutate baten barruan eginikoa ere bada. Ez da bidaia programatua, noragabekoa baino. Itsas bidaia denaz bezainbatean, portuak ere izango ditugu, zazpi konkretuki, Sorterria barne: Sorterria, Paris, Grezia, Lisboa,

¹ Joseba Sarrionaindia: *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo. Bilbo Aurrezki Kutxa, 1981. Edozein mota-tako erreferentzia eskaintzen dugunean, beste ezer esaten ez bada, edizio honi dagokio. Azpimarra denak gureak dira.

Irlanda, Praga eta deserria. Era honetan, gure poetak bere erreferentzia literarioak zeintzu diren erakusten digu.

Goiko zazpi lurralde eta hiri zahar mitikootan zatitua da poema bilduma hau, «Bitakora kaiera» deitu olerkia duelarik atari, eta zati bakoitzari erantsiak zortzi epigrama datozkigularik. Gure azterketa banaketa horri darraio, berau errespetatu nahian batez ere: lehenengoz, «Bitakora kaiera» poema garrantzitsua sakonduko dugu; bigarrenez, bidaia bera.

Amaitzeko, gure ondorioak etorriko lirateke.

Sarrionandiak hitzaurrean egiten duen ohar bera egin beharko genuke guk hemen. Ez da pentsatu behar atalen arteko bereizketa erabatekoa denik edo batak bestearekin zerikusia ez duenik, zeren eta badira zenbait bizikizun eta sentimendu atal guztietara hedatzen direnak, berauek hartu ere konstante gisa har ditzakegarik. Bada, erreferentzia literarioak poema liburu osoan zehar presente daude, horietariko batzu zati konkretu batean edo bestean nabarmenago egiten badira ere.

Idazle ezagun batek esana du *eskandalosoa* dela bertoko euskal kritikagintza; euskal literatur lanei egiten zaien kritika, zehatzagoak izateko. Ez dakigu haizu ote garen orain eta hemen auzi horren gainean ezer esatera. Nolanahi ere den, egia aitortu behar badugu, idazleen beraien eritzi eta hausnarketak alde batera utzirik, kritikari deitutakoek plazaratu kritikek egunkarien eta aldizkarien erreseinetara murriztuak zaizkigula ematen dute. Hori begitandu zaigu guri, behintzat, Sarrionandiaren gaineko bibliografia apurra bilatu nahi izan dugunean; hots, baliozko gauza pare bat kenduta ezer gutxi aurkitu dugula —eta ari gara berba egiten, kontuak atara, sano entzutetsua den idazle on batek orain hamar bat urte sortu lanari buruz!!— Horrek kritika serio baten beharra ageri-agerian uzten du.

Beste aldera mintzatuz, badakigu, ondo jakin ere, *Izuen gordelekue-tan barrena*-ri hurbilketa honek ez duela berealdiko sakontasunez ikertuko Joseba Sarrionandiaren garai hartako olerkigintza —horregatik, hain juxtu, esaten diogu azterrentxo honi *hurbilketa*—. Edo agian bai, batek daki. Agian, hainbeste jakitunen artean izanda ikasleen ezbaian egote tipikoaren kariaz modestoegiak gaituzue, ezen irudiz jakituriaren tenploa den hone-tan ikasle literaturzale xumeak baino ez gara.

1. «Bitakora kaiera»

Hastapenetik agertzen zaizkigu lan osoan zehar, bidaian zehar, konstanteak izango diren elementu gehientsuenak; hala nola, ingurubilaren ideia, iragana/geroa joko etengabea, noraeza, oroitzapenaren gurari eta beharra,

bidaztia itsasoan barrena nabigatzea, etsipena, jakineza, Europaren irudi hauskorra... eta abar. «Bitakora kaiera» (11-12. orr.) olerkia, dena dela, liburu irakurri ahala ikus daitekeenaren islada soila baino askozaz gehiago dugu. Ez da ondoren datorrenaren aurrebegirada arrunta, olerki liburu osoa sostengatzen duen habe baizik: justifikazioa da. Hor diosku zergatik somatzen duen bitakora kaierako orrialdeetan eskribatu beharra. Hor de-maigu berak garrantzi handikotzat jotzen duen azalpena, hau da, idaztearen zergatiak azaldu. Hor, finean, mundu literario zabal baten aitzinean une konkretu horretan duen ikuskera edo planteamendu filosofikoa argitzen digu apur bat, liburu osoa irakurri eta gero edukiko dugun perspektiba zabalagoaren laguntzaz hobeto ulertzen dena.

Kontutan hartu behar dugu «Bitakora kaiera» poemarioaren hasiera dela, eta laberinto legez formulaturik agertzen zaigun bidaia honetan bidaztiak idatzi beharra somatzen dueneko unea markatzen duela. Ez litzateke izango, horregatik, bidaiaren hasiera, baizik eta bidaztia, bidaiaren dabilela, *bitakora kaier bat ilunabarrero* eskribatzen hasten deneko istantea.

Izanik ere, liburu honetan agertzen zaiguna ez da bidaia osoa, ez bada bidaiaren zati bat. Hasieran bidaztia nabigatzen ikusten dugu, eta amaieran ere, etenik gabeko bidaia bailitzan, bidaztiak nabigatzen ari dela uzten gaitu.

Goazen, baina, liburuari hasiera ematen dion olerki honen zenbait imajina begiesten:

* Ingurubila eta Iragan/Oraina/Geroa jokoak:

*«Ingurubilean barrena abiatu da bidaztia
noiz eta non sartu den oroitzen ez duen arren.
Bidea ingurubila bat dela suposatzen du, gauza berrietan
iragandakoen isladak somatzen dituelakotz.»*

(11. orr.)

*«Bertzetan bitakora kaierako orrialde hutsei begira geratzen da,
deus ere pentsatu gabe, edo ingurubilak marrazten.»*

(12. orr.)

Zirkuluaren imajina, ziklo eternal horren irudia, behin eta berriro azaleratuko zaigu anitz olerkitan. Jon Kortazarrek dioenez², Sarrionandiarren olerkiotan poesia sozialaren denboraren kontzeptzio lineala aldatu egin da, bere ordeztu ordena zirkularra ezarriz: desesperantzarrena. Eta egiazki, gure irudiz, hori ematen du; alegia, ez dagoela esperantzarik, bidaia, bizitza

² Jon Kortazar: *Laberintoaren oroimena*. Donostia. Baroja, 1989, 47. orr.

bera, zirkulua delako eta gauza berrietan iragandakoen isladak barrundatzen direlako.

Olerki liburu osoan zehar, bestalde, egitura zirkulardun poema asko beha dezakegu, behetik gora zein goitik behera berdin-berdin irakur daitezkeelarik, askotan joko hutsa diruditenak. Adibidez: 26, 28-29, 40, 62, 82, 104, 116, 134 eta 136. orrialdeetan. Horien bidez behin eta birritan azpimarratu egiten da zirkuluaren ideia hori.

Eta gorago aipatu Iragana/Geroa jokoa ere guzti honekin dago erlacionatuta, eta horretan nahikoa klarki ikus daiteke T.S. Elioten eragina, ondorengo olerki zenbaitzutan idoroko dugun ideia da eta³.

* Noraeza:

*«Orduan pentsatzen du noraezean galduko dela eta hari bat
behar duela labyrinthoan. Baina zer lokarritan
eutsi haria?»*

(11. orr.)

*«Hauxe da noraezaren bitakora kaiera, bidaztiak
haizerik gabeko itsasoan galerako ekaitza geroago eta
gertuago somatzen duen lemazainaren antzera idazten du»*

(12. orr .)

Liburua noraezaren bitakora kaiera dela esaten da, behin eta sarriago ageri izango zaigularik noraezean ibiltzearen ideia. Pentsa genezake, beraz, bidaztiak bidaiatzeari ematen diola eta sakonean ibiltzea duela helburu. Esan genezake baita ere, idazten hasi dela bere oroitzapena den gordailua baratxe-baratxe bitakora kaieran sartzeko eta, era horretan, deskubritzen joateko.

Nolanahi ere den, kontua da noraezaren ideia hau egundo ere ez dela faltako hemendik aurrera: batzutan, norabidea galdutako hegaztiak izango ditugu; bestetan, laino artean dagoen itsasontzia, ikusten ez den portu batetik hurren eta hara arribatu ezinik. Bidaia laberintoa izango da, orduan, bizitza eta bizitzea bera laberintoak diren bezala. Hargatik, bidaztiak bidea aurkitu nahi du laberinto galbidetsu horretan. Zoritxarrez, baina, lokarririk ez du⁴.

Hau guzti hau hitz gutxitan labur dezakegu aski errez: bidaztiak bere bide propiala nahi du aurkitu, baina ez ei daki nola, bere burua noraezean eta ingurubilean murgilduta duelako ikusten. Bada, hortik, zirkulutik

³ Ikus 121. orrialdeko «Eguberriak» olerkiaren komentarioa Pragako etalean.

⁴ Ikus ONDORIOAK atala.

irtetea ezinezkoa ikusten duenez, ingurubila horretan bere buruaren xerka abiatu eta berau kausitzea kezka nagusia izango da, eta etsipenean sarri-sarri erori arren azaleko mezu askoren azpian asmo hori konstantea da, presente egingo zaigula beti.

* Oroitzapenaren beharra:

«Orduan pentsatzen du oroitzapena bederen sostengatu behar duela eta bitakora kaier bat eskribatzen du, ilunabarrero.»

(11. orr.)

Batera eta bestera ibili ondoren ikusitakoa behar du ezagutu, bederen, ez dira oroitzapenak galdu behar... bestela zertan geratuko litzateke bidaia?

Ilunaren imajina ere osatzen hasia da, ilunabarrero bitakora kaieran eskribatzen du eta. Esanguratsua suertatzen da ilunabarrean izkiriatzea, nola ez, hots, idazteko argitasun haboro behar denean, egunaren argipean egin beharrean. Halatan, giroa agertzen zaigu lehendabizikoz, giro iluna berau, eskenatoki desegokia beraz bilakuntza hastera doan batentzako. Iluntasuna, gainera, areagotzen da lemazainak 12. orrialdean ekaitza geroago eta gertuago somatzen duenean. Bidaiaren hasiera honetan ikus dezakegun ilunaren presentzia kasik ondorengo olerki orok jasango du, eta gure arteon izango dugu beti.

* Bidazia itsasoan barna bidaiatzen:

«Hauxe da noraezaren bitakora kaiera, bidaztiak haizerik gabeko itsasoan galerako ekaitza geroago eta gertuago somatzen duen lemazainaren antzera idazten du.»

(12. orr.)

Olerkariak bidaztiarena egingo duela oharterazten digu, eta itsaso baten barna bidaiaren dabilen lemazainaren antzera idatziko duela bitakora kaieran, ekaitza etorri-ez-etorri, larri eta presaka ibiltzen dena, ataka gaitz batetan bailebilen. Bidaztiaren irudi hori sano erabilia izan da betidanik literaturan, jadanik Homeroren Odis edo Ulisesekin hasita. Gure protagonista, hain zuzen ere, Ulisesen tankera hartzen diogula agertuko da maiz, seguruenez hura delako bidaiariaren arketiporik famatu eta ezagutuena.

* Jakineza:

«Eta bidaztiak badaki batzutan, baina bertzetan ez daki deusere: nor den, bere burua nortzu diren ere.»

(12. orr.)

Ahots edo nortasun poetikoaren arazoa planteatzen du, azken batean. Eta arazo hau metaliteratura egitearekin erlaziona daiteke. Izan ere, bakoitzaren baitako identitate edo nortasun poetikoak bat egiten du bereganatu egiten dituen erreferentzia literarioekin. Testuinguru honetan galdera hau litzateke eztabaidagai: ahots poetiko bakarra dago ala anitza? Galdera honen gaineko azken eritzia emateko hobe deritzogu poemarioa bere osotasunean ikusteari. Arren beraz, azterketa aurrera doan neurrian zehaztuko dugu.

* Europa:

«*Batzutan pentsatzen du European barrena dabilela*»

(12. orr.)

Bere metaliteraturaren abiapuntua zein den diosku; alegia, European erroturikoa. Jakin badakigu literatura primitiboak ere biziki maite dituela Sarrionandiak, euren ezaugarri zenbait bere olerkigintzan sartzen saiatzen delarik. Hala ere, bere formazio literarioa europar literaturan oinarritzen dela gauza nabaria da.

* Etsipena:

«*Etsipenez eskribatzen du*»

(12. orr.)

Aurkezten zaigun mundu ikuskeran etsipena nagusi dela esango genuke. Giroak berak sortu eta hedatzen du etsipena (iluna, gaua, ekaitza gertu...), testu osoa iluntasun eta goibeltasunez jantzia agertzen delako.

Hauek guzti hauek dira, gutxi gora behera, atal ondoko olerki honen elementu aipagarrienak, olerki bilduma osoan zehar (zati batzutan bestetan baino nahasiago) behingotik behingora errepikatuko direnak.

2. Zazpi portuak

2.1. *Sorterri hautatuan: Euskal Herria*

Sorterri hautatuaren atal honetan berarekin noraeza dakarren iluntasuna nozituko dugu. Gu saiatuko gara frogatzen sorterri hautatua Euskal Herria dela (eta horrekin ez dugu ezer berririk ez berezirik esango, noski), bai eta hor kausitzen den iluntasuna, bidaiariarengan noraeza sortuz, tradizio ezak eragina dela ere. Azken planteamendu honi interesgarriago erizten diogu, ez bakarrik *izuen gordelekuetan barrenean* bidaiariak bere burua galtzearen arrazoia delako (olerki liburuaren zutarrietarik bat, beraz), bere

literatur produkzio osoa baldintzatzen duelako baino. Zentzu honetan, esaterako, plazaratu nahi ditugu ONDORIOAK atalean Sarrionandiaren beraren aburu batzu, berorren lan teorikoetatik atereaz, finean, praktikan zer nolatan gauzatzen diren ikusteko.

Atal honen hatsarrean, besteenetan bezala, epigrafe bat argitzen zaigu. Berau poema liburuaren barruan ikusten den tendentzia edo joera baten ispilua dugu⁵. Lehen epigrafe honi gagozkiola, esan genezake ahozko herri tradizioa hartu duela, Behenafarroako herri kanta baten zatia hautatuz. Baina, horretaz gain, epigrafeak nolabait bidaia amaigabea izango dela aurreratzen digu: *itzuliren etzira menturaz haboro*.

17. orrialdean agertzen den poemak hegaztiak ditu protagonista: usapalak, basusoak, kurriloa, basoilandak eta usoak. Badago, egon ere, paralelismo bat hegaztien eta gure bidaztiaren pasaeren artean: noraezean eta desnorabideturik dabilta denak.

Pentsa dezakegu denek, hegaztiak eta bidaztiak, arrisku berdinak ditzutela edo, behintzat, Pirinio gailurretan gaindi ezin dutela euren bidea egokiro segitu.

Beldurrik gabe esan dezakegu zati honi hastea ematen dion olerkia enblematikotzat jo daitekeela: oskarbi denean hegaztiak ez dute arrazoirik batere Pirinio gailurretan gaindi pasatzeko, baina behelainoak eta lanbroak agertu arau hegazti desnorabidetuak bihurtzen zaizkigu, ibar hertsietan berriro eta behin jirabiraturuz, zohardia behar dutelarik, izarren bidez gidatzen bait dira.

Ekialde urruneko tradizio literarioan hain ohizkoa den argitasuna/iluntasunaren jokoa ikus daiteke sarrerako olerki honetan, bai eta poemario osoan ere: hots;

ORTZEAN { Oskarbia: argitasuna
Lainoa: iluntasuna

Oskarbiarekin ez dugu problemarik bidea aurkitzeko; lainoarekin, berriz, desnorabidetzen gara, bidea berriro idoro ezinik, izarren laguntza ez badugu, behintzat.

Argiaren eta ilunaren joko honek koloreen erabilerarekin zerikusia du. Sakonki ikertzeko gaia denez gu ez gara alor honetaz luzaro mintzatuko,

⁵ Izan ere, bere olerki askotan Sarrionandiak begirada atzera botatzen du eta iragan tradizioko elementuak berreskuratzen ditu. Alderdi hau oso nabarmen egiten da Grezian, mitologia grekoaren pertsonaia eta pasarte ugari erakusten bait du, eta baita Irlandan ere, non mitologia gaelikarra azaltzen duen.

baina aipatu beharrekoa da Sarrionandiak berak horri buruzko saio labur batzu dituela bere *Ni ez naiz hemengoa* liburuan, non kolore bakoitzak duen esanahi aniztasuna laburbildu eta koloreen euskal distribuzio zaharrari buruzko erreferentziak egiten dituen. Azken hau interesgarria da, olerkariak hori berreskuratzearen aldeko ahalegina egin duela iruditzen zai-gulako, usu matizazio aberatsak lortuz.

Argitasuna/Iluntasuna oposizioarekin amaitzeko, esan beharra dago baita ere askotan agertzen den sortzea/hiltzea binomioari lotua dela. 28garren orrialdeko «Olerkia» poema adibidez, sortu/hil aditzen arteko kontrajarpenak egituratzen du, sorkuntza poetikoari buruzko argibidea eman nahi duena.

«Oskorriko arragoak» olerkian, naturalezaren elementuekiko pertsonifikazioen artean («eguzkia unaturik»... etab.), zakur deslaien irudia agertzen da lehenengo aldiz, hemendik aurrera hagitz erabilia izango dena. Neskati len irudia ere sano erabilia izango dugu. Arean ere, Sarrionandiaren mundu ikuskeraren barruan berebiziko garrantzia hartzen dute gauza arrunt eta xumeek, ondorioz, gizartearen talderik marjinatuena ditugula protagonismo gehien hartzen dutenak: emagalduek, itsuak, barmanak, semea galdu duen ama, atso errenak... etab. Zehaz dezagun horren adierazle den esenplu bat;

*«mehategiko lupetza
zakur deslailak
langile urdinak
eta neskatilen matrailak ere» (19. orr.)*

Orokorrean, arren, gauza arruntekin batera errealitate hondatua da nabari daitekeena, zeinean eskena suntsigarriak ugaritzen bait dira. Olerki honetan, bestaldetik, ohantzearen ideia zaigu gailentzen, izadia bera nekatuta balego bezala.

Ohantzea, etzanda egotearen ideia hura hurrengo olerkian ere ageriko da, «Hilarria» titulukoan (20. orr.), baina oraingoan gai inportantea izango den heriotzarenari lotua, eta ondoren anitz momentutan ere bai (27. orrialdeko «Amatxiren heriotza»n, adibidez).

Aipatu beharrekoa litzateke, baita ere, «Sorterri hautatua» zatian naturak duen garrantzia, beste zatietan baino presentzia nabarmenagoa bait dauka. Gure herriaren «primitibotasuna» edo gure euskal tradizio idatzia- ren erruraltasuna azpimarratu nahi al dira, agian?

«Aberria hautatu egiten da» (18. orr.) eta «Sustraiak han dituenak» olerkietan gai bera planteatzen da: protagonistaren identifikazioa bere lurrarekiko eta bere sorterriarekiko. Batipat aipatu bigarren olerkian ezartzen

da nabarian zein sustarturik dagoen protagonista, metafora ezin adierazgarriagoak erabiltzen bait dira ideia hori indartzeko:

«*Nekez uzten du gezalak itsasoa
ez hare harriak basamortua.
Ez du liliak udaberria uzten
ez elurrak zuritasuna.*» (25. orr.)

Protagonista eta bere aberriaren arteko identifikazio horri erantzuten dio Friedrich Hölderlin poeta alemaniarren aipuak (aipu hori poemaren lehen bi bertso lerrotan agertzen zaigu ostera ere errepikatua, baina oraingoan euskaraz emana da, ez alemanieraz). Badakigu poeta hau tradizioaren errebindikatzaile printzipalenetarikoa izan dela eta, beraz, «Sustraiak han dituenak» zentzu osoagoan ulertzeko espreski aukeratutako poeta dugula.

Euskal tradizioaren erakuslea «Sorterriko koplak» (23-24. orr.) dugu. Zortzi ahapaldiz osatua da eta koplaren eskema metrikoa darabil: 8A, 8A, 10, 8A.

2.2. *Paris neskazaharra*

Hemen, ziudadearen ilun munduan murgilduko gara, gauaren pertsonaiekin batera ibiliz. Baudelaire eta Mallarméren giroa da, azken finean, pertsonaia eta motibu arrunt marjinalokin birkreatzen zaiguna.

Gaua da «Pianistaren heriotza» (39. orr.) eta «Haigu» (43. orr.) olerkietarako aukeratu den markoa. Honek iluntasunaren eremura igortzen gaitu, eta zentzu honetan Baudelaire poeta frantsesa behar dugu gogora ekarri. Hain zuzen, Baudelairek iluntzea gogoko zuen, egunsentia baino gehiago⁶. «Pianistaren heriotza» poeman errealismo handiko konposizioa lortzen du, girotze hau pertsonaiek osotzen dutelarik: jazzmanak, dantzariak, atalzainak, barmanak... etab. Gauza bera esan liteke «Haigu» olerkiaz (pianista, dontzeilak, emagalduek, komikoak...).

«Haigu» olerki honi dagokionez, emagalduek irudia dugu elementurik bereizgarrienetarikoa. Eta berriz ere Baudelairekin antzekotasunik badagoela esango genuke; poeta frantziarrak emakumearen irudi bikoiztua eskaintzen zuen, esaldi honetan biltzen zelarik bere tesia: «La mujer es natural, es decir, abominable». Olerki honetan emakumeak *haigu erraiten*

⁶ Ikus, adibidez, bere «Iluntzea» olerkia in SARRIONAINDIA, J.: *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*. Iruñea. Pamiela, 1985, 179.-180. orr. Elementu asko jasoko ditu hemendik Sarrionandiak; hala nola, hiria eta emakumea.

derautzu; hau da, zorionerako deia emakumearen bidez gauzatu egiten da. Baudelaireren ildoari jarraitzen dio, orohar, aipaturiko bikoiztasun hori batzutan garbi ikusten ez den arren. Bada horren arrastorik «Haren haiduru» (47. orr.) poemaren akaboan, hala ere. Adib.; «haren irribarrea, haren elur halako malkoak».

«Haren haiduru» olerkian emagaldu bat aurkezten zaigu berriki, deskribapen samurrean. Poemak Edith Piaf abeslari frantziarraren kanta zati bat du epigrafe; *La rue Pigalle*⁷ aipatzen digu, eta ezaguna da Pariseko enparantza honetara sartzeko dauden kaleetan kabaretak ateka direla. Epigrafearen esku giro konkretu batetan kokatzen gara.

Hiria elementu inportantea dugu «Parisetik amodio gutuna»n (41-42. orr.). «Esanen heukeat / arrazoi hunan / klarionez marraturiko *zirkulu hestua dun hiria*» diotso bidaztiak bere maiteari. Lerrootan hiriaren gaia planteatzen da, Baudelaire berreskuratuz. Baina hiria zirkulu gisa formulaturik dator, eta honek bidaiaren enunziatziora garamatza; era honetan, aditzera eman nahi zaigu bidaiaren amaiera ez dela gauzatuko. Zirkuluaren ideia, beste alde batetik, denboraren kategoriari ere lotzen zaio: «egunaren zirkuluetan».

Pariseri berari dedikatzen dio olerkariak kantu bat, pertsonifikazio handi baten moduan, eta hor esaten dio hiri horri europar tradizio luze baten pausalekua dela, hiltzera trankil doazen mitxeleten eta suiziden pausalekua: «Paris neskezaharra» (49. orr.). Ederra da, zinez, neskezaharrekiko konparazioa, berorren soinaren goitik beherako deskribapena eginez, poesia erlijiosoa egin izan den bezala:

Adatsak → Begiak → Bularra → Altzoa → Belaunak → Eskuak

Emakumearen gorputzeko atal guztiotan, bide batez, hondamena nagusia da, errealitate gordin batez paratua.

Badira zenbait olerki orain arte azaldutakoarekin harreman gutxi dutenak. Horietako bi «Inork agintzen ez didalako» (44. orr.) eta «berrogei IZEN SONETOA egiteko» (45. orr.) ditugu. Lehenengoa naturalezako gauzarik berezkoenak osatzen dute, gure olerkariak gauza arruntak maite dituela erakutsiz. Bigarrenean bere olerkigintza ulertzeko eta sakontzeko balio duten kultura mailako erreferentzia zuzenak ditugu.

Heriotzak leku garrantzitsua dauka atal honetan. Aurretik ere ikusia dugu indiferentziatzko giro batez jazotzen zen pianistaren heriotza.

⁷ Jon Mirandek ere badu «Pigalle» izenarekin olerki bat, Sarrionandiaren olerki hauen giro berberekin, edo hobe esan, biok dute ispilatzen Baudelaireren giroa. MIRANDE, J.: *Ene Jainko-Eidol zaharra, Lur!* Donostia. Elkar, 1984, 22. orr.

Oraingoan, Balbea, Herioa bera beti gure haiduru dugula esango zaigu «Balbea» (50. orr.) olerkian. Hiltzea, beti bezala, hilobiaren, ohan-tzearen eta, orohar, etzanda egotearen ideiei lotzen zaie. Herioaren presentzia, egia esateko, ez da olerki honetantxe horren beldurgarri eta mehatxagarria izango; aitzitik, gure bidearen, bizitzaren amaieran etsi gabe igurikatzen gaituen zaindari leiala legez presentatzen zaigu Balbea. Era horretan, betirako atsedenarekin eta pakearekin dugu erlazionatuta heriotzaren ideia.

2.3. *Itsasoaren ezpainetan: Grezia*

G. Seferis poeta greziarraren bertso lerro batzuk osatzen dute atal honetako epigrafea, eta honen bidez Grezia da espazioaren aldetik dugun erreferentzia. Orokorrean hitz eginda, esango genuke Greziako iragan historikoari so egiten zaiola, alor honetan mitologiak berebiziko garrantzia hartzen duenari. «Sorterri hautatua»n komentatu tradizioaren ezaugarria planteatu beharko genuke, berriki planteatu ere. Gure ustez, Sarrionandiaren erreferentzia literarioetarik bat mundu mitologikoa da, han delako garai orotariko olerkigintza modu batera edo bestera azaltzen dena. Mundu mitologikoaren bitartez berreskuratzen da zibilizazio zenbaiten tradizioa, eta tradizioaren islada honek, aldi berean, argia ematen dio bai iraganari bai eta orainari ere⁸.

Lehenbizi («Salamis», 59. orr.)⁹, lurralde honen zentinelak ematen duten marmorezko betiereko biztanleak dakuskigu, mundu osoan famatuak diren tenpluetako friso eta estatua *elbarrituak*, alegia: Knidoko Afroditararen gorputzenborra, Miloko Venusak, Partenoia-aren estatuak... etab. Marmorezko estatua elbarrituen gai hau «Estatua elbarriaren istoria» olerkian ere errepikatuko zaigu. Estatuen lurraldea da, antxinakoa, ederra (garai distiratsuek izan ohi duten betierekotasunarekin) baina hieratikoa. Lurralde honetan, G. Seferisek dioten bezala, geldotasuna eta isiltasuna nagusi direlako.

K. Kavafis poeta greziarrarengana jo behar dugu «Ulyses Itacara heltzean» aztertzen hasiz gero. Beste ezer esan baino lehen, gogoratu beharra dago

⁸ Dena dela, ez da pentsatu behar Sarrionandiak estu-estuki lotzen zaiela jatorrizko elezaharrei. Pertsonaia mitologikoak eta istoriaren hari nagusiak hartuko ditu, orduan forma emango duela. Alde honetatik, mitologia tradizionalaren berritzaile agertzen zaigu Sarrionandia.

⁹ Salamis izenak greziar mitologiara zuzentzen gaitu: Asopos ibaiaren alaba zen Salamis, Poseidonek berekin maitemindu eta bahitu egin zuenari. Salamisek ume bat izan zuen eta umea jaio zeneko irlak hartu du izen hori: Salamis. Izen honek pertsonaia mitologikoa bat gogora dakarkigu, beraz, bai eta Greziako irla bat ere, non greziarrek pertsiarrak irabazi egin zituzten bataila batetan.

Homeroren *Odisea* poema epikoaren protagonista, Odis edo Ulises, zeinek Itakatik urten egin zuen Troiara joateko, mila ezbehar ondoren bere etxera bueltatuz. Aztertuko dugun olerki honetan Ulisesen itzulera da kontatzen zaiguna. Eta gauza bera egiten du Kavafisek bere «Itaca» olerkian. Parekotasun hori nabarmena da. Bestaldetik, poeta honi historia greziarra interesa zaio eta bereziki ekialde heleniarrarena, giro horretan jaiotako edo bizi izandako pertsonaia greziarrak eta erdi asiarrak dituelarik gogoko. Honekin argi utzi nahi dugu Sarrionandiak bere egiten duen erreferentzia literario berebizikoa Kavafis dela, baina azken honek, hein berean, iragan klasikora zuzendu dituela bere begiak. Kavafisen olerkigintzari, hortaz, tradizioz kutsaturik dagoela antzematen zaio.

Gure ustetan, «Ulyses Itacara heltzean» (65. orr.) eta «Itaca» olerkiek oinarri bera izateaz aparte, mezu bera ere zabaltzen dute. Eumeo txarrazain fidelak honakoa diotso Ulisesi:

*«Zergatik itzuli Itacara, Ulyses?
Saiak soilik geratzen dira aspaldidanik etxe honetan,
gida harria besterik ez da hegazti galduentzat.
Akiturik al zara? Laket al zaizkizu hiletarien malakoak?
Egiozu kasu izarren bideari, hegaztiak bezala,
eta bizitzaz bederen badakien Eumeo zahar honi.»*

(65. orr.)

Itaka, jadanik, ez da bere azken helmuga, ez da behin hasi zuen bidaiaren akaboa, nahiz eta bere abiapuntua izan. Ulisesek bere bidaiaren segitu behar du, besterik ez duelako. Kavafisen poesian pasarte batek dioenez:

*«Itaca te ha concedido ya un hermoso viaje.
Sin ella, jamás habrías partido;
mas no tiene otra cosa que ofrecerte.»*

«Alexis Zorba zaharra» (67. orr.) olerkia¹¹ hastapeneko «Bitakora kaiera»-ri lotzen zaio, bidaiariak, halabeharrez, aurrera jarraitu behar duela, estatuen mundu hau gibelean utziz. Greziak ez dio bidaztari bere bilakuntzarako balio, sartuta dagoen laberintotik eskapatzeko hain beharrezkoa duen firua eskeintzen ez diolako («Bitakora kaiera» olerkian aipatzen zen firu hura):

¹⁰ Poema honek Teseoren kondaira du kontagai: Teseoren aitak, Egeok, harkaitz baten azpian ezpata bat iltzatu zuen. Teseok harkaitza jaso behar zuen Atenasera abiatu aurretik. Bidaiaren hasi zen, eta Kretan zegoela, Ariadnak laguntza eskaini zion Knosos laberintotik irteteko, firu bat emanez. Minotauroa hil zuen eta gero Kretatik ihes egitea lortu zuen.

*«Grezian ez da iada minotaurorik ez Teseorik
ez Teseorik ez haririk ez eta ere Ariadnarik
Ariadnarik ere ezetz erraiten du Alexis Zorba zaharrak»*

(67. orr.)

Mito klasikook medio, olerkaria dator esatera konturatu dela aspaldi zaharreko mundu horretan ez duela topatuko desiatzen duen bidea.

Greziako zati honen akabuko olerkia («Etxera itzuli», 68. orr.) orainarte ibilitakoaren eta sentitutako bizipenen azalpen laburtua da. Olerki horretan, bada, etxera itzultzen den bidaztiaren mitoa darabil olerkariak, zuka idatzirik eta hiru ahapaldi aski diferenterekin esanahi aldetik:

1. *Abiatzea*. Altxorrek topatzeko esperantza eta ilusioarekin abiatzen da norabaitera, norabait hori, ordea, eta orain ondo baino hobeto daki (poema etxera itzuliz gero idatzia dago eta, lehenaldian), ondinen balizko abestien atzetik abiatzeagatik sartu den laberintoa da, izuen gordelekuak.
2. *Bidaia*. Nahi zuena ez du erideiten, oihan beltzetako habia ustelduak baino ez¹¹.
3. *Itzultzea*. Bidaiak ez dio balio ukan nahi zituen altxorrek topatzeko¹², etxera itzultzean, ordurako, gauzak aldatu egin direlako.

*«etxera itzuli ninduzunean
berria zizun ateko zura
eta sarraila ere» (68. orr.)*

2.4. *Lisboako nigarkanta*

Lisboaren irudi topikoa da atal honetan ikusten dena. Toki hau, arean ere, benetako Lisboa hura bezala, itsasondoan dagoen portua da, baina gure kasuan bidaztiarentzako atsedean lekua dirudi.

Hasierako poeman babiloniar pertsonaia mitologikoa den Gilgamesh bidaztiari zuzentzen zaio olerkaria («Gilgamesh bidaztia»). Olerkiaren baitan agertzen dira iraganeko elezaharraren hari nagusiak. Elezaharrari behako bat botako diogu: Utanapistim izenekoak bizitzaren landarearen berri eman zion eta horren aurrean Gilgameshek bere bidaia hasi zuen; itsasoaren barrenetik jaso zuen bizitzaren landarea baina suge batek ohostu egin zion itzuleran. Azalpen honen arabera esan genezake elezaharraren zutabea

¹¹ Ikus ONDORIOAK atala.

¹² Ikus ONDORIOAK atala.¹³ Ikus ONDORIOAK atala.

heriotzarekiko kezka dela. Hau alde batera laga barik finka gaitzen berriz olerkian. Etsipenean ez erortzeko, Gilgameshi upaka arituko zaio olerkaria, sistatu nahian-edo, esanez bezala egoera ezezkor horretan hiltzea, betirako loak hartzea ez dela hain txarra, ez bada pakea eta atsedena jadetsi egitea, sofrimenduak amaitzen direlako.

*«Bai, Gilgamesh, krudela da heriotza, etortzer,
baina helduren zaizu balbea eta eskuarki
emanen dauzkiozu oroitzapenak oro, irriak, malkoak,
eta harek besarkada amultsuz harturen dauzkizu.»*

(77. orr.)

Lisboaren irudi tipikoaren adierazlerik nagusienak «Arratseko fadoa» (78. orr.) eta «A midsummer night's dream» (79. orr.) ditugu. Iluntasuna kontuan hartzeko alderdia da bi olerki hauek aztertzeko orduan; hain justu, deskriptiboak diren neurrian koloreen erabilerak funtzio inportantea betetzen du eta honek giro konkretu bat marrazteko balio du. Urdina da agerien dagoen izenondoa eta honen bidez, gure eritzirako, bi gauzoi egi-ten zaie erreferentzia: batetik, bidaztiaren akidura eta abaildurari eta, bes-
tetik, herrialdearen urruntasunari.

Aipatutako alderdiak elkarrekin erlazionatuta ageri zaizkigu:

*«ortze urdina itsaso urdina
urdin lausotua»*

(78. orr.)

*«Argi zaharren artean noa
karrika urdindutan barrena,
espaloietan aitzina noraezean»*

(79. orr.)

Iluntasun giroaren ideia hau aberasteko honako aipuak ekarri nahi ditu-
gu gogora: «saudadezko fadoa hiri goibelean», «itsas hegiko krabelin zimeldua /
karrikako pinpilinpausa eritua», «saihetsean utzirik maho zimelak, / zelati he-
sietan katu gorriskak, / ibaian behera puskatan foto oriskak» (79.orr.). Aipuak
erakusten digun iluntasuna giro aproposa da bidaztiaren etsipena, esperantza
eza iradokitzeko, eta baita Lisboaren ikuspegia eskaintzeko.

Bidaztiaren esperantza eza azpimarratzen duen olerkia «Alperrik ditut
ibili maitea» (80. orr.) da. Irudimenaren itsasoetan eta Lisboako bideetan alfe-
rrik ibili da bere maitearen bila, noragabetutako kaiolak ez besterik idoroz¹³.

¹³ Ikus ONDORIOAK atala.

F. Pessoa poeta portugaldarraren presentzia «Alberto Caeiro-ren bisita» (83. orr.) olerkian agertzen da. Bi dira aipatzen diren izenak: Fernando Pessoa eta Alberto Caeiro. Olerkaria, jakina, bat bera da, Alberto Caeiro Fernando Pessoaen heteronimoetarik bat bait da, Ricardo Reis eta Alvaro de Campos heteronimoekin batera. Poeta berberaren dimentsio hirukoitz honek identitate poetikoaren arazoa plazaratzen du eta hauxe da, hain zuzen ere, Fernando Pessoaen bereizgarri bat. Identitate poetikoaren aurkikuntza bere kezka ezagunetarikoa izan zen, bere olerkigintza horren ispilua delarik.

«—Egun enauzu neu etorri
Alberto Caeiro baino» erraiten zautan
Fernando Pessoa, (...)

(83. orr.)

Eta olerki honetan azaltzen da baita Alberto Caeiroren estiloaren muina, gogoan izan behar bait dugu heteronimo bakoitzak estilo eta jokabide berezkoak zituela. Alberto Caeirok berezkotasuna eta lasaitasuna zituen alderdi positibotzat eta, bestetik, ikusten jakiteari ematen zion garrantzia, azalekoaz axolatu gabe.

«Eguzkiloreek bezala behatzen zituen
hormetan zelai urregorritzatuak
edota muino izarez estaliak»

(83. orr.)

Azkenez, egunaren azken orduetan eta gaua abaildu orduko poeta portugaldarrak alde egiten du, Pessoaen beraren olerki baten zatitxoa parafraseatzen duelarik: « (...) aldegiten zuen lasai / sonbreiruaren hegala altzatuz ».

«Hogetabi urte eta» (81. orr.) poeman gure olerkariak diosku isiltasunaren aukera ez dela hain txarra, lur eta elur eremuetan barrena abiatuz gero. Poema honek olerkariaren nortasun poetikoarekin antzekotasunik badu, nahiz eta «Alberto Caeiro-ren bisita»n Fernando Pessoa hartzen zen eredu:

«Hogetabi urte —haurtzarora itzultzeko adina—
eta iadanik ez nauzu gauza egiarik adierazteko.»

(81. orr.)

2.5. Hodeien marga: Irlanda

W.B. Yeats poeta irlandarraren poema zati batek osatzen du bostgarren portu honetako epigrafea. Bertso lerrook *Irish revival* izeneko literatura

mugimenduaren adierazle dira, Yeats horren gunea izan zelarik. Poeta irlandarrak bere herrialdeko elezahar edo kondaira heroikoetako motiboak zituen iturri nagusi. Azalpen hau baieztatzen duen poemarik bada atal honetan: «Ossian» (99. orr.) poema narrazioa, Jon Miranderen omenez idatzitakoa. Bertan Fionno Fin mac Cumhail eta Ossian aipatzen dira, irlandar eta eskoziar epopeien heroe eta koblakari mitikoak. *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan esaten zaigunaren arabera irlandar paganoek *hainbat herrialde imajinatzen zituzten ur handien bestaldean*¹⁴ eta horietarik bat agertzen zaigu poema-narrazio honetan: Tir na n-Og, gaztaroaren herrialdea dena. Sarrionandiak aipu eginiko elementuak hartzen ditu eta Ossianen bidaiaren nondik norakoa kontatzen digu, gaztaroaren herrialdea gogora ekarriz eta baita itzuli zeneko garaia. Jakina da Ossian agure bihurtu zela gaztaroaren herrialdetik itzuli zenean, lurra ukitu bait zuen: *eta lurra garratza zen*; esaldi honek Ossian bidaziaren etsipena erakusten digu, gure poema liburukoarekin pareka daitekeena.

Badago olerki bat zeinean Yeatsen sinbologia iluna ageri dela iruditzen zaigun: «Be a fine girl, kiss me» (96. orr.). Konplexutasun handikoa da ziklo bat, ilargiaren 28 fasek osatutakoa eta bertan unibertsoaren elementu eta figurak kontrajartzen dira. Sarrionandiaren olerkira itzulirik, izarrak dira agertzen diren elementuak: *begira izar argidunak eta argigabeak*; izar mota asko aipatzen ditu, zenbaiten kolorea ere esanez. Ortzean dauden izarrek sortzen duten margoa erakutsi nahi digu.

«Erin» (93. orr.) poemaren bidez Irlandako ikuspegi arras idilikoa demaigu olerkariak, lurralde honen margoa zein den adierazteko ezaugarri fisikoetara mugatu delarik:

*«Itsasoaren kontrako harkaitzak
landa zabal hezeak
kalatxoriak
bildotsak
haizeetara zaldi xurigorrien zurda
ibai mantsoak
ahateak eta sugeak laku goibelean
hesiz marratuak zelaiak
goroldioa gaztelu gorenetan»*

Deskripzio topikoz betea da olerkariak erabilitako teknika Eireann (Irlandaren antxinako izen keltiarra) edo Eire irudikatzeke. Ondorenean,

¹⁴ Joseba Sarrionandia: *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*. Iruñea. Pamiela, 1985, 86. orr.

«Irlandar herriaren aldekoak» (94. orr.) poeman aurrerago deskribatutako herrialdearen egoera azaltzen du, tonu malenkoniatsu eta triste batez, baliabide estilistiko ederrez josten digula olerkia: «hazi egiten bait dugu itsasoa gure malkoez / eta, halaber, haizea gure hasperenez». Bestalde, Lady Gregoryren izenpean sinatutako olerkia da, eta honek berriz garamatza *Irish revival* literatura mugimenduaren girora, bera izan bait zen garaiko irlandar literaturaren mezenasik nagusia: irlandar eta keltiar tradizioak, kondairak... bildu zituen, beste gauza askoren artean. Baina «Gudu olerkia» (97. orr.) poeman haruntzago doa, hauxe delako, izan ere, poemario osoaren poemarik politikoena eta sozialki konprometituena. Irlandarren kemena goratzen da, garaile agertzen diren etsaien aurrean: «gure harmak nahi dituzu, hartzera zatoz, / baina ez dauzkizut emanen». Kemenaren pertsonifikazioa den Herakles «Be a fine girl, kiss me» (96. orr.) olerkiaren amaian aipatu egiten da. Heriotza ez du aipuren bat egin barik uzten: *Heriotza, hitz honekin dagizut diosala*. Baina gai hau, ardatz gisa, «Haurra» (102. orr.) eta «Soldadu hilaren ama» (103. orr.) olerkietan ageri zaigu, estilo arrunt poetiko eta sentikorra medio. Akabuko olerki honek badu loturarik «Gudu olerkia» izenekoarekin zeren eta biek gudari buruzko erreferentzia egiten dute. Une historiko baten adierazle dira, independentzia gudako garaia apika.

«Ophelia» (101. orr.) olerkian Shakespeareri egiten dio omenalditxo (nahiz eta, teorian, Irlandan egon), *Hamlet* bere tragedia ospetsuaren episodio bat birkreatzen digularik; hilerriko episodio ezaguna, hain zuzen, non Hamletek Ofelia hilotz aurkitzen duen. Lehenengo bi ahapaldietan Hamletekin maiteminduta zegoen baina, bere aitaren heriotz mingotsarekin arrazoi galdurik, erreka batetan erori eta ito egin zen Ofelia hura hila datza urmaelaren ondoan, behelaino artean, Hamleten esanetan *loak hartua bezala*; hirugarren ahapaldian Ofeliaren neba den Laertesek gorpua maindire artean bildu eta gaztelura eramaten du, Hamlet bakar bakarrik utzirik.

95. orrialdeko titulu gabeko olerkian beste poeta baten izena aipatzen zaigu: Dylan Thomas; honekin batera ibiliko da gure bidaztia Dublin euritsuari, egunsentiararte whiskia edaten. Olerki honetako forma Dylan Thomasek berak zenbaitetan erabiltzen duenaren modukoa da; formaren aldetiko eraginetatik kanpo, guk esango genuke olerkari galestarraren bizi-modu bohemioa ere isladatu nahi izan dela.

Sarrionandiak lurralde hau maitatzen eta miresten duela ematen du: lehenik, keltiar leienda zaharrak agertzen ditu, Irlandak gureak ez bezalako tradizio zahar mitiko finkatu bat daukana erakusterazteko; eta bigarrenik, Dublinen irudi tipikoa birkreatzen du bi poeta garaikideren esku, hots,

Dylan Thomas eta W.B. Yeats, hauen bidez gure olerkigintzak beharko litzukeen olerkari moderno handi eta berriztatzaileen berri ematen zaigularik aditzera¹⁵.

2.6. *Prahako orenetan*

Franz Kafkaren Metamorfosia liburuaren hastea hartu du gure olerkariak epigrafea osatzeko; aipatu lanaren hatsarrea hunkigarria da guztiz eta honetatik abiatuz elaberriaren ardatza gorpuztuko da: gizabanakoaren etsipena, bizi den gizartearen barruan zapalduta egonez gero. Aztertzen ari garen poema liburuari lotu eta gero, esan genezake, epigrafetik ateratako ondorioa bidaiaren egoerarekin pareka daitekeela.

Etsipenaren sentimendua atal honen barnean hedatzen da, olerkiak neurri desberdinean ukituz. «Ahurreko marrak» (114. orr.) olerkian, adibidez, bidatzia konturatzen da bizitzaren ibilbidea gure esku ahurreko ildoe-tan alde zurretik programatuta legez dagoela; bestetik, noraezarekin eta etsipenarekin batean datozen irudiak darabiltza: dontzeila nigartiak, tren-bide amaigabeak, hezur zaharrak, lemarik gabeko itsasontziak... Franz Kafkaren Metamorfosia elaberriaren hasierak aurkeztutako sentimendu hori Kafkaren izenpean sinatuta dagoen «Ene eskribu guziak» (118. orr.) poeman ere ikus daiteke. Idazle txekiarrari omenaldiaz gain, bere lanaren gaineko buruhausteak burutik kentzeko bidea ere badugu:

*«Liburuak —aizkorak bezala—
zulo bat zabaldu behar du
gure baitan izozturiko itsasoan.
Luzaroan ihardun arren ere
ez dut deus ere erdietsi.»*

(118. orr.)

Ezbaian dago bere lanak baliozkoak izango direnentz eta Kafka hiltzorian zegoeneko kezka berberaz baliatzen da Sarrionandia berorren kezka berenezkoa kanporatzeko.

Gure bidaiariak, Pragara heldu arau sentsibilitatez aldatu eta geldotasuna ezartzen dio olerki orori; tonu geldo hau Vladimir Holan olerkari txekiarrarengandik jaso duen ezaugarria delako ustea dugu. Olerkari honi buruz geroxeago mintzatuko gara eta orain seigarren ataleko lehen olerkira joko dugu: «Hil egin da organista» (113. orr.). Honetan Pragako leiho

¹⁵ Ikus ONDORIOAK atala.

batek behatzen duena kontatzen zaigu, bide batez gure olerkariaren idazle txekiar gogokoenak azalduz: Rainer M. Rilke sosaren truke Orfeori poemak eskatzen, Franz Werfel eta Vladimir Holan egunkaria eroatera datoze-la, Franz Kafka hausterrak kontatzen... Bidaian dabilenak ere bere buruari begitu egiten dio hor:

*«eta arlekin noragabeak eltxo hordituak hiltzen,
eta zuhaitzen beldurrez hirira herbesteratu diren guziak
farolen azpian dardaraka»*

(113. orr.)

Hirian isiltasun geldoa eta astuna nagusi jartzen da, han non denbo-
ra hotsik gabe doan, Moldavaren urgain hormatuaren azpitik ura doan
moduan: «Orain, harriak bakardadean, bakardadea harrietan ere / eta bi-
zitza astiro doa, heriotza bezain ezezaguna.» (113. orr.).

Rainer M. Rilkeren poemagintzari erreferentzia egin behar zaio le-
hen olerki honen azterrena aberasteko. Batetik, Sarrionandiak Rilkeren *So-
netos* a *Orfeo* obra gogoan du honako bertso-lerroan: «Rainer M. Rilke sosa-
ren truke Orfeori poemak eskatzen». Bestetik, begitandu zaigu *poesia
bisuala* izenekoaren eredu izan nahi duela, Rilkek landutakoa hain zuzen
ere. Poesia bisualaren muina gauzak ikusteko ahalmenean datza, ahalmen
hori olerkiaren etsipen espiritualaren katarsia delarik, eta horixe da ko-
mentagai dugun poeman somatzen duguna, leihoak ikusten dituen gauzak
bidaztiaren etsipenaren adierazle diren neurrian: «bizimoduak makalduriko
hitzak, keinu etsituak».

Gorago esan dugu Vladimir Holanen eraginik ere bazegoela, olerki
zenbait janzten duen tonu geldoaz ohartzuz gero. «Hiri zaharretako denbo-
ra» (117. orr.) olerkian, adibidez, honako hau esaten digu: «Errenka doa
bizitza hiri zaharretan / edo, areago, geldirik dago». Eta kontestu honetan
kokatzen ditu bere mundu-ikuskeran berebiziko garrantzia duten pertso-
nariak: eskale elbarria, taroteko eroa, itsua, emagalduek... denak geldi-gel-
dirik hiri zaharretan. «Galderarik ez» (119. orr.) poeman, aldiz, giza abere-
ak ibili badabiltzala esaten du; badago egon, beraz, nolabaiteko oposizioa
Egon/Ibili aditzen inguruan.

Aipatu olerkiak Vladimir Holanen bertso-lerro pare bat dakar,
«Urte batzu geroago amarekin»¹⁶ bere poemaren hasierako bertso-lerroak,
hain zuzen ere; epigrafe hau «Eguberriak» (121. orr.) poeman ere ager-
tzen zaigu, baina pixka bat moldatuta: «errautsak suaren lekuan». Guri

¹⁶ Vladimir Holan: «Urte batzu geroago amarekin» in SARRIONANDIA, J.: *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*. Iruñea. Pamiela, 1985, 258. orr.

begiratu zaigunez, behin sua amatatuz gero sortzen den iluntasuna agerian jarri nahi izan da. Iluntasun giro horren barruan, noraezaren berraipamena datorkigu: «hiltzeko xokoren bila noragabetuko direla animalia eriak». Denborari buruzko ikuspegiak den bezanbatean, T.S. Elioten eragina ikus daiteke¹⁷. Eta egutegiaren irudiaz baliatuz geroa eta oraina iraganari lotzen zaizkiola esaten zaigu. Ideia hau, etsipenari lotuta dagoena oso, olerki guztian zehar ikus daiteke, eta esan genezake desesperantza areagotzeko erabiltzen dela:

«(...) *badakit ez dela deus berririk helduko
urteen ber nekadura eta ber bizimodua salbu.*»
(121. orr.)

«*Ezer berririk ote dakar egun berriak?*
Ez. (...)»
(121. orr.)

120. orrialdeko titulurik gabeko poeman, bidaztiak bidaiari ere egi-ten dio erreferentzia. Herrialde batetik bestera ibili ondoren «dama zahar eta zabal bat da Europa» dio ondorio gisa. Hau da, Europa bera ziutatea da; batetik, zaharra da: historiaz da zaharra eta berorren literaturaren historia eta tradizioa ere, horregatik, luze askoa. Zabala ere bada, lurralde ezberdin ugari bere baitan duelarik, eta lurralde bakoitzak ere bere literatura edukiko du. Era honetan, bidaztiak bere bidaiaren zioa biziki zalan-tzan jartzen du.

2.7. *Iragan dira horik oro: Deserria*

Bidaiaren akabuko kaian gaude, deserrian. Hemen, kontzentrazio antzo, aldez aurretik behatu gauza dexente batzen zaigu: denbora, etsipena, iluntasuna, isiltasuna, hautsa, zirkulua... Zirkuluaren ideia eta, ondorioz, irtenbiderik ez egotea, halabaina, lehen mailakoa izango da. Edozelan ere, azken zati honetan, ia ia olerki bakoitzak berealdiko garrantzia hartzen duenez, nolabaiteko ordenu jarraitzeari ekingo diogu.

Lehenik eta behin, Samuel Beckett idazle britaniarraren epigrafea agertzen da. Adieraztearen edo isiltasunaren aukerak dira aipuaeren ardatza

¹⁷ «Dembora presentea eta dembora pasatua / Acaso daude presente biac dembora futuroan, / Eta dembora futuroa contenituric dembora pasatuan. / Dembora guztia presente baldin badago eternalqui / Irremedible da dembora guztia. / Gertha ahal içan cena abstractione bat da, / Bakarrik speculationezco mundu batetan / Possibilitate perpetual baten ancean dirauena.» in ARESTI, G., SARRIONANDIA, J., JUARISTI, J.: *T.S. ELIOT euskaraz*. Donostia. Hordago, 1983, 65. orr.

osatzen dutenak. Olerkiari zein idazleari berari dagokion arazoa plazaratu du lerroon bidez, isiltasuna, *adierazteko halabearrarekin* batera nahasian presentatuz.

«Portu Zaharra» (131. orr.) olerkian marinela portuan nahi du atrekatu baina portu zaharra atxitu ezina da, bien artean laino dagoelako. Portura heltzea nahi dugu, hau da guk desiatzen duguna, baina bitartean lainoa dago. Gero eta atzeman ezinagoa da, gainera, batetik harkaitz barrenean gaudelako, asagotik begira, bestetik kaian lehertzen diren uhainen soinua —gidaria suerta zitekeena— doi-doi entzuten delako eta, azkenik, ilunabarra abailtzen ari delako itsas hegian, portu zaharrean. «Gu eta gure irudimenaren artean lanbroa» bertsoleerroak epigrafearen bidez azaldu-tako ideia bera plazaratzen du: adierazteko ezintasuna.

Poeman portua atzemateko zailagotze prozesu bat dago, zelanbait esatearren. Bere asmoen aurrean sortzen zaizkion oztopoak adierazi egiten dizkigu. Asmo horiek, batez ere, asmo literarioak eta asmo pertsonalak dira¹⁸.

«Hautsia» (132. orr.) poeman, seguruenik, ideia monolitiko eta hautsi ezinez ari da, esateko jada ez direla esititzen eta dugun oro hautsia dela¹⁹. Areago, hautsia gabe duguna ere hauskorra dela:

*«gauza bat soilik
hautsia gabe
hire irudi
hauskorra»*
(132. orr.)

Olerkia bera ere, bere alderdi formalari begiraturaz, guztiz hautsia da. Era honetantxe, bada, zerbait eraikitzeke garaian egoera hautsi horri amore eman eta onartu behar ukanen dugula esaten zaigu. Hautsiaren ideia izenbururik gabeko hurrengo poeman ere errepikatzen da:

*«matrailak zuriak
begiak kristalezkoak
haustear»*
(134. orr.)

¹⁸ Ikus ONDORIOAK atala.

¹⁹ Interesgarria litzateke oso «Hautsia» olerkia Bernardo Atxagaren beste olerki batekin erkatzea, non Sarrionandiak erabilitako ideia bera agertzen den: «Hautsi da ANPHORA» in *Etiopia*. Bilbo. Pott, 1978.

«Iragan dira horik oro» (133. orr.) poema honetan deusez eginiko bideekin erkatzen dira bere bidaiaren ikusitakoak (bere oroitzapenak, hau da, bere orain arteko bidaiaren gorabehera, ontsalaz, poetari lagundu beharko liezaioketenak), esanez horik oro iragan direla eta arrasto ttipiak besterik ez dituztela utzi: «gure begininietan arrasto tipi bat, / elorri xuri tipi bat utzirik».

Berriro ere, bidaiaz akiturik dagoela ematen du, etsitua bailegoan.

«Izu zaharren gordelekuak» (135. orr.) poeman, olerkaria, oraingo honetan, orain arteko nondik norakoari buruz ari da, bidaiaren berri erruz emanez. Giro ilun, ezatsegin eta nahikoa degradatua ageri zaigu, bidaiaria Europako ostatu itzaltsuetan etzanik iragandako gauekin parekatu egiten delarik: «estaldura zarpailtsuko ohe kraskakorretan etzanik, gauetik gauera hainitz gorputzek moldaturiko zuloetan», olerkariak oraindik oroitzen dituenak. Hortaz, bada, izu zaharren gordelekuak bera bezala ibili diren idazle zaharren gordeleku edo mundu literarioak lirateke, beren-beregi esaten duelako hura ez dela ohe kraskakorrotan gaua pasatzen duen lehena, beste zenbaitzuk moldaturiko zuloetan ari delako lo egiten, ez azkena, beste norbaitek ere berak moldaturiko zuloan lo egingo duelako²⁰.

«itzaltzen ari / bizitza / etxe handietan argia bezala / gelaz gela» (136. orr.) bertso lerroek nagusi jartzen ari den iluntasuna dute adierazten. Eta honi loturik «Hona hemen» (138. orr.) poema, zeinean noraeza agertzen zaigun:

*«eta gauetan —beruneko gau luzeetan—
hunta ikustezenen ehizan
edo balizko itzulbideren baten bila»*

Ez dago itzulbiderik.

Gai bera «Etxe zaharreko armiarma» (142. orr.) olerkian dugu: ez dago itzulbide posiblerik, bidaiaria jarraitu beharra dago, errukigabeko denborak ere bultzatzen gaituelako, irtenbiderik ez dagoelako: «tantoka paretterlojuaren hotsa».

«Testamendua» (139. orr.) olerkiaren bidez bidaiaria jasotako bere gustokoena ematen digu; aurretik aztertu irudiz eta motiboz betea da: «ene bizitzan eta ene bidaiaren ingurubilean bildu ukan dudanaren zerrenda igortzen derautzut ene heriohurbileko bakardadetik». Hastapeneko «Bitakora kaiera» olerkiarekin lotzen da, honela bere bidaiaren zirkulua osatzen delarik.

²⁰ Ohean moldatu zuloen irudi honek 121. orrialdeko egutegi zahar eta berriaren irudiarekin du zerikusia eta, era berean, T.S. Elioten denbora kontzepzioarekin.

3. Ondorioak

Zatien azterketan ikusi ahal izan dugunez, bidaia etsipenez beteta dago, eta giro horrek amaiera arte dirau. Izan ere, bidaia amaigaitza dugu honako hau, narratzaileak nabigatzen jarraituko bait du. Etsipen kutsu horretan zer ikusi handia du Beckett literaturgilearen ikuspegiak: honek zioen zerbaitek be-
netakoa ezin dela esan, gauza guztiak esanda daudelako, eta horregatik mutu geratu zen. Eta gure olerkariak ere, adierazi ezinaz konturatzen denean, «Tes-
tamendua» (139. orr.) olerkia idazten du. Hala ere, guzti hau bidaiarekin bat gertatzen zaio bidaiariari. Gure ustetan, etsipenaren zioa bidaiaren oinarrian bertan ere badago. Orain arazoa litzateke jakitea zergatik egiten duen bidaia, zerk bultzatzen duen olerkaria aurrera jarraitzen.

Hona hemen zer zioen Joseba Sarrionandiak gure tradizioari buruz:

*«Euskaldunen aberria euskara da, aberria ez da hizkuntza bakarrik, baina hizkuntza bai, eta hizkuntzaren bidez jaso ditugun tradizio guztiak. Uga-
tzetik eman zaizkigu, mihingainera, erroak eta euskal arbasoen kultura. Baina euskaldunik gehienoi ez zaigu euskara eta euskal tradizioa berez eta bakarrik eman, herri zanpatuan eta ia deseginean sortu garenez gero erdara eta erdal kultura eman zaizkigu haren gainetik.»²¹*

Argi dagoenez, kinka txarrean ikusten du Sarrionandiak euskal tradi-
zioa, funtsean, eduki ere euskal tradizioarik ez daukagulako²². Zer egin hon-
en aurrean? Bada, sakrifiziozko hautaketa bat egin eta euskal tradizioa
errekuperatu:

*«Euskera umildu eta urritua, gero, urteen buruan, hautatu egin behar
izan dugu²³ erdararen aldean, hau da, sakrifizio pertsonala aukeratu
dugu euskararen alde, euskal tradizioa errekuiperatzeko, eta Euskal He-
rria datekeen horrek munduan herri gisan iraun dezan.»²⁴*

Aurrera egiteko, ostera, ez gara isolamenduan ito behar. Euskaldun
irauteko ez ditugu galdu behar erroak eta gure tradizioarekiko fideltasuna,
baina beste aldetik unibertsalitateira irekirik egon behar dugu, beste tradizioeta-
ra²⁵. Euskal kulturak, berak dioenez, ezaugarriak badu, hori sinkretismoa

²¹ Joseba Sarrionandia: *Ni ez naiz hemengoa*. Iruñea. Pamiela, 1985, 145. orr.

²² «Bitakora kaiera»n ere, bidaztiak bidea aurkitu nahi du laberintoan. Baina, lokarriarik ez du, tradizio-
rik ez du.

²³ Hemendik, gero, «Sorterri hautatua»ren ideia. Berak egina du hautaketa, hots, euskara, horixe delako
euskaldunon aberria. Sorterriaren irudia, beraz, euskararen irudia bezala interpreta liteke.

²⁴ Joseba Sarrionandia: *op. cit.*, 145. orr.

²⁵ *Ibid.*, 145-146. orr.

eta irekitasuna da, beste tradizioekin elkartu behar delarik. Beste modu batetan esanda, euskal tradizioaren beraren izatea sinkretikoa denez, ez itxia, berezko ezaugarri hori berori dela potentziatu beharrekoa; alegia, unibertsalitateari irekitzea.

Perspektiba honetan dago Sarrionandiaren hautaketa, bidaia etengabearena, *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan, konkretuki, Europako literatura zahar eta modernoan barna eginikoa²⁶. Guri dagokigun liburuz den hainbatean, baina, beste problematika bat ere badugu: *ni*-aren bilakuntza, edo, hala nahi bada, *ni* poetikoaren bilakuntza. Bilakuntza tradizio ezak eraginda legoke. Hona hemen bere berbetan:

«Orain, iadanik ez dago gramatika poetikorik, poeta bakoitzak asmatu eta moldatu behar du bere poetika (...) Poemagintzari buruz hausnartu egin behar du poesia egin nahi duenak, bere poetika sortu behar du. Tradiziorik ez duenez, aurkitu eta hautatu behar du berea.»²⁷

Dakusagunez, Sarrionandiaren perspektiban, alde batetik, tradizio eza dago, eta bestetik, poetika berriaren beharra (bere *ni*-a edo ahots poetikoa). Eta binomio hau honetan konkretatzen da liburuan, hots, tradizioak ezin diola laguntzarik eskaini eta beste herrietako izarren, idazle handien beharra somatzen duela, lainoaren lurraldean (Sorterri hautatuan, euskal literaturan) hegazti desnorabidetuek zohardiaren beharra duten bezala. Hortik bere etsipena, uste duelako zirkulutan dabilela, iparra galdurik, portua atzeman ezinik²⁸. Edo bestela (Ikus Greziari dagokion zatian «Etxera itzuli» olerkia), portura arribatu eta etxera itzultzean ohartzen da ikasitakoak, irakurritakoak, balio ez diola, etxeko atearen sarraila eta are zura ere aldatu egin direlako²⁹. Etsipen kutsu hau (hortik iluntasunaren eta noraezaren nagusigoa liburuan zehar) inoiz ez zaigu ondotik aldenduko lan honetan.

²⁶ Greziari zegokion zatian esaten genuen, «Etxera itzuli» olerkiari ari ginela, bidaian ohian beltzetako habia ustelduak baino ez dituela erideiten; alegia, Europako literatura zaharra. Literatura modernoari erreferentziak ere agerikoak dira poemarioan, Pessoaen, Holanen, Elioten... eta abarren esaldiak ardura parafraseatzen bait ditu. Lisboako karriketan, gainera, bere maitearen bila, desiatzen duenaren atzetik dabilenean noragabetutako kaiolak idoroko ditu: mundu literario itxia.

²⁷ SARRIONANDIA, J.: *op. cit.*, 186. orr.

²⁸ Ondorioz, lan honen 25. orrialdean esaten genuenez, asmo literarioak (euskal poetikan bide berriak zabaltzekoak) eta asmo pertsonalak (bizitzan eta literatura munduan bere NIa eta bere burua aurkitzekoak, bere baitakoa izateko) eragotziz.

²⁹ Agi denez, izan nahi zituen altxorrekin topo egiteko bidaia ez diola balio dioenean, euskal literaturarako eta bere buruarentzat baliozkoa zatekeen aurkikuntza hura dauka gogoan gure olerkariak.

4. Aipatu autoreen poesia zenbait

4.1. Charles Baudelaire

El crepúsculo

*He aquí la noche encantadora, amiga del criminal;
viene como un cómplice, a paso de lobo; el cielo
se cierra lentamente como una gran alcoba,
y el hombre impaciente se cambia en fiera.*

*¡Oh, noche, amable noche, deseada por aquel
cuyos brazos, sin mentir, pueden decir: Hoy
hemos trabajado!-Es la noche quien serena
los espíritus que devora un dolor salvaje,
es sabio obstinado cuya frente se entorpece,
y el obrero doblado que recobra su cama.
Mientras tanto los demonios malsanos en la atmósfera
se despiertan pesadamente, como gentes de negocios,
y golpean al volar los postigos y el alero.
A través de los destellos que atormenta el viento
la prostitución se enciende en las calles;
como un hormiguero abre sus salidas;
por todos los sitios abre sus salidas;
por todos los sitios se abre un oculto camino,
igual que el enemigo que intenta un ataque;
se mueve en el seno de la ciudad de fango
como un gusano que roba al hombre lo que éste come.
Se oye aquí y allá las cocinas silbar,
los teatros latir, las orquestas retumbar;
las mesas redondas, en las que el juego hace las delicias,
se llenan de mujerzuelas y estafadores, sus cómplices,
y los ladrones, que no tienen tregua ni misericordia,
van pronto a comenzar su trabajo, ellos también,
y forzar dulcemente las puertas y las cajas
para vivir algunos días y vestir a sus amantes.
Recógete, alma mía, en este grave momento,
y cierra tu oreja este bramido.
Es la hora en que los dolores de los enfermos se recrudecen.
La sombría noche los toma por el cuello; terminan*

*su destino y van hacia la sima común;
el hospital se llena de nuevo de sus suspiros. —Más de uno
no vendrá más a buscar la sopa perfumada,
junto al fuego, a la noche, junto a un alma amada.*

*¡Todavía la mayor parte no han jamás conocido
la dulzura del hogar y jamás vivido!*

Iluntzea

*Hona hemen iluntze atsegina, kriminalen laguna;
Otso urratsez dator, konplize gisa; zerua
Astiro astiro hersten da, logela handiaren gisan,
Eta gizon ezinegona basa animalia bihurtzen da.
Oi, iluntzea, gau amoltsua, «gaurkoa ia kunplitu dugu»
Gezur gabe esan dezaketen besoeak
Hain antsiatua! Gauak sostengatzen ditu
Oinaze latzetan urratzen diren arimak, eta
Burua ankertzen ari zaion jakintsu burugorria, eta
Oherantza doan langile makurra.
Gainera, giro horretan, deabru kaltegarriak daude
Eta, negoziante gisa, lizunki dabilta
Eta, hegats egitean, teila ezkinak eta leiatilak jotzen dituzte.
Haizeak zalantzan ezartzen dituen argien artean
Prostituzioa ari da iratzartzen kaleetan barrena;
Xinaurritegiak bezala irekitzen dira gordelekuak;
Alde guztietan marrazten da bere bide ezkutua,
Etsaia erasotzeko zalantzan balego bezala;
Eta lokatzez beteriko hiriaren erdian higitzen da
Gizonari jaten duen guzia kentzen dion Harra bezala.
Mila sukaldetako xistua entzuten da, non nahi,
Teatroen ikara eta orkesten oihartzuna;
Joku mahai xarmangarrien etxeak
Putek eta beren lagun estafadoreek betetzen dituzte;
Orduantxe doaz lapurrak, sekula bake
Ez atsedetik hartu gabe, beren lanetarantza,
Ateak eta diru kaxak bortxatuzera,
Bizitzen segitzeko eta beren amoranteak hornitzeko.*

*Ai, arima, pentsatu egin behar duzu une larri horretan,
Ez entzun, ez amore eman oihu andanari.
Orduantxe larritzen dira erien oinazeak.
Gau ilunak eztarria hartzen die; halantxe
Amaitzen zaie fatua, eta guzian leizera doaz;
Halako hasperenez beterik dago ospitala. Bateren batzu
Faltatu egingo dira salda lurrintsuaren orduan,
Gauean, sutondo epelean, maitalearen alboan.*

*Eta gehienek ez dute sekula ezagutu
Etxearen gozotasuna, ez dute ezagutu bizitza!*

4.2. T.S. Eliot

The Burial of the Dead

*April is the cruellest month, breeding
Lilacs out of the dead land, mixing
Memory and desire, stirring
Dull roots with spring rain.
Winter kept us warm, covering
Earth in forgetful snow, feeding
A little life with dried tibers.
Summer surprised us, coming over the Starnbergersee
With a shower of rain; we stopped in the colonnade,
And went on in sunlight, into the Hofgarten,
And drank coffee, and talked for an hour.*

Burnt Norton

*Time present and time past
Are both perhaps present in time future
And time future contained in time past.
If all time is eternally present
All time is unredeemable.
What might have been is an abstraction
Remaining a perpetual possibility
Only in a world of speculation.*

4.3. Vladimir Holan

Urte batzu geroago amarekin

*Etxeko sua errautsez estaltzeko
Tenorea da...
Zeure ama zaharraren eskuek eginen dute,
Artega daude eskuak, baina beren ikara da
Oraindik ere babesaren
Nehurria... Haien urrumadaz lokartzen zara
Eta gustora senditzen... Ohitura, berotasuna, atsegina, eta lasaitasuna.
Halako paradisu animaltasun baten adorez,
Erregaluak jaso eta erregaluak eskaini,
Zeure buruaz ere ahaztu:
Gezurra dirudi berrogei urte dituzunik.
Eta egiaz, egunsentian negar egiten baduzu
Haurrek lotan sekula
Barre egiten ez dutelako egiten duzu,
Negarretan lehertzen bait da beti... Haurra!*

Tras muchos años en casa de mamá

*Este es el momento en que hay que cubrir de cenizas
el fuego de la chimenea...
Lo hacen las manos de tu vieja madre,
manos que tiemblan
pero cuyo temblor sigue siendo
medida y comprobación... Acunado por ella te duermes
y estás bien... Costumbre, calor, gozo y calma,
familiaridad del aliento de algo que es casi paradisiacamente animal
este ser entregado y oferente,
cuando a ti mismo te pierdes,
niegan que tengas más de cuarenta años.
Y, en efecto, si sollozas cara a la mañana
es solamente porque el niño
nunca se ríe mientras duerme,
sino que llora siempre... ¡Niño!*

Nieve

*La nieve empezó a caer a medianoche. Y es verdad
que donde se está mejor es sentado en la cocina
aunque sea la cocina del insomnio.
Allí hace calor, te preparas algo, bebes vino
y miras por la ventana la eternidad familiar.
Por qué ibas a torturarte por saber si nacimiento y muerte
son sólo puntos,
puesto que la vida no es una línea recta.
Por qué ibas a atormentarte al ver el calendario
y a preocuparte por el valor que está en juego.
¿Y por qué ibas a admitir que no tienes
ni para zapatos para Saskia?
¿Y por qué ibas a envanecerte
de que sufres más que los demás?*

*Aunque en la tierra no existiera el silencio
ese nevar lo habría inventado ya en su sueño.
Estás sólo. Ningún gesto. Nada de qué hacer gala.*

4.4. Jon Mirande

Pigalle

RAYMONDERI

*Zohardi zan,
Pigalle-zeruan izarrak
phiztu ziran
—puten sabelean arno beltza botz-kantuz.
Nihaur kaleetan
aitzina, horditu ezina
puten arno kantariaz...
... egarri,
zure bilha, Raymonde
gabats ederra, barez bar.
Raymonde, soin humoa, mahats humel
Pigalleko mahastietan,
arno indazu nire ahorako
zazpigarren goian izarrak
dakhuzkidan!*

4.5. Konstandinos Kavafis

Itaca

*Cuando emprendas tu viaje hacia Itaca
debes rogar que el viaje sea largo,
lleno de peripecias, lleno de experiencias.
No has de temer ni a los lestrigones ni a los cíclopes,
ni a la cólera del airado Posidón.
Nunca tales monstruos hallarás en tu ruta si tu
pensamiento es elevado, si una exquisita
emoción penetra en tu alma y en tu cuerpo.
Los lestrigones y los cíclopes
y el feroz Posidón no podrán encontrarte
si tú no los llevas ya dentro, en tu alma,
si tu alma no los conjura ante ti.
Debes rogar que el viaje sea largo,
que sean muchos los días de verano;
que te vean arribar con gozo, alegremente,
a puertos que tú antes ignorabas.
Que puedas detenerte en los mercados de Fenicia,
y comprar unas bellas mercancías:
madreperlas, coral, ébano, y ámbar,
y perfumes placenteros de mil clases.
Acude a muchas ciudades del Egipto
para aprender, y aprender de quienes saben.
Conserva siempre en tu alma la idea de Itaca:
llegar allí, he aquí tu destino.
Mas no hagas con prisas tu camino;
mejor será que dure muchos años,
y que llegues, ya viejo, a la pequeña isla,
rico de cuanto habrás ganado en el camino.
No has de esperar que Itaca te enriquezca:
Itaca te ha concedido ya un hermoso viaje.
Sin ella, jamás habrías partido;
mas no tiene otra cosa que ofrecerte.
Y si la encuentras pobre, Itaca no te ha engañado.
Y siendo ya tan viejo, con tanta experiencia,
sin duda sabrás ya qué significan las Itacas.*

La ciudad

*Dijiste: «Iré por otra tierra y otro mar.
Habrá alguna ciudad mejor que ésta.
Es cada intento mío una condena escrita.
Como un cadaver yace mi corazón sepulto.
¿Hasta cuándo mi espíritu seguirá en este atasco?
Adonde quiera que la vista vuelva, en donde mire,
veo las ruinas negras de mi vida aquí
en donde tantos años pasé, arruiné y perdí.»*

*Ni nuevas tierras hallarás, ni hallarás nuevos mares.
La ciudad te perseguirá. Y rodarás por estas mismas
calles. Y en estos mismos barrios has de envejecer,
y encanecer entre estas mismas casas.
Siempre abocarás a esta ciudad. ¿Ir a otra parte?
-no lo esperes-, ya no hay barco ni ruta para ti.
Al destruir tu vida en este rincón mínimo,
para toda la tierra la arruinaste.*

Ziudadea

*«Beste lurralde eta beste itsasoetarantz abiatuko naiz.
Ziudade hau baino hoberen bat egongo da nonbait.
Hemen ere ahalegin bakoitza kondenaturik dago
Eta ene bihotza ehortzirik datza hilotza bezala.
Noiz arte iraungo ote du ene gogoak itoaldi honetan.
Begurada edonora itzuli, edonora soegin, han aurkitzen ditut
Hemengo ene bizitzaren hondakinak, hainbeste urte
Pasatu, hondatu eta galdu ditudan leku honetan» esan duzu.*

*Ez duzu lurralde berririk aurkituko, ez itsaso berririk.
Ziudade honek jarraituko zaitu. Eta kale berberetan
Ibiliko zara. Eta hauzo berberetan zahartu beharko zara.
Eta etxarte berberetan urdinduko zaizu ilea.
Ziudade berberera abiatuko zara beti. Beste inorako
Biderik, ez itsasuntzirik, ez espero zuretzat.
Zure bizitza zoko hestu honetan hondatu duzularik
Lur guziarentzako ere suntsitu egin bait duzu.*

4.6. Fernando Pessoa

*Nunca he guardado rebaños,
y es como si los guardase.
Mi alma es como un pastor,
conoce al viento y al sol
y va de la mano de las Estaciones
continuando y viendo.
Toda la paz de la naturaleza sin gente
viene a sentarse a mi lado.
Pero yo me pongo tan triste como una puesta de sol
lo es para nuestra imaginación,
cuando refresca en el fondo de la llanura
y se siente que la noche ha entrado
como una mariposa por la ventana.*

*Pero mi tristeza es sosiego
porque es natural y justa
y es lo que debe haber en el alma
cuando piensa que existe
y las manos cogen flores sin que ella se dé cuenta.*

*Con un ruido de cencerros
más allá de la curva del camino,
mis pensamientos están contentos.
Sólo me apena saber que están contentos
porque, si no lo supiese, en vez de estar contentos y tristes
estarían alegres y contentos.*

*Pensar es incómodo como andar bajo la lluvia
cuando el viento arrecia y parece que llueve más.
No tengo ambiciones ni deseos.
Ser poeta no es una ambición mía.
Es mi manera de estar sólo.*

*Y si a veces deseo,
por imaginación, ser corderillo
(o ser todo el rebaño*

*para andar esparcido por toda la cuesta
siendo muchas cosas felices a la vez),
es sólo porque siento lo que escribo a la puesta del sol,
o cuando una nube pasa la mano por cima de la luz
y corre un silencio por la hierba.*

*Cuando me siento a escribir versos
o, paseando por los caminos o los atajos,
escribo versos en un papel que hay en mi pensamiento,
siento en las manos un cayado
y veo una silueta mía
en lo alto del otero,
mirando a mi rebaño y viendo mis ideas,
o mirando a mis ideas y viendo mi rebaño,
y sonriendo vagamente como quien comprende lo que se dice
y quiere fingir que lo comprende.*

*Saludo a todos los que me lean,
quitándome el sombrero ancho
cuando me ven a mi puerta
apenas la diligencia descuella en lo alto del otero.
Les saludo y les deseo sol,
y lluvia, cuando la lluvia es necesaria,
y que sus casas tengan
al pie de una ventana abierta
una silla predilecta
en la que se sienten a leer mis versos.
Y que al leer mis versos piensen
que soy algo natural:
por ejemplo, el árbol antiguo
a cuya sombra, cuando eran niños,
se sentaban de golpe, cansados de jugar,
y se limpiaban el sudor de la cabeza ardiente
con la manga de su guardapolvos a rayas.*

4.7. Dylan Thomas

In
the spin
Of the sun
In the spuming
Cyclone of his wing
For I was lost who am
Crying at the man drenched trone
In the first fury of his stream
And the lithtnings of adoration
Back to black silence melt and mourn
For I was lost who have come
To dumbfounding haven
And the finding one
And the high noon
Of his wound
Blinds my
Cry.

5. BIBLIOGRAFIA

- ALDEKOA, I., «Joseba Sarrionandiaren poesia: Itxasoa gartzelatua» in *Hegats*, 1. zenb., abendua, 1989.
- ATXAGA, B., «Epilogoia, sasoi zaharrak gogoan» in *Narrazioak*, Donostia, Elkar, 1983.
- ARESTI, G., SARRIONANDIA, J., JUARISTI, J., *T.S. Eliot euskaraz*, Donostia, Hordago, 1983.
- BAUDELAIRE, CH., *Obra completa en poesía*, Madrid, Libros Río Nuevo, Ediciones 29, 1976.
- CAVAFIS, C.P., *Poesía completa*, Madrid, Alianza 3, 1982.
- ELIOT, T.S., *Collected poems 1909-1962*, London, Faber and Faber, 1990.
- EVANS, I., *Breve historia de la literatura inglesa*, Barcelona, Ariel, 1985.
- HOLAN, V., *Dolor*, Madrid, Hiperión, 1986.
- KORTAZAR, J., «Joseba Sarrionandiaren Izuen gordelekuetan barrena» in *Jakin*, 23. zenb., 1982.
- KORTAZAR, J., *Laberintoaren oroimena*, Donostia, Baroja, 1989.
- MIRANDE, J., *Ene Jainko-Eidol zaharra, Lur!*, Donostia, Elkar, 1984.
- PESSOA, F., *Antología de Alvaro de Campos*, Madrid, Editora Nacional, 1984.
- SARRIONANDIA, J., *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo, Bilbo Aurrezki Kutxa, 1981.
- SARRIONANDIA, J., *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Iruñea, Pamiela, 1985.

- SARRIONANDIA, J., *Ni ez naiz hemengoa*, Iruñea, Pamiela, 1985.
SARRIONANDIA, J., *Marinel zaharrak*, Donostia, Elkar, 1987.
SARRIONANDIA, J., *Marginalia*, Donostia, Elkar, 1988.
THOMAS, D., *Collected poems 1934-1953*, London, Everyman Classics, 1989.
VALVERDE, J.M. y RIQUER, M. de, *Historia de la literatura universal*, Barcelona, Planeta, 1986, VIII-IX. aleak.







OHIZKO BURDIN MANUFAKTURAKETA ETA GIZARTE HARREMANAK¹

FERNANDO MARTINEZ RUEDA

Sarrera

Azken hogei urteotako euskal historiografian nabarmenak izan dira historia ekonomikoaren arloan emandako aurrerapausoak. Ohizko eredu ekonomikoari dagokionez, jakin badakigu zeintzuk izan ziren ezaugarri funtsezkoenak, baita sektore bakoitzeko mendez mendeko bilakaera ere². Aurrerakada handia izan bada ere, historia ekonomikoan esparru garrantzitsua geratzen da ikertzeko. Gaur arte buruturiko lanetan ikuspegi makroekonomikoa izan dugu nagusi. Hori dela eta, sarritan ahaztu egin da ekonomia eta gizartearen artean dagoen lotura estua. Behin bilakaera makroekonomikoa ezagutuz gero, behar beharrezkoa dugu «mikroekonomiaren» ildotik abiatzea, zeinetatik ekonomia gizarte mailan koka dezakegun³. Beraz, eredu eta datu orokorretatik

¹ Nire esker beroenak Joxein Etxezarretari eta Bittor Uragari, beren laguntzarik gabe ezinezkoa izango bait zitzaidan artikuluxka hau idaztea. Hala ere, egon daitezkeen akatsak egileari bakarrik dagozkio.

² Euskal historiografia ekonomikoaren balorazio zehatz eta oraintsua, ikus, J. AGIRREAZKUENAGA: «Historia ekonomikoaz: eraberritzearen urratsak», in *Jakin*, 55. zenb., Donostia, 1989, 49-67. orr.

³ 1985ean P. FERNANDEZ ALBADALEJOK XVIII. mendeari buruzko historiografia aztertzerakoan nabariari ageri zuen ikerketa mikroekonomikoen beharra; ikus, P. FERNANDEZ ALBADALEJO: «El País Vasco: algunas consideraciones sobre su más reciente historiografía», in *España en el siglo XVIII. Homenaje a Pierre Vilar*, R. Fernández ed., Barcelona, 1985, 547-548. orr.

abiatuz, produkzio antolakuntza eta gizarte harremanetara hurbildu nahi izango genuke edota, hitz batean esanda, gizakiaren bizimodura.

Bestaldetik, errejimen zaharreko burdin industriari buruzko ikerlanak ia burdin totxoaren produkzioaz soilik arduratzen dira —arestian aipatutako ikuspuntu makroekonomikoaren ondorioz—, gainerako manufaktur produkzioa (iltze, lanabes, ferra, ainkura, armak., etab.) baztertzen delarik. Argi dago ohizko produkzio egituran burdin totxoarenak izan zuten nagusitasuna⁴. Hala ere, beste burdin manufaktur iharduerek garrantzi handia zuten zenbait eskualdetan. Adibidez, Bizkaiko hego-ekialdeko zenbait herritan «*ferraje*» eta iltzearen produkzioa lehen mailako ekintza ekonomikoa zen, garaiko dokumentazioak argi eta garbi adierazten duenez:

«Despues de las fabricas de fundir fierro y martinetes ocupan en Vizcaya la primera atencion, por cuanto contribuyen al consumo de la primera materia las fraguas menores dedicadas a la fabricacion de herraduras y clavos de herrar en cuyo trabajo se ocupan en Vizcaya en las villas de Ochandiano, Villaro, anteiglesia de Ceanuri y Ubidea...»⁵

Bizkaiko ekonomian burdin transformazioaren metalgintza ez zen garrantzi gutxiko iharduera. Aitzitik, R. URIARTEren datuen arabera, XIX. mendearen hasieran, urtean 20.000 kintale burdin manufakturatzen ziren Bizkaiko fanderia, gabi eta errementaldegietan, hau da, burdin produkzioaren %40a⁶.

Industria hau Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait eskualdetan kokatzen zen bereziki. Araban, Aramaio eta Legutianoren aldean errementaldegi ugari zegoen. Gipuzkoan, ezaguna da Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Deba Araneko armagintzak eta burdin transformazioaren manufakturaketak zuten garrantzia. Lehen aipatu dugunez, Bizkaiko ekialdean kokatzen zen industri mota hau. Jaurerrian errementaldegiei dagokienez, badakigu alde menditsu edo haran estuetan kokatzen zirela, zeinetan lur baldintzak ez ziren egokiak uzta oparorik biltzeko. Horrez gain, Gazteizerako bide nagusietan sakabanatzen ziren errementaldegiak⁷.

⁴ L. M.^a BILBAO-E. FERNANDEZ DE PINEDO: «Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco (1700-1850)», in *La economía española al final del Antiguo Régimen*, Madrid, II, 165. orr.

⁵ Bizkaiko Jaurerriko Artxibu Nagusia (B.J.A.N.), Bizkaiko Diputazioa, 224 erreg., 1819.

⁶ R. URIARTE: *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaína (1700-1840)*, Bilbao, 1989, 189. orr.

⁷ Ondo aztertuta dagoen Arratia eskualderako, bost errementaldegi zeuden Artea eta Diman, eta beste hamar, gutxi gora behera, Zeanuri, Areatza eta Ubidean. Hau da, Arratiatik Gazteizerako bide nagusietan kokatzen ziren. Ikus, F. RAMOS: *Bases para la transición al capitalismo en el País Vasco. La sociedad de Arratia-Nervión en el siglo XVIII*, Deusto, 1989, 178-179. orr.

Artikuluxka honen helburua metalurgintza tradizional hau hobeto ezagutzea dugu. Baina gure helburua ez da errejimen zaharreko produkzioa neurtzea soilik, ikuspegi horretatik lan bikain bat burutu bait da⁸. Lehen aipaturiko mikroekonomi azterketaren ildotik abiatuz, produkzio antolakuntza, merkatal zirkuitoa, errementaldegien jabegoa eta harreman soziolaboralak azaldu nahi ditugu. Helburu hau bete ahal izateko, tokiko historiaren metodologia dugu aproposa. Beraz, Bizkaian metalurgintzari trinkoen emana zegoen herria aukeratu dugu adibide eta eredu gisa, hau da, Otxandio.

Otxandio Jaurreriko ekialde muturrean XIII. mendean sorturiko hiribildua dugu. Gorbea eta Anboto mendizerrak lotzen dituen lur garaietan datza. Beraz, Otxandio Araba eta Bizkaiaren arteko pasabide geografikoa da. Bere sorrerak —XIII. mendean sorturiko beste hiribilduenak bezala— helburu zehatz bati erantzuten dio: Meseta eta Kantauri kostaldearen arteko merkatal harremanak finkatu eta garatzea. Merkatal ardatz honen barne izanik, Otxandiok manufaktur iharduera eta merkatal harremanetan oinarritutako eredu ekonomikoa garatu zuen, nekazal iharduerak beti urriak izan zirelarik. Honen lekuko, hona hemen otxandiotarrek beraiek XIX. mendearen hasieran esaten zutena:

«Porque los frutos son escasísimos en el ingrato clima de Ochandiano y muchos años los pierden todos a causa de la intemperie y los yelos que caen aun en verano (...). Todavía viven vecinos en este pueblo que le conocieron sin ninguna agricultura y solo se cogía en las heredades yerba para la crianza del ganado vacuno y manzana.»⁹

Laburbilduz, esan dezakegu Otxandiok arestian aipaturiko metalurgintzaren kokapen baldintzak zeharo betetzen dituela: lur menditsua izanik, bere jangai produkzioaren urritasuna, ferra eta iltzearen esportazioaren bidez orekatzen zuen. Baina has gaitetzen aztertzen Otxandioko metalurgintzaren garapena eta bere ondorio sozialak.

Produkzioaren egitura eta bilakaera

Otxandioko metalurgintza berezitasun handikoa zen, ia produkzio osoa ferrarena eta iltzearena soilik bait zen. Beraz, bi motatako errementaldegia

⁸ R. URIARTE, *op. cit.*

⁹ B.J.A.N., *Estadísticas Territoriales*, 4 erreg. Otxandioko nekazal ekonomiaz ikus, F. MARTINEZ RUEDA: *Otxandio: Historia y Patrimonio Monumental*, prentsan.

zeuden hiribilduan, hots, iltzezin eta ferraginak, azken hauek ugariagoak bide zirelarik.

Industria honen funtsezko ezaugarria bere kanpoarekiko menpekotasuna dugu, hau da, produkzioa kanpo eskarietara mugaturik zegoen. «*Ferraje*» eta iltzeak Gaztelako merkatuan saltzen ziren. Ondorioz merkatal harreman gorabeheren parean bilakatu zen gure industria. Ikus dezagun, bada, Otxandioko manufakturaketaren mendez mendeko bilakaera.

Burdin manufakturaketaren garapena Erdi Aroko azken mendeetan hasi zen, Meseta eta Kantauri Itxasoaren artean zegoen merkatal ardatza indartzearekin batera. XVI. mendean harreman komertzialak biziagotu egin ziren. Ondorioz badirudi Otxandioko ekonomiak bultzada nabaria ezagutu zuela¹⁰. Mende honen bigarren erdialdean, berriz, krisialdiaren lehenengo seinaleak somatzen dira eta mendearen bukaeran bizibide krisia lehertu zen hiribilduan:

«Corre grandisima esterilidad de pan y hambre y considerando estar en grandisima (...) y riesgo de perecer los vecinos particulares de la villa y moradores de ella.»¹¹

Hurrengo mendean Otxandioko manufakturaketak krisialdi ekonomiko orokorraren eragina jasan zuen. Gaztelako geldiuene demografikoa, nekaztze prozesua eta buraskitasunaren areagotzea zirela medio, burdin eskaria murriztu egin zen¹². Gainbehera sakon honek XVIII. mendearen lehenengo hamarkadara arte iraun zuen. Hain zuzen ere, urte haietan oso une larriak ezagutu zituen bertako metalurgintzak, honako testu honek argi eta garbi adierazten duenez:

«Se avia reconocido la poca estimacion que tenia el raxe y clabo que se fabrica en esta villa y el baxo precio que oy tiene assi en la ciudad de Vitoria como en otras partes de que se a seguido minorar los caudales y haberse quedado algunos en el ultimo tranze de la pobreza y ir despoblado esta villa por no tener otra manufactura que la de este oficio.»¹³

¹⁰ XV eta XVI. mendearen hasierako datuak oso urriak badira ere, jakin badakigu hazkunde demografiko handia ezagutu zuela hiribilduak. Honen lekuko 1523an kontzejuak esan zuena: «Otro si por como dicho es el Pueblo de la dicha villa sea aumentado e los frutos del Beneficio (hamarrena) se an acrecentado...» Bizkaiko Eleizaren Histori Artxibua (B.E.H.A.), Otxandioko Santa Marina, 10-IV, 140-141. orr.

¹¹ Otxandioko Udal Artxibua (O.U.A.), 7 liburua, 1599ko Martxoaren 10a.

¹² L. M. BILBAO-E. FERNANDEZ DE PINEDO, *op. cit.*, 151-152. orr.

¹³ O.U.A., 4 aktazko liburua, 136. orr. 1709ko Azaroaren 30a.

XVIII. mendean zehar joera ekonomikoa erabat aldatu zen. Barne merkatua eta merkatal harremanak berpiztu ziren eta Otxandiok galdutako bere manufaktur ahalmena berreskuratu egin zuen. Honen lekuko, 1726 eta 1728ean bi burdinolen eraikuntza dugu¹⁴. Mende honen bigarren erdialderako baditugu datu zehatzak produkzioa neurtzeko. 1799ean hiribilduan 14.200 kintale burdin lantzen ziren urtean. Garai hartan 82 errementaldegietatik, 50 arduratzen ziren ferra egiteaz, beste 32ak iltzezinak zirelarik¹⁵. Datu hauek Bizkaiko produkzio orokorraren testuinguruan jartzeko, aipa dezagun XVIII. mendearen azkenean Bizkaia osoan 30-25.000 kintale burdin manufakturatzen zirela urtean¹⁶. Beraz, nabaria da Otxandiok zuen nagusitasuna. Saillkapen soziolaboralari dagokionez, populazio gehiengoa aritzen zen errementaldegietan: 1800ean guztira 429 auzo izanik, 269 ziren artesauak, hau da, langilegoaren % 62,7a; artean, 142 auzok bakarrik ziharduten nekazal lanetan, % 33,09a¹⁷.

ERREMENTALDEGI ZENBATEKOEN BILAKAERA, 1780-1850¹⁸

Urtea	Zenbatekoa	Datuaren Iturburua
1780	66	<i>Iturriza</i>
1795	50	« <i>Propios y Arbitrios</i> »
1799	82	« <i>Frutos y Manufacturas</i> »
1803	75	« <i>Plan de fábricas</i> »
1810	54	« <i>Estadística Territorial</i> »
1849	80	<i>Madoz</i>

Baina XVIII. menderako Ingalaterran industri iraultza hasia zen bitartean, Otxandioko metalurgintzak ohizko teknologia erabiltzen jarraitzen zuen. Atzerapen teknologikoak baldintzatu zuen XIX. mendeko bilakaera eta azkenik bere behin betiko porrotaren arrazoi bihurtu zen. Birmoldaketarik gabe industri tradizionalak ez zeukan ez konponbiderik, ez etorkizunik.

¹⁴ F. MARTINEZ RUEDA, *op. cit.*, 73. orr.

¹⁵ B.J.A.N., *Frutos y Manufacturas*, 1. erreg.

¹⁶ R. URIARTE, *op. cit.*, 189-191. orr.

¹⁷ Bizkaiko Diputazioaren Artxibua (B.D.A.), Reales órdenes, 123. Hala ere, errejimen zaharreen nekazal eta manufaktur iharduerak osagarriak dira eta sarri askotan langileek bietan iharduten zuten.

¹⁸ Datu hauek kritikan jarri beharra dago, hain epe laburrean ezinezkoa bait da honelako gorabehera. Kontutan har dezagun aipatutako datu askoren iturburua fiskala dela, non estalketak normalak izaten diren. Hala ere, Otxandioko produkzio kapazitatearen adierazgarriak direlakoan gaude. Gure ustez XVIII. mendearen azkenean eta XIX.aren hasieran hiribilduan 80 errementaldegi aldera zeuden.

Hala eta guztiz ere, XIX. mendearen lehenengo erdialdean produkzioa mantendu egin zen¹⁹. Oraindik 1860ean errementaldegi berri bat eraikiko zen hiribilduan²⁰. Hamabi urte lehenago, 1848ean, Otxandioko alkateak, idea ilustratu anakronikoaz, irakaskuntzan oinarrituriko konponbidean sinesten zuen, are gehiago, industriaren etorkizun oparoa espero zuen:

«El Señor Alcalde Presidente hizo presente el lamentable estado de abandono en que se encuentra en esta villa no solo la instrucción primaria de la niñez, sino tambien la de la generalidad de los adultos y la necesidad inmensísima que hay de impulsar este ramo no solamente en obsequio del interes privado de los individuos sino es tambien del interes general de la poblacion, *si su importancia fabril y mercantil ha de elevarse algun dia al importante grado de prosperidad a que sin duda es llamada y que solo la falta de conocimientos a esta parte ha podido entorpecer*».²¹

Hortaz, ohizko artesagintzan erroturiko eredu ekonomiko honek 1860 hamarkadara arte iraun zuen. Burdingintza tradizionalarekin konparatuz, beranduago ezagutu zen behin betiko krisia arrazoi desberdinengatik. Alde batetik, XIX. mendearen lehenengo erdialdean oso landua zen burdin produkzioarekiko arantzel politika oso mesedegarria izan zen. Hain zuzen ere, 1826eko arantzelak debekatu egin zuen bere sarrera, barne merkatua Peninsulako produktoreen eskutan utziz. Ondorengo arantzelek ere, 1841 eta 1849koek hain zuzen, babestu zuten metalurgintzaren produkzioa²². Bestaldetik, Bizkaian 1849az geroztik sortu ziren lehenengo lantegi siderurgikoek burdinolen produkzioarekin konpetitzen zuten —abantaila osoz, noski—, eta ez errementaldegien produkzioarekin, beranduago sortu bait zen Bizkaiko metalurgintza kapitalista.

Edozein modutan ere, 1860az geroztik manufakturaketaren krisia nahitaezkoa zen. Berrikuntza teknologikorik ez eta egoera ekonomiko

¹⁹ R. URIARTEren eritziz burdin manufakturaketaren behin betiko krisia XVIII. mendearen azkenean eta XIX. mendearen hasieran kokatu behar da. Produkzio datuak urriak badira ere, guk ez dugu interpretazio hori zuzena denik uste. Otxandioko produkzio ahalmena neurtzeko adierazle demografikoa erabiltzen badugu, nabaria da XIX. mendearen lehenengo erdialdeko hazkundera. Otxandioko 1800-1857 urteen arteko hazkundera demografikoaren tasa Bizkaikoa baino handiagoa izan zen eta populazioaren gehiengoak industria tradizionalan iharduten jarraitu zuen. Ikus, F. MARTINEZ RUEDA, *op. cit.*, 224-225. orr.

²⁰ Urte hartan auzo batek larralde txiki bat erosi zion Udalari errementaldegi bat eraikitzeko asmoz. O.U.A., 11 aktazko liburua, 225. orr.

²¹ O.U.A., 10 aktazko liburua, 86-87. orr., 1848ko Urtarrilaren 9a.

XIX. mendearen lehenengo erdialdean olagizonek, aldiz, behin eta berriro plazaratu zituzten haien keak, arantzel mesedagarrien eske eta burdinolen gainbehera salatuz. Beraz, badirudi burdinolen eta errementaldegien bilakaera ez zela parekoa izan.

²² L.M. BILBAO-E. FERNANDEZ DE PINEDO, *op. cit.*, 196. orr.

berriarekiko desgokitzea gero eta nabariagoa zen. Hala nola jabe askok beren errementaldegiak itxi behar izan zituzten. Lanean segitu zutenek, salneurriak merkatu behar izan zituzten, beren produktuak saldu ahal izateko, etekinak murriztuz. Prozesu honetan produkzio kosteak eta prezioak parekatuz joan ziren.

PRODUKZIO KOSTEAK 1878an²³

Burdin kintale	82erreal
«Escarbilla»	7«
Tresneria	1«
Hiru soldata	31,50«
Guztira	121,50«

Burdin kintalea, errementaldegian landu eta *ferraje* bihurtu ondoren, 128,25 errealetan saltzen zen Gazteizen. Produkzio kostea eta salneurriaren aldea, hau da zazpi erreal, Gazteizerako garraioan gastatzen zen. Beraz ohizko metalurgintzaren jarraipena ezinean zebilen, errementari batek salatzen zuenez:

«Ni aun a este precio podre competir con mis contrarios por las bajas de generos que han hecho en Castilla y viendo las pérdidas que me resultan en las existencias de generos que tengo para despacharlos, que Dios sabe cuándo será (...), he determinado por ahora despedir a los fabricantes de herraje y clavo hasta que vea que determinacion tomar para poder seguir, pues para perder y tener responsabilidad del capital que se tiene que tener en Castilla en las circunstancias actuales, prefiero estar quieto sin mayores pérdidas. Todas las ventajas que podemos sacar en las fabricas son para Castilla y no para nosotros ni para los trabajadores, por lo que este comercio y fabricantes no pueden subsistir.»²⁴

Errementaldegien porrot egiteak ondorio izugarriak eragin zituen bertako gizartean. Jornalariak langabezian geratu ziren eta familia langileen sarrrera ekonomikoak desagertu ziren, premiazko elikagaien eskurapena ezinean jarritz²⁵. Udala saiatu zen konponbideak bilatzen. 1869.ean Diputazioak

²³ B.D.A., Korrejimiento, 1325 leg., 6 zenb.

²⁴ *Ibidem*.

²⁵ 1868. urtetik zailtasunak nabariak dira. Urte hartan jornalariak honako eskakizun hau plazaratu zuten: «Se dio lectura integra de una exposicion suscrita por mas de ochenta vecinos de esta villa en la que piden o bien trabajo en obras públicas o el socorro en especie para no perecer de hambre ellos y sus familias.» O.U.A., 12 aktazko liburua, 165. orr., 1868.eko Azaroaren 16a.

emandako enprestito baten bidez, jornalariak zilegibaso eta herri-lanean ihardun ziren. Hala ere, goseteak iraun zuen eta Udalak langabezian zeuden familiei ogi eta indabaz osaturiko janari bat ematea erabaki zuen. Hurrengo testu honek ondo adierazten ditu familia jornalarien krisialdiko bizimodua eta zailtasunak:

«En atención a las infinitas solicitudes que se dirigían a la corporación municipal en demanda de socorro, tanto para los enfermos como para las familias necesitadas que no podían procurarse su sustento, convocó el día doce del mismo a la Junta de Beneficencia y Sanidad a fin de idear el medio más oportuno para socorrer a los indigentes y evitar el que pululasen por las calles pordioseando como de continuo se dedicaban y se resolvió (...) que se facilitase a las familias que se hallasen en ese triste estado una ración de pan y alubia condimentada con tocino.»²⁶

Konponbide hauek behin behinekoak ziren eta ohizko manufaktura-ketaren krisia, berriz, estrukturala. Horrez gain, udal haziendak ezin zion luzaroan aurre egin egoera honi eta berehala utzi zion doahiniko janariak emateari. Azkenik otxandiotar langile askori geratu zitzaion irtenbide bakarra emigrazioa izan zen, bilakaera demografikoak azaltzen duenez.

BILAKAERA DEMOGRAFIKOA, 1857-1920

Urtea	Biztanlegoa
1857	1744
1878	1852
1887	1842
1897	1494
1910	1324
1920	1128

Ohizko manufakturaketa eta industria kapitalistaren artean Otxandio desindustrializazioaren etendura ezagutu zuen. Haustura honen ondorioak familia jornalariak pairatu zituzten, haien artean gosea, gaixotasuna eta emigrazioa nagusitu zirelarik. XIX. mendearen azken laurdenean familia

²⁶ O.U.A., 12 aktazko liburua, 184. orr., 1869.eko Martxoaren 20a.

langileen bizi baldintzak izugarri larriagotu ziren. Baina zergatik ez zen igaro ohizko industria erdutik industria kapitalistara? Galdera honi erantzuteko nork eta nola kontrolatzen zuen manufaktur produkzioa ezagutu behar dugu. Gai honek egitura ekonomiko tradizionalan zerikusi handia dauka merkatal zirkuitoarekin.

Burdin manufakturaketa eta merkatal zirkuitoa

Arestian esan dugunez Otxandioko metalurgintzaren garapena merkatal harremanek baldintzaturik egon zen beti. Hiribildua Gaztela eta kostaldearen arteko ardatz komertzialaren ibilgune izateak manufaktur iharduerak eragin zituen alde batetik, baina bestaldetik kanpoko merkatuen menpekotasuna ekarri zuen, elikagai eta burdin hornidurari zein produkzioaren merkaturatzeari dagokienez. Beraz, metalurgintzaren zirkuito komertziala garrantzi handiko aztergaia dugu eredu ekonomiko honetan.

Hala nola Otxandio bide-hirixka bezala eratu zen²⁷ eta Erdi Arotik Otxandio-Durango-Bilbao-Bermeo errepidea Bizkaiko garraio bide nagusienetariko bat zen²⁸. Errejimen zaharrea zehar bidea garapen ekonomikorako premiazko baliabide bezala agertzen zaigu, 1674 urteko honako testu honek, beste batzuren artean aukeratuta, ondo baino hobeto adierazten duenez:

«Siendo lugar y villa del mayor transito y passo deste muy noble señorío por donde se conducen portean y es el acarreo de los biberes y mantenimientos de trigo, cebada y vino, queso, aceite, jabon y frutos de tierra de Castilla y de que carece este muy noble Señorío en los que recoge en su partido y territorio para otros que estan distantes a la parte de los puertos de la mar y anteiglesias sus vezinas, por ser la primera que confina con la Raya y termino de jurisdiccion con la provincia de Alava.»²⁹

Otxandioko metalurgintzari dagokionez, bi sailetan bereiz dezakegu merkatal zirkuitoaren funtzionamendua: burdin hornidura eta produkzioaren merkaturatzea.

Errementaldegiek burdin totxo ugari kontsumitzen zuten, lehengai inportante eta garestiena izanik. Hiribilduan bazeuden bi burdinola, XVIII. mendearen hirugarren hamarkadan eraikitakoak. Ola hauek arazo asko

²⁷ Hiri-morfologiaz ikus, F. MARTINEZ RUEDA, *op. cit.*, 242-251. orr.

²⁸ J.A. G.^a CORTAZAR eta beste: *Vizcaya en la Edad Media*, Donostia, 1985, 204. orr.

²⁹ O.U.A., 3 aktazko liburua, 98. orr. XVIII. mendeko Durangotik Gazteizerako bidearen eraikuntzak baieztatzen du merkatal ardatz honen garrantzia.

izan zuten herri-basoetako ikatza lortzeko³⁰ eta beren produkzioa ez zen aski errementaldegiak hornitzeko. Beraz, inguruetako oletan produzituriko burdina behar beharrezkoa zen. Adibidez, Diman zeuden bost burdinolen produkzio gehiena hiribilduan lantzen zen³¹. Horrez gain, normala zen Arratia eta Durangoaldeko ere burdintoxoaren lantzea.

Burdin horniduraren kanpoarekiko menpekotasunak gatazkak sortarazi zituen, ekoizle eta merkatarien interesak kontrakoak bait ziren. Alde batetik jabe xume eta errementari maisuek araudi garbia eta estua eskatu zioten udalari, lehengaiak garesti ez zitezten. Bestaldetik merkatari eta pilatzaileek burdina salerosteko libertade osoa nahi zuten eta maiz askotan uko egin zieten kontzejuko erabakiei. Liskar honek usuarioan funtsaturiko herri kulturaren eta merkatal ekonomiaren berrikuntzaren arteko burruka isladatzen du. Gatazka prozesu honetan kapital komertziala sendotuz joan bazen ere, herri erresistentziak nabariak izan ziren.

Burgeseriak prezioen arteko aldeetatik lortzen zituen mozkinak, bai zonalde desberdinetakoak, bai eskualde bateko prezioen igoera artifizialki eraginez, merkatuaren kontrola eta espekulazioaren bidez³². Azken irabazpide honek protesta ugari sortarazi zituen, herriaren «ekonomia moralaren» kontrakoa bait zen³³. XVII. menderako lehenengo tirabiren berri dugu. Hiribildura heltzen zen burdina udal «errenterian» biltzen zen, ekoizleek salneurri tasatuan erosten zuten bitartean. Baina pilatzaile eta errementari dirudunek eskuratu egiten zuten, geroago espekulatzeko asmoz. 1655ean ekoizle xumeek beren kexak plazaratu zituzten³⁴. Udalak errementari ez zirenei burdina erostea debekatu zien, baina birsaltzaileek jarraitu zuten

³⁰ XVIII. mendearen lehenengo erdialdian ikatzaren hornidurarengatik tirabirak suertatu ziren errementaldegi jabe eta olagizonen artean. Errementaldegi jabeek lortu zuten zilegitako ikatza berenganatzea: «Que todo el carbon haia de ser para los fragueros de dha villa y no pueda sacar ni extraer carga ni porcion fuera de ella ni menos dar para las ferrerias de ella pena de cinquenta ducados de vellon.»

³¹ B.J.A.N., Caminos vecinales, 1. erreg., 27. leg.

³² A. ITURBE: «Contribución a la historia local del poder», in *Tokiko historiaz lehen ibardunaldiak*, Donostia, 1988, 185-199. orr. Historialari honek, Durango hiribilduari dagokionez, sakonki astertzen ditu merkatarien jokabidea eta bere ondorioak udal poterean.

Honako testu honek Otxandioko pilatzaileen zeregina argitzen du: «Algunos vecinos de la villa valiendose a veces de su capital disponible y a veces por el credito que el mismo capital les proporciona se han dedicado a rebendedores de fierro.»

³³ E.P. THOMPSON: «La economía moral de la multitud en la Inglaterra del siglo XVIII» in *Tradición, revuelta y consciencia de clase. Estudios sobre la crisis de la sociedad preindustrial*, Barcelona, 1979, 62-134. orr.

³⁴ O.U.A., 2 aktazko liburua, 90 eta 96-97. orr.: «Se avian quejado muchas personas desta villa diciendo que los fierros que a la rentería del fierro desta villa avian benido a bender y benian los compravan algunas personas que no tenian fraguas ni obligacion de proverlas para solo revender el dho fierro encareciendo el precio y no dejando comprar a los que las tales fraguas y obligacion de preverlas tenian.»

burdin espekulazioarekin. Udal politika zalantzarria eta anbigua izan zela esan dezakegu. Alde batetik badirudi herriaren «ekonomia morala» errespetatu egin zuela, agian herriak eraginez, agian herria kontrolatu ahal izateko. Baina bestaldetik, behin eta berriro eman ziren kexek pilatzaileen ekintzarekiko onarpena isladatzen dute. Errejimen zaharreko udal poterea beti kontzesio eta errepresioaren arteko jokabidean mugitu zen³⁵. Dena den, XVII. mendeko udal erabakiak, itxuraz behintzat, merkatari eta espekuladoreen ekintzak murrizten saiatu ziren. Honen lekuko 1678an idatzi ziren Ordenantzak ditugu, zeintzuk mugatzen duten merkatal kapitalaren jokabidea:

«Que si viniere fierro a vender al Renteria desta villa sean preferidos en la compra los maestros de Raje y clavazon y que ninguno lo contradiga pena de seyscientos marabedis.

Que ninguna persona que no tubiere fragua pueda comprar fierro en la renteria de esta villa.»

Adibide zehatz bat aztertuz hobeto ulertuko dugu esandakoa. Ignacio Odrioso maisu iltzeginak 1068 erreal zor zion Juan de Gordobili 1691ean, hain zuzen ere urte hartako alkatea zenari. Odrioso eta bere emazteari jarritako ordain betebeharen artean honako hau ezarri zitzaien:

«Nos obligamos a gastar durante este tiempo de su casa y lonja (Alkatearenak) todo el fierro y trigo necesario para el sustento de nuestra casa y familia y oficiales y demas personas que portearen carbon y de satisfacer su porte y conduzimiento y lo demas de su valor segun que esta asignado y señalado en esta villa y de corresponder de ocho en ocho dias con el valor y precio de dho fierro y trigo.»³⁶

Beraz, poteretsuek mailegutzaren eta pilatzearen bidez burdin hornidura kontrolatzen bazuten ere, herri eraginak ostopatu zuen haien jokabidea. Kontzejuaren politikak bi klaseen arteko harreman, tirabira eta oreka erakusten ditu.

XVIII. mendean kapital komertziala sendotu egin zen eta ekoizle xume eta merkatarien arteko gatazkak areagotu egin ziren. 1760 hamarkadan koiuntura ekonomikoa larriagotu egin zen, uzta txarrak eta prezioen igoera izan zirelarik. Ondorioz Gipuzkoan 1766ko Apirilean lurjabe eta merkatarien kontrako mutina piztu zen, prezioen beherapena eta tasatzea

³⁵ A. ITURBE, *op. cit.*, 192. orr.

³⁶ Bizkai Probintziako Artxibo Historikoa (B.P.A.H.), Baltasar de Eguia eskribaua, 3400 I leg., 182-183. orr.

lortuz. Matxinada Bizkaiko zenbait herritara hedatu zen eta Otxandiora ere bai. Une aproposa zen gari eta burdin pilatzaileen gehikeriak gelditzeko, gari egokia txiroen «moral ekonomikoa» nagusitzeko eta ez-zilegizat jotzen zen pilatzaileen jokabidearekin bukatzeko. Udalak, herriaren eraginez, Apirilaren 26an burdin birsalmentaren kontrako erabakiak hartu zituen:

- Burdinaren birsalmenta debekatu egin zen.
- Errementari ez zirenei burdina erostea debekatu zitzaien.
- Burdin mailegutzak lehendabiziko erosketaren prezioan egin behar ziren.³⁷

Baina bi hilabete geroxeago, mutina erreprimitu eta giroa baretua zenean, udal akordio hauek ezabatu egin ziren. Are gehiago, hurrengo urtean XVII. mendeko ordenantzak aldatu egin ziren, burdin hornidurari dagokionez, merkatal kapitalaren jokabidea baimenduz:

«Que todo vezino o forastero traficante en fierro haya de conducirlo para su venta a la renteria de la nominada villa de Ochandiano en donde a de permanecer con el genero por espacio de veinte y quatro horas dentro de las cuales sean preferidos en la compra los dueños de fraguas y pasado dho termino sea facultativo a cualquier vecino comprarlo aunque no maneje fragua y comerciar con ello. Que a ningun vezino se prohiba comprar fierros para revender en la mencionada villa de Ochandiano o fuera de ella aunque no manejen fragua comerciando con ello libremente.»³⁸

Errementaldegi jabe nagusiek osatzen zuten Errejimentua³⁹. Haiei inoiz ez zien kalterik egin merkatarien ekintzak, dirua bait zuten burdina edonoiz erosteko. Horrez gain, ez zegoen muga zehatzik jabe nagusi eta merkatarien artean. Honen adibidea arestian aipaturiko Juan de Gordobil alkatea dugu. Bera errementaldegi jabea izanik, burdin eta garia komertziatzen aritzen zen ere⁴⁰. Jabe xumeak eta errentariak izan ziren kaltetuenak, dirugabeziak pilatzaileen esku eta mailegutzapean uzten bait zituen.

Burdin horniduraren ondoren, produkzioaren merkaturatzeak osatzen zuen manufakturaketaren merkatal zirkuitoa. Kapitalismo aurreko ekoizleek ez zuten baliabiderik merkatu urrunetara ailegatzeko. Produkzioa

³⁷ O.U.A., 5 aktazko liburua, 1766ko Apirilaren 26a. Horrez gain, elikagaien birsalmenta ere debekatu egin zen.

³⁸ O.U.A., 13. liburua, 1767ko Udal Ordenantzak.

³⁹ F. MARTINEZ RUEDA: «El poder municipal en la villa de Otxandio en el Antiguo Régimen», in *Tokiko Historiaz Lehen Ihardunaldiak*, Donostia, 1988, 256-280. orr.

⁴⁰ B.P.A.H., Baltasar de Eguia eskribaua, 3400 I leg., 182-183. orr.

merkatu urrutietara bideratua zenean kapital komertzialak ekoizpena biltzen zuen merkaturatzeko, produkzio baliabideen jabe ez izanik, ezta produkzio prozesuan parte hartzen ez zuelarik. Beraz, ohizko industria bi klase sozialen arteko elkarrekintzan errotzen zen: ekoizleak eta merkataria. Harreman ekonomiko honetan produkzio faktore nagusia merkatuaren kontrola zen, produkzio baliabideen jabeagoa bigarren mailakoa izanik⁴¹. Ekoizpenaren eta kontsumoaren prozesuen tartean zegoen merkatalgoaren partaidetzak artesauen dependentzia ekarri zuen. Ikus dezagun, bada, zenbaterainoko menpekotasuna pairatzen zuten errementariak.

Otxandioko ekoizpena Gazteizera garraiatzen zen, bertan sal zedin. Kontzejuak ekintza hau ere arautzen zuen, garraio prezioak jarriz eta produktore guztien saltzeko eskubidea defendatuz:

«A la tal persona que el dho fierro diere el que lo comprare y tuviese que llevar a Vitoria el arraxe o clavo le a de dar para que en su cabalgadura o cavalgaduras se lo lleve en llegando la tal carga a doze arrobas le a de pagar de porte ocho reales y no mas.

Que las dhas cargas las han de llevar de los que se las diesen repartiendo entre los fabricantes igualmente sin conducir las de uno solo.»⁴²

Beraz, manufaktur eredu honetan errementariak ez ohi zuen merkatarien aginduen arabera lan egiten. Ekoizleek kapital komertzialarekiko gutxienezko autonomia kontserbatu zuten, behintzat Gazteizko merkaturan beren produkzioa saltzeari dagokionez. Errementariak, lehengaiak erosi eta landuz gero, eta produkzio baliabideen jabe edo errentaria izanik, bere produktoak saltzen zizkien Gazteizko merkatariei. Hala ere, Gazteiz ibilgunea besterik ez zen merkaturatze prozesuan, bertako komertzianteez benetako merkaturan, hau da Gaztelan, Otxandion produziturikoa banatzen bait zuten. Haiek ziren salerosketaren baldintzak jartzen zituztenak eta ondorioz etekin gehienak lortzen zituztenak ere⁴³,

⁴¹ P. KRIEDTE, H. MEDICK, J. SCHLUMBOHM: *Industrialización ante la industrialización*, Barcelona, 1986, 14. orr.

⁴² O.U.A., 18. liburua, 5. orr.

Hala ere, ekoizle xumeak mailegutzaren bidez handikien menpean gera zitezkeen. Arestian aipatutako Ignacio Odrioso maiu iltzeginaren egoera honen adibide argia da: «Nos obligamos de labrar clavo de herrar del jenero que nos señalare el dho Juan de Gordobil siendo de toda bondad y suficien, assi lo que yo el dho Ignacio pueda trabaxar y labrar como los demas oficiales que tengo y tubiere en la fragua donde yo assistiere en esta villa sin que ambos marido y muger podamos hazer para otra persona ni de vender en otra parte.»

⁴³ Gazteizko merkatariek Gipuzkoako burdin produkzioa ere lontrolatzen zuten; ikus, P. FERNANDEZ ALBADALEJO: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*, Madrid, 1975, 246. orr.

Penintsulako merkatua kontrolatzen bait zuten. 1831ean errementari otxandiotar batek esandakoak Gazteizko merkatariekiko menpekotasuna adierazten du argi eta garbi:

«No hay duda de que en España se da a nuestras fabricas el titulo de fabricas de Vitoria, y asi es que concurren a ella a comprar toda clase de ferreteria y que en ella el lucro siendo la ruina de este Ilustre Solar que depende en su mayor parte de las fabricas de hierro.»⁴⁴

Mozkin nagusia esparru ekonomikotik at geratzen zela kontutan hartuz, teknologian eta produkzio birmoldaketan zituzten oztopoak uler ditza-kegu. Birregituratze prozesuak alde aurretiko kapital metatzea ezinbesteko-koa zuen. Eta kapital metatze hori merkaturatze prozesuan parte hartzearen bidez bakarrik lor zitekeen. Ekoizle handiak bakarrik, produkzioa leku urrutietan ere zuzenki merkaturatzen zutenak⁴⁵ —eta hauek salbuespenak ziren—, gaiak izan ziren industri moderno eta kapitalistara moldatzeko.

Errementaldegia eta jabegoa

Errementaldegia zen Otxandioko manufakturaketaren lan unitatea. Lantegi horietan burdina ferra edo iltze forjaren bidez bihurtzen zen, energia mekanikoa eta kalorifikoa erabiliz. Lantokia eta tresneria oso sinpleak ziren, ingude, hauspo, sutegi, eta mailuak lanabes funtsezkoak zirelarik⁴⁶. Errementaldegi bakoitzean hiru langile aritzen ziren beharrean, bata maisua eta beste biak ofizialak zirelarik. Horrez gain, emakumezkoen lana ere oso garrantzitsua zen, 1803an ehun andreko baino gehiago arduratzen ziren burdina ebaki eta prestatzeaz⁴⁷.

Errejimen zaharreko produkzio baliabideen jabegoa ezagutzeko, datuen urritasuna dugu oztopoa, aro protoestatistikoan murgiltzen bait gara. XVIII. mendeko azken urteetara arte ez dugu datu estatistikorik. Hala ere

⁴⁴ B.J.A.N., Hierros, 1. erreg., 1. leg., «Memorial de Santiago Iturzaeta», 1831ko Uztailaren 4a. Iturzaetak merkaturatze prozesuan Gazteizko merkatarien bitartekoa ezabatzea proposatzen zuen. Bere helburua Bizkaitik bertatik manufaktur produkzioa banatzea zen.

⁴⁵ Ekoizle tradizionalen artean Vicinay familiak bakarrik lortu zuten ohizko manufakturaketatik industri modernorako birmoldaketa. Hain zuzen ere, badakigu 1840an Domingo Vicinayk Otxandioko produkzioa Santanderrera zuzenki merkaturatzen zuela.

⁴⁶ R. URIARTE, *op. cit.*, 181-186. orr.

J.L. LANGARICA eta H.J. AJURIAGERRA: «Otxandioko errementarijeko», *Anuario de Eusko Folklore*, XVIII, 1961.

⁴⁷ B.J.A.N., «Frutos y Manufacturas», 1. erreg.

zenbait adibide eta daukagun informazio eskasa erabiliz jabegoen egoera ezagutzen saiatuko gara oraingoan.

Errementaldegiak, burdinolarekin konparatuz, kapital gutxi behar zuen lan unitatea zen. XVIII. mendearen azkenean errementaldegi arrunt batek 1000-2000 errealeko balio ohi zuen⁴⁸. Ondorioz, jabea ez zen oso konzentratua eta ekoizle xume asko errementaldegi jabeak ziren. 1810 eta 1814ko «*estadística fiskalak*» aztertzen baditugu, bi jabe-talde bereiz ditzakegu: lantegi baten jabeak eta batzuenak.

ERREMENTALDEGIEN JABEGOA⁴⁹

Urtea	Baten jabeak	%	Batzuren jabeak	%
1810	33	61,1	8	38,9
1814	49	56,3	16	43,7

Beraz, errementaldegi bakar baten jabeek kontrolatzen zuten lantegien %60a gutxi gora behera. Errementaldegi batzuren jabeen artean bi edo hiru zituztenak ziren nagusi. Baina handikiak ere bazeuden. Hauen adibiderik argiena Pedro de Anteparaluceta dugu, zeinek XVII. mendean 10 errementaldegi zituen⁵⁰. Hiriko heredentzi sistemak argitzen du jabe xumeen ugaritasuna eta handikien arteko senide harremanak, familiaren ondarea seniperdin banatzen bait zen.

Errementaldegi gehienak jabeek zuzenki hustiratuak ziren. Hala ere, XVIII. mendearen azkenean eta XIX. mendearen hasieran errementaldegien % 20-30a errentarietara esplotatzen zuten⁵¹.

Azkenik, jabetzaz hitz egiterakoan mailegutza aipatu beharra dago, zeren eta ekoizle xumeen zorpetzeak beti arriskuan jarri bait zuen beren jabegoa. Sarri askotan ekoizle xumeek diru mailegua eskatu beharra zeukaten elikagai edo lehengaiak erosteko, zorpeturik geratuz. Mailegu hauen

⁴⁸ O.U.A., 16. liburua, D.A. Basaguren eskribaua, 1797, 135-137 eta 144-146. orr.

⁴⁹ B.J.A.N., «Estadísticas Territoriales», 3 eta 4. erreg.

⁵⁰ O.U.A., 3. aktazko liburua, 153. orr., 1678ko Martxoaren 20a. 1810ko «estadística territorial»aren arabera V. Diaz de Mendibil zen jabe nagusia, lau errementaldegi zituelarik. Handikien arteko senide harremanak ulertzeko, aipa dezagun, adibide gisa, urte hartan D. Diaz de Mendibilek hiru errementaldegi zituela eta F. Diaz de Mendibilek beste bi.

⁵¹ B.J.A.N., «Estadísticas Territoriales», 3 eta 4. erreg.

bahikuntza errementaldegia zen. Beraz, errementariak ezin bazezakeen dirua itzuli, produkzio baliabideen jabegoa galdu egiten zuen⁵².

Industria tradizionalaren lan-gizarte harremanak

Otxandion lan ermandaderik ez bazegoen ere, errementarien artean mailaketa argia zen. Buruan maisu ferragin edo iltzegina dugu; gehienetan errementaldegiaren jabe edo errentaria bazen ere, zenbait maisu soldatapekoak ziren. Bere agintepean bi *ofizialek* egiten zuten lan, beti jornalariak izanik. Azkenik, zenbait kasutan *aprendiz-ikasle* batek laguntzen zuen beharrean, ogibidea ikasten zuen bitartean. Oraingoan soldatapekoen lan baldintzak, bizimodua eta ugazabarekiko menpekotasun eta erresistentziak aztertzen saiatuko gara.

Jornalari eta ugazabaren arteko harremana kontratuaren bidez arautzen zen. Soldatapekoa *aprendiz-ikasle* bezala hasten zen lanean. Ikasgo kontratuek urte batetik lau urtetara irautzen ohi zuten, gehienak urte ta erdikoak zirela. Denbora horretan gaztea ugazabaren etxean bizi izaten zen, ugazabak janari, jantzi eta ohea eman beharra bait zuen. Soldatari dagokionez, kontratuak desberdinak baziren ere, morroiak egindakoaren arabera jasotzen zuen. Beraz, ogibidea ondo ikasi arte ez zuen ezer kobratzen bere lanaren truke. Ikasgo alditik jadanik jornalaria nagusiaren menpean geratzen zen, bion arteko harremanak iraun egiten bait zuen kontratuaren epea bukatua zenean. Morroiak ogibidean jarraitzen baldin bazuen, bi urte gehiago gutxi gora behera nagusi berberarentzat lan egin beharra zeukan, ofizial bezala. Horrez gain, langilea ugazabarekin zorretan geratzen zen, emandako janari, jantzia eta ikasketa ordaindu behar bait zion:

«El aprendiz cuando se despida de la casa de su amo ha de pagarle por razon de enseñanzas, perjuicios y alimentos mil y ochocientos reales de vellón y ha de servir al mismo amo cumplido el tiempo del aprendizaje de oficial en un año por el jornal regular y si dho Francisco Abasolo no pusiese fragua a su cuenta ha de continuar el servicio por dos años y medio mas.»⁵³

⁵² Dokumentazio notarialen azterketak mailegutza eta jabego galtzearen ugaritasuna erakusten du B.E.H.A., Otxandioko Santa Marina, D.A. Basaguren eskribaua, 1786; «Papeles Varios», 16. karpeta. O.U.A., 16 liburua, D.A. Basaguren eskribaua, 1797.

⁵³ *Aprendizaia zein aparejamiento* kontratuak aztertzeko honako dokumentazio notarial hau erabili dugu: O.U.A., 16. liburua, D.A. Basaguren eskribaua, 1797; B.P.A.H., Baltasar de Eguia eskribaua, 3400 I leg., 1691; B.E.H.A., Otxandioko Santa Marina, D.A. Basaguren eskribaua, 1786.

Ofizial eta ugazabaren arteko harremana aparejamiento deituriko kontratuaz arautzen zen. Langilearen soldata ere egindakoaren araberakoa zen. Horrez gain *ofizialak placerajes* direlakoak jasotzen zituen, hau da, 60-90 erreale urtean, XVIII. mendearen azkenean. Kontratuaren iraupena urte bat eta lau urte artekoa zen. Hala ere, aztertu ditugun kontratu-agiri guztietan jornalariak nagusiari dirua zor zion eta bere zorrak ordaindu arte lanean segitu beharra zeukan, nahiz eta kontratu epea bukatua izan. Ondorioz, kontratua itxura juridikoa besterik ez zen eta langilea ugazabaren menpean geratzen zen. Bestaldetik jornalariak ezin zuen inola ere errementaldegitik alde egin kontratuan ezarritako epea bukatu arte, bestela gartzelaratu izango bait zen.

Zorpetzeak eta gartzelamenduaren mehatxuak kapitalismo aurreko eredu ekonomiko honi soldatapeko lan-eskuaren kontrola zihurtatzen zioten. Langilea produkzio unitatera eta bere ugazabarengana loturik geratzen zen, bere askatasuna galduz. Tomas Mendizabal maisu ferraginak Josefa Uretaren errementaldegitik alde egin zuenean, kontratu epea bukatzeko urte bat falta zitzaiolarik, atxilotua izan zen honako argudio hau erabiliz:

«... en cumplimiento de una de las condiciones que se obserba inconcusamente en la fabrica para reducir a semejantes oficiales a que obserben sus tratados y no se excusen de trabajar para sus amos.»⁵⁴

Udal potereak ere hartzen zuen parte jornalarien menperatze prozesuan. Gogora dezagun tokiko agintea errementaldegi jabe handikien esku zegoela. Zenbait udal erabaki langilegoa kontrolatzera bideratuak ziren, lan-eskuaren produktibitate handia lortzeko asmoz. Udal ordenantzak honen adibide argia ditugu:

«Que ninguna persona tenga en su casa a ningun oficial macheador ni clavetero que no sea de su casa y serbicio. Que ningun oficial juegue en dia de labor en taberna ni fuera della cossa alguna.»⁵⁵

Laburbilduz esan dezakegu jornalarien lan baldintzak eta bizimodua izugarri gogorak zirela. Zorpetze, mehatxu eta udal agintearen bidez handikiak talde jornalaria kontrolatzen saiatu ziren. Baina orain soldatapekoen erantzuna nolakoa zen planteiatzea ezinbestekoa dugu. Zapalkuntza manakor pairatzen ote zuten? Lan egin eta jateaz nahiko ote zuten, historiografiak gehiegitan esan duen bezala? Gaur egungo historiografiak, zorionez,

⁵⁴ O.U.A., 16. liburua, D.A. Basaguren eskribaua, 1797ko Urtarrilaren 17a.

⁵⁵ O.U.A., 13. liburua, 1767ko Udal Ordenantzak. Artikulu hauek 1678ko ordenantzetan ere agertzen dira.

talde herritarren protagonismoa berreskuratu du eta gu ildo horri jarraituz jernalarien erantzunak eta jokabidea aztertzen saiatuko gara.

Handiki eta jabe nagusiek ezarri nahi zuten lan diziplinaren kontra, erresistentzia gogor eta euskorra burutzen zuten langileek. Jernalarien kontraktotasun hau eguneroko jokabidean oinarritzen zen, zapalkuntzaren kontra beren ohiturak eta bizitza sozio-kulturala defendatuz. Behin eta berriro konzejuak errepikatzen zuen honelako dekretu hau borroka honen lekuko dugu:

«Dixerón que muchos oficiales y jente de todo genero de trabaxo por no trabaxar y hazer mal daño a sus amos andavan jugando los días de labor, otros pudiendo trabaxar y teniendo habilidad andaban molestando y enfadando la jente y otros trabaxando los días de labor los de fiesta salen a pedir limosna (...); ordenaron, decretaron y mandaron que en adelante se tenga especial cuidado y vigilancia por los señores Justizia para que ninguno juegue los días de labor y solo se permita el que los oficiales de fraguas esten ociosos solamente un día a la semana y fuera del si se hallaren sin trabaxar como jugando sean presos en carcel publica.»⁵⁶

Kontrajarriak diren bi kultura eta balore sistema agertzen zaizkigu. Alde batetik, potereak ezarri nahi duena, hau da, gizakia ekoizle diziplinatu bihurtu nahi duena. Bestaldetik, jernalarien kultur herritarrak ez zuen onartzen agintetik inposatu nahi zen balore sistema. Langileek lanaren aurka aisia kontrajartzen zuten, diziplinaren kontra taberna, jokoak, edaria eta apostua. Jokabide hau ez dugu iharduera indibidualtzat jo behar, talde-elkartasunaren adierazgarritzat baizik⁵⁷. Beraz, poteretik langile alfer eta erreboltaritzat jotzen zena, herri kulturatik jernalariak diziplinatzeke merkatal politikaren aurkako erresistentzia bezala interpreta daiteke⁵⁸. Jernalariak lan aldia familia bizibidearen arabera antolatzen zuten eta ez gainezarritako diziplinaren arabera. Hori dela eta familiaren premia beterik zegoenean, atsedenaldea eta aisia nagusitzen ziren, hau da, nahi izandako lan geldiketa. Poterea jokabide hau aldatzen saiatu bazen ere, jernalariak defendatu zuten beren bizimodua:

«Se tubo presente que muchos oficiales de las fabricas de errage y clavo de esta villa pasaban a la Venta de Gomilaz los días festivos y de labor y se mantenian de día y de noche comiendo bebiendo vino y jugando y dando sospechas de su mal proceder sin que hubiese medios para contenerlos y corregirlos...»⁵⁹

⁵⁶ O.U.A., 5. aktazko liburua, 85. orr., 1743ko Martxoaren 11a.

⁵⁷ P. KRIEDTE..., *p. cit.*, 106. orr.

⁵⁸ E.P. THOMPSON: «La sociedad inglesa del siglo XVIII: ¿Lucha de clases sin clases?, in *Tradición...*, *op. cit.*, 35-39. orr.

⁵⁹ O.U.A., 6 aktazko liburua, 29039. orr., 1804ko Urtarrilaren 28a.





GIZATASUNEZKO BIZITZA-IBILBI- DEAN KIDE

JOSU PENADES

*LUISMARIK ETA BIOK ELKARREKIN HASI GENITUEN TEOLo-
giako ikasketak Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultatean. Hirugarren
mailan, baina berak ikasketok lagatzea erabaki izan zuen. Harez gero ez
dugu elkar ikusi.*

Egia esan, gure artean ez zen aparteko harremanik izan. Honegatik bada, are harrigarriago gertatu zitzaidan joan den astean bere eskutitz bat jasotzea.

Bezpera gaueko ETBko pelikula aitzaki, lehengo goiz batean bulegoan lankideen artean izan zuten elkarrizketaren ondoren kezka bat sortu zit-zaiola eta, itaun hau egiteko bialdu zidan eskutitza: «Nola ikusten duzu zuk gaurko gure mundua eta zein zeregin dauka kristau-teologiak mundu horretan?»

Jarraian doan honako hau izan du nire erantzuna.

Kaixo Luismari.

Izugarri poztu izan naiz zure berri eukitzeaz. Sorpresa izan da niretzat zure eskutitza jasotzea. Ahaztuta eukiko ninduzula uste nuen, beharbada nik neuk zeu zelán izan zaitudanaren ezaugarri izango da uste hau.

(...)

Zintzoa izan behar badut, ezin uka dezaket tupustuan harrapatu nauela zure itaunak. Batetik, zeugandik datorrelako. Ikusten dudanez, urteak garrenean ere beti bezain kezkatu jarraitzen duzu. Bestalde, galdera

horri inoiz ez diodalako neuk neure egitean erantzunik eman; gaur arte nahikotzat jo izan ditut besteek aurkezturiko arrazoiak. Horrela, bada, hausnarketarako aukera bat sortu izan didazu zure itaun horrekin.

Eskutitzean diostasunaz kanpo, ez dakit zein den itaunari buruzko zure interesgunearen sustraia. Parka iezadazu esan nahi dizudana, argi samar adieraztera heltzen ez banaiz batzuetan.

Nik ulertzen dudanez, atal bi ditu zure galderak: nola ikusten dudan gaurko gure mundua, batetik, eta zein zeregin bete dezakeen mundu horretan kristau-teologiak, bestetik. Atalok bereizturik emango dizut nire erantzuna ere.

1. Gure inguruaren bereizgarriei buruzko zertzelada batzuk

Nik hemen azalduko dizudana ez da soziologia-ikerketa bat izango. Ez dut uste hori denik zuk eskatzen didazuna. Horretarako gai ere ez nintzateke izango gainera. Nik *gure munduari* buruz dudan neure ikuspegiaren zertzelada batzuk aurkeztuko dizkizut: ikusten, entzuten, irakurtzen eta bizi dudana osatzen noan gure inguruari buruzko nire ikuspegiaren ardatz nagusiak.

.....


Gaur egun *Mendebaldea* deritzona osatzen duten herrialdeen sorburua *Ilustrazioan* datza. Honen eraginez Mendebaldearen berezitasunik nabarmenena Modernitatea litzateke.

Modernitate honen bilakaera dela eta, berriz, gaur egun badira egoenezak. Hauek jarrera nagusi bitan sailka daitezke: batetik *postmodernismoa* eta, bestetik, *neokontserbadurismoa*.

Honez gain, ezin ahaztu modernitatearen garapenean zehar geroago eta zoliago entzuten diren Mendebaldeko eta Mendebaldetik kanpoko *behartsuen* dagoeneko eztarri garramatuen oihuak.

Eta azkenik, modernitatearen eragin zuzenagatik ez bada ere, honek zerikusirik baduela uste izanik, aipatu beharrekoa da gure munduan gaur egun nabari den *abertzaletasunen irakina*.

Hau litzateke berba soltez gure inguruari nik egindako argazkia. Ikus dezakezunez, eskema erraza du (nahiz eta errealitatea, jakina denez, nahikoa konplexuagoa izan).



1.1. *Modernitatea*

Ilustrazioaren izpirituak zeharkaturik oratu izan da modernitatea. Uste osoa dauka arrazoimenean. Arrazoimena erabiltzeko ausardia aldarrikatuko du, Kant-i jarraituz. Bere esanetan, arrazoimenaren erabilpenaz jadedetsi ahal izango dira pertsona askea eta gizarte zuzenak.

Pertsonaren eta gizartearen hazkuntzabide-teoria honen harira beren beregi etorri izan ziren zientzia eta teknika berriak hedapena eta industriaraultza, gizarte eta ekonomia-garapenean oinarrituriko utopia ereneraziz.

Eginbide honi jarraituz, Modernitateak aurreko gizaldietan endekaturita izan ziren hainbat eta hainbat baloreen onuragarritasunaz ohartarazi zuen. Hona hemen eurotariko batzuk: giza-eskubideak, demokrazia, kritikotasuna, giza-duintasuna, askatasuna, zuzentasuna, historia-konkizientzia..., eta hauen arabera lortu izan ziren lan-etekin hazkuntza, produktibideen garapenari esker; hezkuntza-aukeren zabalkundea, komunikabideen zuzperketa etab.

Guzti honek pertsonaren eta gizartearen heldutasunaren aldeko apustua egin izan zela adierazten du, etorkizunari adi itxaropen osoa izanik.

Baina, historian zehar ondo baieztatu izan den legez, pertsonak edota gizadiak eraikitakoa ongaitzez osaturik izatearen deduz markaturik dagoenez, modernitateak eskeinitako egitasmoari ere arrakalak aurkitu izan zaizkio.

Unamunok, adibidez, arrazoimen hutsa hutsala dela esango zukeen. Gogor plantatzen zen adimen hutsaz pentsatzen zutenen aurka. Pentsatu, pertsona osoa jokoan jartzen delarik, buruaz, bihotzaz, gogoaz... bizitzaz pentsatu behar dela esango zuen Unamunok¹. Ez zuen arrazoi faltarik honetan: bizitza gogotan ez daukanak bikoizkeria elika lezake arrazoimen hutsaz hausnarturik. Begira ostera 68.eko belaunaldikoei: irudimenaren eta sormenaren aldeko ziren orduan; gaur, berriz, kritikatzeko zuten burgesi

¹ «Cuántas veces no cabe decir aquello de

para pensar cual tú, sólo es preciso
no tener nada más que inteligencia.

Hay personas, en efecto, que parecen no pensar más que con el cerebro, o con cualquier otro órgano que sea el específico para pensar; mientras otros piensan con todo el cuerpo y toda el alma, con la sangre, con el tuétano de los huesos, con el corazón, con los pulmones, con el vientre, con la vida. Y las gentes que no piensan más que con el cerebro, dan en definidores; se hacen profesionales del pensamiento.» (UNAMUNO, Miguel de. *Del sentimiento trágico de la vida*. Madrid, Espasa-Calpe S.A., 1980, 36. orr.).

jarrera haren ezezik aberats berrien erakusgarririk egokienak bilakatzen dira. Zer esan gura du honek: bizitzen zutena eta pentsatzen zutena, nahi izaten zutena eta ahoz azaltzen zutena... ez zetozeela bat? arrazoimenez zehaztu bai baina beraienganatu gabeko baloreak oihukatzen zituztela?

Arrazoimen hutsaren aldeko ustea murrizten hogeitamargarreneko hamarkadan hasten da pentsalarien artean; horra hor adibidetzat Frankfurt-eko Eskola (M. Horkheimer, Adorno...). Baina dagoeneko gaur jendetzarik gehienek jartzen dituzte kolokan Ilustrazioaren pentsabide-ardatzak. Lausotu egin da arrazoimenarekiko, demokraziarekiko, askatasunarekiko, kritikotasunarekiko... begirada, eta kilin-kolan dira hiru mendetan zehar Mendebaldeko hiritarren buru-bihotzen bultzagarri izan diren harrotasun osasuntsuz iragartzen ziren ahobeteko berbak.

Gauzak honela, modernitatearenganako armintasuna eta egoneza adierazten duten jarrera nagusi bi landatu izan direla esan daiteke: *postmodernismoa* eta *neokontserbadurismoa*.

Ikus dezakezunez, Luismari, ez naiz bat ere orijinala berbok aipatzerakoan. Orain, nik hemen nahi nukeena ez da postmodernismoaren pentsalariak (Vattimo-k, Lyotard-ek, Kundera-k...) eta neokontserbadurismoaren pentsalariak (D. Bell-ek, S.M. Lipset-ek, M. Novak-ek...) diotenaren laburpen bat egitea; postmodernismoa eta neokontserbadurismoa jarrera (bizitzari oratzeko edo bizitza bizitzeko motibazioaren ondorena) bezala adituz (ez horrenbeste ezagupidez hausnarturiko pentsabide legez), jarreraren ezaugarri batzuk aurkeztea baino (nahiz eta batzuetan ezinbestekoa gertatu baten edo bestearen pentsabidearen zehaztasunen batzuk egitea, gehiago neokontserbadurismoari dagokionean).

1.2. *Postmodernismoa*

Gure inguruari adituz, lehenengoarekin berarekin, kanpoaz azaltzen zaizkigun gauza bi dira nabarmen begibistan:

- a. Azalaren edota itxuraren garrantzia. Adibidez: 1. zenbatek daukaten, beharrezko ez dutela gainera, hiru, lau... milioitako autoa, beste behin behineko arlo batzuetarako dirurik ez dutela edo zozrez josirik daudela; 2. publizitatearen indarra. Jakin jakina da publizitateak dioena ez dena egia (edo egia osoa behintzat), baina gaitzerditzat onartzen da, eta, azken batean, berak eskainitako jarraibideen menpean dihardu bizitzak eta dihardute bizitzakoek;
- b. Narzismo berria. Ardura handia dago gazte mantentzean: begiratzea baino ez dago errepide eta bide bazterretatik dabiltzan footinglariak, eraiki izan den kiroldegi-kopurua, dietetikaren

garapena, *solarium*-en zabalkundea, nekebako gimnasioen arrakasta... Buruapurtze itzelak dakartza osasuna jagoteak. Zainketa berezia eskaintzen zaio jazkerari. Bidezkoa da ongizate-baldintzen egokitzea, baina badirudi gure artean gaur egun ongizatearen desbideratze zentzugabea indartzen dela gorputzaren gurraketa helburu izaki.

Sakonago arakaturaz gero, horraitio, aurkitzen da gehiagorik ere:

- c. Modernitatean, mundua alda daitekeelako itzaropena bizi izan da. Postmodernismoan, aldiz, hauts egin da utopia hau. Ez da pentsatu ere egiten gizartea aldatzeaz. Ezta dagoena indartzeaz ere. Irriaz aditzen dira askatasun, zuzentasun, elkartasun... asmoak, mundua zelakoa den ez dakien gizarajoaren esames moduan. Baina, era berean, ez dago konbentzimendurik egiten denean ere: «ondo pasatu, maitasuna egin, ardurarik ez... Nork jakin, ostera guzur hutsa ez diren?». Postmodernoarean ardura zera da: gizarte honetan egoera eroso batean kokatzea, norbere kabi gozo-beroa egitea, besteen ondoan, baina harreman sakon barik, konpromisurik gabe, baketsu, nahaste eta buruhauste handi barik. Norberak ez dio gizarteari zertan zerbitu, gizartea da norbera zerbitu behar duena. Gaur bizi daiteke goiasmorik edo idealik gabe. Soldata handia jasotzea (ahal izanez gero lan askorik egin barik), oporraldi onak igarotzea, gazte izatea, osasuna zaintzea... dira baliogarri;
- d. Sentipenen alkatetza. Ez dago egitismo iraunkorrik ezartzerik. Sentipenen eskariak azazkatzean datza bizitza-bidea. Hala egun batean yoga nola bestean droga, hala bart alkohola nola goizean footinga. Horretarako gogoia izatea arrazoi nahikoa da dena den hori egiteko. Gauza bat egitearen zentzua sentipenek diote. Sentipenen alkatetza hau nabarmena da sineskera-munduan ere: denetarik apur bat hartzen da (tarot, horoskopoa, amuleto, sakramentu...) eta bakoitzak egiten du bere koktela. Lehenago, horiek ezjakinen edo herriabarraren gauzak zirela esaten zen; gaur, ostera, karreradunen iharduna ere bada hori, eta ezertariko lotsarik gabe;
- e. Arterago esandako guztiaren ondorioz, berez jalgitzen da bereiztasun hau: etikak ez du zentzurik. Gizarte-ardurak kezkarik sortzen ez badu, zer izan behar du etikak, bada? Baldin eta nik neuk neure bizitza bizi badut, nori egiten diot kalterik, bada? Entzutetsu izatera jaretsi izan den «estetika etikaren gainetik» esaldiak zehazki laburbiltzen du joera hau;

- f. Utopiak birrindu egin direnez, zegan edo zer itxaron ez dagoenez, aihergetasuna edo indiferentzia nagusitu da. Zer egin bizitzan? Berdin da txoko gozoa lortu izanik. Ez dago bizitzeko arrazoirik. Postmodernoak ez da bere bizitzaren arrazoi emateko gai. «Bizitza zertarako? Bizitzeko».

Baina bada aihergetasun hau baino are nabarragorik: aihergetasun hau lazgarritasun barik bizitzea; nihilismo hau (itxuraz, behintzat) hala baltz bezala, zirkinik gabe bizitzea. Duela urte batzuk tragedia moduan bizi izaten zen nihilismoa; gaur, osterak, badira izara lurrintsudun seaska epel bihurtu izan dutenak nihilismo-egoera hau euren bizitza eta izatea bertan lotan ipintzeko.

Eta amaitzeko ohar bat. Badirudi, askoren ustetan, jarrera hau gazteei baino ez zaiela egokitu behar. Ez da hola. Gazte eta gazte ez direnei dago-kie jarrera postmoderno hau gure gizarte honetan. Inguruan begiratzea baino ez dago.

1.3. *Neokontserbadurismoa*

Neokontserbadurismoaren pentsalaririk ospetsuenak Estatu Batuetakoak dira, hantxe sortua bait da, nonbait kokatzekotan, pentsabide eta jarrera hau. Gure artean ez dira oraindik hainbeste ezagutzen pentsabide horren ardatzak², baina bai ederto txertatu edo erne izan direla (jakinda edo jakin barik) pentsabide hori indartzen duten jarrera edo, besterik ez bada ere, gertaerak.

Labur-labur azalduz, neokontserbadurismoaren pentsabidea honetan datza³:

² Neokontserbadurismoaren ikuspegi zabal eta halaber sakona ezagutu nahi izanez gero José M.^a MARDONESEN *Capitalismo y religión: la religión política neoconservadora* (Santander, Sal Terrae, 1991) lana begira daiteke.

³ Sarri askotan, gure mugaz kanpotik datozkigun moda-eraginaren arabera bizi gara Euskal Herrian. Ez dugu (arrazoi batzuegatik edo besteengatik) Ilustrazioarekin elkarrizketazera iristeko ainako garapenik izan gure pentsabidean. Honen ondorenez, ez daukagu pentsabide sendozko tradizio erroturik arlo honi dagokionean. Eta, jakina, aipaturiko kanpoko modei magal malgu gertatzen gatzazkie, beste era batetara izanik onugarria izan daitekeen elkarrizketarik gurutzatzeko sustrairik ez dugulako. Ilustrazio eta Ilustrazio osteko pentsabide edo biziera-korronteek euren sastegitik eskeinutakoa urregorria baltz bezala onartzen dugu hemen. Honegatik, komenigarria da, beranduegi egin baino lehen, geroago eta indar gehiago hartzen doan neokontserbadore-korrontaren nondik-norakoak zertxobait ezagutzeko, beregandik zerez baliatu eta beregandiko zer baztertu jakin dezagun, edota ea jadanik inkonszienteki gure artean hedaturik dagoen aztertzeko; zuhur ez bagabiltza bere sastegiko ahalik eta kardolatzik gehien salduko dugulako eta guk liliak bailira erosi, beste aldi eta arazo batzuetaz gertatu izan zaigun bezala.

a. *Neokontserbadoreek hau ikusten dute:*

- a.1. Modernitateak (kritikotasunak, askatasunak, berdintasunak...) mundu-eraketaren edo bizitza ulertzeko moduaren aldaketa eskatzen duela; honek, nahitaez, krisialdia, ziurtasunikezezeko egoera sortzen duela. Jasangaitza zaio neokontserbadurismoari egoera honi dago-kion kezka edota bilaketazko jarrera. Dagoeneko nahikoa da saiakerarik. Ez du gorabeherarik nahi, bakea baino;
- a.2. Modernitateaz sorturiko kultura (zentzurik zabalenean ulertuz hau, bizitzako arlo guztiei —ekonomia, politika, erlijioa...— oratzen die-la) eta ekonomia ardatz duen gizartea buztartezinak direla. Honen errua Modernitateak eragindako kulturak du, lehenagoko gizarte-oinarriak (moralak eta erlijioa, batipat) deuseztatu dituelako. Oina-riok akiturik ez dago lan-gogorik, disziplinarik, ahalegin egiterik, arzetasunik, sakrifizioerik... Gauzak hala ikusteko, jakina, neokontser-badoreek ez dute zalantzan ere jartzen ekonomia-sistema;

b. *Neokontserbadoreek hau gura dute:*

Gizarte kapitalista garatua, demokrazia formala bitarteko duela eta pu-ritanismoa oinarri. Beste berba batzuekin esanik: 1. Neokonserbadoreek eko-nomia ardaztat duen gizartea nahi dute eraiki; 2. Itxuraz, behintzat, demo-krazi-kutsuaz: gehiengoaren onarpenaren indarra erabilirik, nahikoatzat dute ordezkaturako demokrazia eta onartezina demokrazi osorantz (kultura, hezkuntza, ekonomia ... arloak harrapatzen dituenarentz) jotzea; eta 3. Mo-ral ezezkorrera murrizten den erlijioari dagozkion baloreetan oinarriturik: ahalegina, nekerako heziketa, esanekoa izatea, disziplina...; erlijio hau no-tinak ekonomia-sistemaren alde joka dezan honen barrua edo kontzientzia eratzeko bitarteko bat baino ez da;

c. *Neokonserbadoreek, egoera zelan dagoen ikusirik (a), gura duten hori lortzeko (b) bide hau jartzen dute:*

- c.1. Modernitate-kulturaren aurrekoari dagokion tradizioaren balo-reetara jo;
- c.2. Modernitatearen iragarleak kritikatu;
- c.3. Honetarako beharrezko diren instituzioak indartu: familia, hez-kuntzakoak, erlijio eratua etab.

Postmodernismoaz alderatuz, gizartearen ardurak handiak du neokon-serbadurismoak. Gizartea aztertzen eta berak (neokontserbadurismoak) nahi duena izan dadin egokitzeko ahalegin sendoak egiten ditu. Erantzukizuneko jarrera da berea.

Gure ingurura begiratu, badira datu bi jarrera neokontserbadore-rantzak makurtzera gonbidatzen dutenak. Hauexek dira:

a. Berlingo Harresiaren deuseztaketak duen esanahia. Askoren uste-tan Europa Ekialdeko Estatuetan izan den politika-erakundeen porrotak sozialismoaren baliorik eza isladatzen du. Hauxe da sozialismoa betidanik okerreko begitik sartu zitzaienen sozialismoaren aurka duten jarreraren aldeko argudio indargarri berria, sozialismo-ideologia eta ideologia horren gauzatze erak erratuz. Baina Berlingo Harresiaren suntsiketak egin du zirkinik baita lehenago sozialismoaren aurkako jarrera berezirik izan ez dutenen edota aldeko jarrera izan dutenen artean ere;

b. Ikaragarrizko etorkizunaz amesteko aukera eskeini izan zuen demokraziaren etorrerak Estatuan, arazo guztien irtenbide izango zenaren panazea bezala begitanduz. Urteak igaro ahala, berriz, gauzak aldatu bai baina hobetu direnaren antzik ez da hartzen. Kaleetan ez dago lehenagoko segurtasunik, galdu da nagusienganako lehenagoko errespetoa...; eta zer esan zuzentasunaren mitoa eskeintzen zuen sistemagatik, politika-alderdien diru-kontuen gardentasunik eza, ukondoan indarra edo eufemismo berri horrez «tráfico de influencias» deritzoten jokabidea, langabezia..., hitzaldietan txirotasunaren aldeko agertu izan ziren politikariak politikaren kontura aberastu egin direla ematen duela, zinegotzi asko euren arazoak konpontzearen aurkezten direla hauteskundera... etab. ikusiaz? Errezena, ondoren, demokraziak ez duela askorik merezi pentsatzea da, erru guztiak berari erantsirik. Hau da: demokrazian ustea galtzea. Lehen orotarako senda-belarra izango zela pentsatzen zena, gaur pozoin-belartzat hartzen da. Ondorengo hau dela eta, baina, ezin amaitu zehaztasun bat egin barik: gauza bat da demokrazia eta beste batzuk demokraziaren izenean egiten direnak.

Jarraian, neokontserbadore-jarreraren ezaugarri izan daitezken gure inguruko joera edo gertakizun batzuk aipatzeari ekin behar diogu.

a. Sasoi batetako pentsamoldeak erabiliz, neokontserbadore pentsabide edo jarrera hau pertsona helduek edo nagusiek proposatutakoa izan behar duela esango litzateke. Baina badirudi gaur egun ez dela honela. Hona hemen datu batzuk.

Frantziako hezkuntza ertainetako ikasleek 1990.eko azaroan egindako greba eta manifestaldietan hezkuntza-sistemaren hobekuntza eskatzen zen, hobekuntza horren xedea hezkuntzak eskeini ditzakeen gizarteratzeko aukerak edota bitartekoak ahalik eta gehien egokitzea zelarik. Iraultza hark ez zuen gizarteraren aldaketarik eskatzen, gizarteran leku bat izateko aukerarik aiposenak erraztea baino. Hirurogeitamargarren hamarkadako seme-alabek ondo ikasi dute, antza denez, 68.ean «utopiak» amesten zituzten beren

gurasoengandik: ez al daude eurak gaur egun politikaren, banketxeen, entrepresen... arduradun?

Baina ez dago Frantziaraino joan beharrik ere honetariko zerbait ikusteko. Zenbat ordu ematen dituzte bertako gaurko neska-mutilek ikasten? Zer asmok bultzatuta? Zenbat ikastarotara joaten dira eskola-orduetatik at (informatika, hizkuntzak, musika...), eta ez gurasoek behartuta, euren gurariz baino? Eta guzti hau, ez gizartearen erakundea aldatzeko asmotan, gizarte horretan eztituz gizarte horren erakundea indartzeko baizik.

Lehengo egunean, jokabide honen karikaturazko adierazgarria izan daitekeen benetan jazo izan den gertaera bat edestu zidaten adiskide batzuek. Hogeitamar urteko osagilea da, MIR egiten, bilbotarra, ezkondua eta semea noiz jaioko itxaroten. Bere semeari, jaio orduko oraindik, ilusio guztiaz egindako erregalua erakusten die poztasun osoz etxera joaten zaizkion adiskide denei: sasoi batetako kaligrafi-idaztien eta Rubio buruketa-idaztien bilduma osoak. Eta honez gain, ondo zehazturik dauzka bere semeak bete behar izango duen item-eko pausuak: lau urtekoa izan dadinean, irakurtzen jakin behar du; seirekin, oinarriko eragiketak menperatu, eta hizkuntzak ikasten hasiko da...;

b. Lehenago, progre izatea baztertuekin bat egitean zetzalarik, modan zegoelako baino ez bada ere, inor gutxik agertzen zituen handitasun gurariak. Gaur, ordea, neska-mutiko koskorrenen elkarrizketak ere jantzien etiketei, txaletei... buruzkoak dira.

Gaur egun, irabazten den guztia (dirua, lanpostua, gizarte-egoera...) norberarena baino ez dela uste da. Horretara ailegatzeko egin izan den ahalegina baloratzen da. Aukerak aprobetxatzen jakin behar da. Ikasleek ez dute ikasteko aukera izatea pribilejio bezala hartzen; ikasten ez dutenak, ikasten dutenen ustetan, ahaleginik egiteko gogorik ez dutelako da, eta ez dira ondo ikusiak (azalez, behintzak). 13-20 urte bitarteko neska-mutiko askoren eritziz, beraiek baino zaharrago diren neba-arreba drogazaleak, nagikeriagatik dira drogazale; beste ezertarako ahaleginik egiterik nahi izan ez dutelako. Ez da errukirik agertzen gizartearen aurrean porrot edo frakasatu egin dutenenganako; beren erruz izan da, ez da beste sustraizko arrazoirik ikusten ahaleginik ez egitearena baizik.

Badira, horraitio, irakasle edo beste pertsona erakargarriren batek gizarteko behartsuen arazoekiko arduraren duen pentsakizun edo pentsabideren bat aurkezten dienean unkiturik gelditzen direnak. Baina irrikitan jarraitzen dute igande arratsaldea noiz helduko telebistako *Ricos y famosos* programa ikusteko.

Konpetitibitate-mundua da nagusi pertsona heldu eta gazteen artean (susmagarri gertatzen da zenbait askorentzat Europaratzea ekonomia-

konpetitibitate arloa lantzean baino ez datzala ikustea; nahiz eta, jakina denez, arlo honen garrantzia izugarria izan). Gizarte honetan makalak hondatu egiten dira eta garaile direnen arteko harreman-lokarria ondamua da. Bakerik ez garaile gertatu arte, eta pozik ez garaile gertatu ondoren.

Hala eta guztiz ere, gogo eta amorru bitsetan ekingo da gizarteko uraren gaintik burua altxatzeko, baina ez da ahalmenik izango, ostera, gizarte konpetitibo horren logika ikusteko edota ikusi eginda ere berau gainditzeko ahaleginik egiteko. Ez dago krisialdia sortzeko erarik, ezta guraririk ere, gizarte honetako norgehiagoketan galtzaile ez gertatzeko beste kemenez eta adimenez horniturik izan bitartean behintzat;

c. Hezkuntza-erakundeei adituz, aipagarria da Unibertsitateak bete behar dituen zereginei buruz gehiengoak duen iritzia. Labur esanda hau izango litzateke *leit motiva*: Unibertsitateak gizarteak behar dituen profesionalak gertatu behar ditu. Eta honetara murrizten da Unibertsitatearen zeregina: ingeniari, ekonomilari eta teknikari onak gertatzera. Bestalde, filosofilariak, gizajakintzalariak eta pentsalariak ez dira etekingarri, are gehiago, astungarri eta enberazu egiten duten behatzarri baino. Gizartearen zerbitzari barik gizarte-moeta baten otsein izan dadila Unibertsitatea gura da. Gizarteak ez du bere sistemari buruzko eztabaida-hausnarketarik onartzen. Norbere-mailan norberaren jokabidearen autokritika behar den moduan, gizarte-mailan ere bere nondik-norakoen azterketa-iharduna ukazina da. Oinarri hau baina ez dute neokontserbadoreek onartzen. Egin ahala, abespeluan ekin behar da gizartearen hautatutako ekonomia-sistemaren alde. Eztabaida guztiak beharrezko dira sistema honen garapenaren abiada eta sendotasunei dagozkienean, baina onartezinak sistema horren zutabeak ukitzera ausartzen direnean;

d. Erljio-arloari dagokionean, joera bi ematen dira neokontserbadore-jarreraren ildotik:

- d.1. Askok (eta ez adinekoak bakarrik), diren batera eta besterako zurrunbiloez asaldatuta eta nekaturik, zer sinestu behar duten zehatz-mehatz argitasun osoz esan diezaieten eskatzen diete «goikoei» edo arduradunei. Ez dago norberak egitean bilaketan jartzeko jarrerarik. Besteengan jartzen da norbere erabakien erantzukizuna, beraiek dakitela eta zer egin behar den hobekien; edo bildurra dago edo nagikeria... norbere kabuz pentsatzeko; edota ez da zailtzan jartzen ere bizitzan beste eraren batetara joka daitekeenik;
- d.2. Sakratu-inguruaren eta sekular-inguruaren arteko banaketa egiten da, bizitzaren bikoizkeria sortaraziz edo areagotuz. Honela, ona da, jakinda edo jakin gabe, gizarte-eraketaren aldeko dena.

Txarra, aldiz, sistema horren aurka doana. Moral bikoitza sortzen da, arlo batzuetan estutasuna eskatzen delarik, gizarte-erakunde horretan bakoitzak bere tokian erantzun dezan; eta beste batzuetan, ez da ekin larregirik egiten;

e. Nolabait irudiekin hitz eginik, neskazko postmoderno bat mutilezkoaren bular indartsu edo hanka zargaiak erakartzen dute, neskazko neokontserbadore batek, aldiz, hasperen dariola dihardu Harvard-en ekonomia-masterra lortua duen mutil batekin egotean; mutilezko postmoderno batek ipurdia galduko luke praka bakero estuez markaturiko neskazko baten ipurdi ondo osatua ikusirik, mutilezko neokontserbadore batek, berriz, neskatila zintzo, etxezale, umezale... batekin ezkontzea luke atsegingarri. Honez gero, Luismari, aukera biak batera betetzen dituen hartu ezin daitekeenentz galdetuko zenuen, ezta? Irudi honek eskeinitako abagaduneaz baliatuz, hurrengo hau esan nahi nuke bide batez: badira bizitzan postmoderno edo neokontserbadore-jarreraz jokaten dutenak, baina askok —edo gehienek— bietariko jarrerak daukate. Hona arteko azalpenean aipaturiko adibideren batzuk jarrera bat edo bestearen argigarri izan daitezke era berean, bultzagarria edo motibazioa zein den kontutan izanik. Bizitza ez da hemen aurkeztutakoa bezain bereizgarria, askoz ere korapilotsuagoa baino.

Paradoxa bat atal hau amaitzeko. Arrazoimenak ezartzen dituen bide estuen menpekotasunaren gaitzeste-erantzun bezala jaiotzen da postmodernismoa. Neokontserbadurismoa, ordea, arrazoimenaren ihardunari dago-kion kritikotasunaren fruitu den «askatakeria»ren aurkako aukera bezala.

1.4. *Behartsuen oihua*

Modernitatea baino lehenago ere bazen behartsurik, bazterturik eta txirorik munduan, zalantzarik gabe. Baina Modernitateak egoerok gainditzen ezezik indartzen lagundu izan du pertsonaren aldeko izan behar lukeen industria-garapena arrazoitzat jarriarik. Gizarte batzuetan izan den askatasun eta demokrazia baloreen bilakaerak beste gizarte batzuen azpigarapena eta menperaketa eskatu eta bultzatu izan du⁴, eta, are gehiago, gizarte garatueta-ko beraietako pertsona asko hondatzea.

⁴ Pertsiar Golkoko Gerra izan da honen oraintsurengo untze erakusgarria. Historian zehar ikusten denez, estatu garatuek ez dute errenkurarik beraienak ez diren lurretan sartzeko, batzuetan beste batzuetan baino itxurosoago, lurrotan lehengairik edo beste eraren batetako aberastasun-ondarerik (kokagune geoes- stratejiko...) baldin bada. Pertsiar Golkoko arazoan zeharkako logika erabili izen da: Sadam-en aurka egin behar izan da Kuwaiten askatasunaren alde ekiteko. Baina, jakina, ez zen, ziur asko, holakorik egingo baldin eta Kuwaiten estatu garatu askotako industriaren egarri-asegarri diren petrolio-iturriarik ez balego. (Eta esandako hau, Pertsiar Golkoko Gerraren arazoa hemen azaldutakoa baino nahasiagoa dela ahaztu gabe).

Historia bi historia beratan. Bigarrenekoaren partaideen ardura ez da Modernitatearen izateari dagokionari erantzutea ezta arrazoimen helduaren lorpena ere, bizi diren lurpetik munduratzeta edo bizi diren miseriatik urtetzea baino.

Postmoderno eta neokontserbadore jarrerak ere ez dute askorik laguntzen historiaren bikoizketa hau gainditzeko. Batzuek, postmodernoeak, konturatzen ez direlako edo konturaturik zirkinik ere sortarazten ez dielako edo euren kabitik irtetzeko gogorik ez dutelako edo...; eta, besteek, neokontserbadoreek, kapitalismo garatuaren arauak betetzen ahalegintzen direlako. Batzuek eta besteek, ibitu beharrean, zapalduagotu egiten dute bigarren historia hori.

Ez dago datuen hizkuntza hotzari beren protagonista direnen bihotztaupada ozentsuen doinua eranstea baino adierazgarriagorik. Hona hemen, ariketa horretan ihartzeko, erraz eskura daitezkeen datu batzuk:

- 1.000.000.000 pertsona bizi dira txirotasunik gordinenean munduan (Nazio Batuen Garapenerako Egitasmoak egindako giza-garapenari buruzko ikerketa-txostena);
- 200.000.000 pertsona bizi dira txirotasun-neurriaren azpitik industria-laterrietan (Nazio Batuen Garapenerako Egitasmoak egindako giza-garapenari buruzko ikerketa-txostena);
- 6tik 16 urte bitarteko 70.000.000 ume bizi dira kalean munduan zehar (UNICEF);
- 38.000.000tik 44.000.000ra gehitu izan da 1975-1985 urteen bitartean pertsona txiroen kopurua Europako Ekonomi Elkartea osatzen duten hamabi estatuetan (Txirotasunaren Aurkako Bigarren Egitasmo Europearraren Azken Informea);
- 8.000.000 pertsona txiro daude Estatu espainiarrean (CARITAS);
- 1.500.000 pertsona daude munduan IHES-SIDAZ gaisorik. 10.000.000 pertsona IHES-SIDA birusaren eramale. 2000. urtean 40.000.000 pertsona izan daitezke IHES-SIDAZ gaisorik munduan. (Osasun Mundu Erakundea);
- Euskadiko Autonomi Elkartea jadanik iritsi izan da 1.000 pertsona IHES-SIDAZ gaisorik izatera (eurotarik 350 dagoeneko hilik dira). Birusaren eramale diren 10.000 pertsona daude;
- 2.254.792 pertsona daude langabezian Estatuan 1991.eko maiatzean Lan eta Gizarte-Seguratasun Ministeritzaren datuen arabera (nahiz eta kopuruon beheranzkako joera dagoen);
- 130.584 pertsona daude langabezian Euskadiko Autonomi Elkartean (nahiz eta kopuruon beheranzkako joera dagoen);

— Droga-arazoetan, adituek diotenez, 1991.eko urtean gehitu egin-
go da kokaina-menpekotasuna Estatu espainiarrean, eta EEBBeta-
ko hiri handietan aztrakala negargarriak egiten ari den *krark*-a sar-
tuko ei da. Heroina-menpekotasuna, ordea, beheranzka hasi da,
menpekotasun honek pertsona askorengan utzi duen buztana
ahaztezina den arren;

— ...

Egoeraren zipristinak besterik ez diren datuon aurrean ez zaio dema-
gogia baldarrik egitera sakatzen duen tentaldiari gehiago egiten utzi behar.
Datuok azaltzen duten egoera bakoitzaren arrazoiak ezberdinak dira, ziur
asko. Premiazkoa da horiek aztertzea eta aurkitutako irtenbideei harik eta
azkarren paso ematea, gizatasunezko historia egin gura izanez gero.

Beregana joateko keinuka dute Europa Espainiak eta Euskadik, eta
beraiekin ez ahazteko deadarka Afrika, Asia, Latinoamerica eta bertoko
behartsuek.

1.5. *Abertzaletasun-joeren irakina*

Abertzaletasun-mugimenduak, joerak edo gurariak betidanik izan
dira historian zehar (zelotak, Lehenagoko Grezian, Ekialde Hurbilean...,
adibidez). Ez dira egunotan jaiotakoak. Baina gaur egun, haatik, beste aldi
batzuetan gertatu izan den bezala, indar handia hartu dute oso. Begiratzea
baino ez dago Lituanian, Estonian, Letonian, Bosnian, Kroasian, Eslo-
venian, Montenegron, Mazedonian, Serbian... diren astrapala eta istiluak.

Zein den irakin honen arrazoa? Ez dago erraz esaterik. Abertzaleta-
sun-mugimendu bakoitza bere ingurunea eta bere aldia kontutan izanik
aztertu behar dira.

Ilustrazioak abertzaletasun-mugimendu batzuei indarberritu erazi
egin zien. Ilustrazio-aldia «goitik beherako» berriztapenen aroa izan zen;
Estatuak zuzenean eragiten zuen, geroago eta indartsuago, herritarren edo-
ta hiritarren, Estatua eta hiritarren bitarteko erakundeak deuseztatzeko
joera sutsua hartu zelarik. Jokabide honekin, jakina, oidalako zaplada har-
tu zuten abertzaletasun-gurariak. Erantzun modura, kemen berria egosi
izan zen abertzaletasun-mugimenduengan.

Dena den, Ilustrazioak gaurko abertzaletasun-eskarien zolitasuna
dela eta eraren bat edo besteko eraginik izango duen arren, badira horreta-
rako Ilustrazioarekin zerikusirik ez duten beste zenbait arrazoi, toki ba-
koitzean bertakoak. Ez da hau eurotaz sakontzeko tokia. Nahikoa da,

behingoz, baieztapen nagusiaz: abertzaletasun-joeren irakina nabaria da gaur egun munduan zehar.

Begiak Euskal Herrirantz zuzenduz, lau jarrera nagusi bereiz daitezke gaur egun abertzaletasunari buruz (sailkapen honek ez dituela, ziuurrik, errealitatearen ñabardura guztiak bere altzoan hartuko kontutan izanik):

a. *Euskal abertzaletasun-joeren aldeko ez direnena.*

Hauen artean bultzagarri edo motibazio ezberdinak bereiztu behar dira:

a.1. *Pentsabide liberala.*

Europar abertzaletasuna ulertzeko era nagusi bi aurkitu izan dira historian zehar:

—Frantziarra: notinen borondate askeaz osatuko litzateke aberria; pertsoneri berez dagokien (natural) eskubideen erabilpenaz elkartzea erabaki izatearen emaitza da aberria. Estatua da, Iraultza Frantziarraren ondoren abertzale jakobinoak aurkeztu zuenez, aberria (sortzeko ez bada ere, gaur egun) zaintzeko erantzukizuna duena: Aberri-estatua litzateke hau;

—Alemaniarra: aberriak endan oinarritzen den bere izatea (*Volkgeist*) du, osatzen duten notinen gaintetik eta beraiek nahi izan ez eta ere. Izate hori hizkuntzan, ohituretan, ekanduetan, tradizioetan... agertzen da.

Alemaniar erako abertzaletasuna tradizio anakronikoaren mitoetan oinarrituriko sentipenen fruitua da pentsabide liberalarentzat, arrazoibidez finkatu ezin daitezkeen sustraietatik ernea. Pentsabide liberaldunek, gehien batzuek behintzat, Euskal Herriko gaur egungo abertzaletasun-tankera guztiak alemaniar erakoak direla uste dute. Horregatik, errespeto guztiz, ez datoz berarekin bat. Espaniar Aberri-estatuaren aldeko dira gehien bat.

Hau eta guzti ere, badira, horraitio, euskal abertzaletasuna alemaniar erakoa izanik sentipenen eta emozioen eraginez osatua dela argudiatzen duten pentsabide liberaldunak eta, gartsu, sentipenez biziki ekiten dutenek Espainiako Aberri-estatuaren alde euskal abertzaletasunak ekar ditzakeen kalteak galerazteko;

a.2. *Liberalismo ekonomikoa.*

Liberalismo ekonomikoaren alde daudenen batzuentzat itoegia da Euskal Herriko mugetara lotzea. Ez lukete, berriz, espainiar edo beste lurralde zabalago batetako abertzaletasuna onartzeko

oztoporik izango ekonomia-garapenerako mesedegarri gertatu izango balitz berau. (Era berean, badaude ere euskal abertzaletasunaren alde direnak beren ekonomia-interesengatik);

a.3. *Sozialismoa.*

Sozialismo-pentsabidea duten askorentzat euskal abertzale-
tasuna euskal burgesiak, bere interesak medio komeni izanik,
landu eta bultzatu izan duen ideologia izango litzateke⁵;

a.4. *Espainiar abertzaletasun etnozentrinoa*⁶.

Espainiar batasunaren aldeko eta zatiketaren edo batasun
horrentzat arrisku izan daitekeen edozein aniztasunen aurka
agertzen dira abertzaletasun honen aldekoak. Onartezina dute,
arrazoi honegatik, euskal abertzaletasuna, dela denetarikoa;

b. *Euskal abertzaletasun etnozentrinoaren aldekoena.*

Hauen artean gehien batek ez du historia-kontzientziarik edo neke-
garri zaie berau beraienganatzea. Badirudi oraindik Francoren edo bere au-
rretiko aldietan bizi garela. Euskal Herriaren arerio dira Frantzia eta Espai-
nia. Burujabetasuna da Euskal Herria Euskal Herria izateko bide. Ez dago
Euskal Herria bezalako aberririk. Ez dute, edo gogor zaie, euskal gizartean
den aniztasuna onartzen. Oraingoz, behintzat, gaitzertizat daukate Estatu
Espainarreko demokrazia; honen aurka daudenak ere badira. Neurri bate-
an, *euskal abertzaletasun* erromantikoa proposatzen dute.

Euskal abertzaletasun etnozentrinoaren aldekoen artean badira abertzale-
tasunaren onerako indarkeria (erailketak tarteko) erabiltzearen alde ere ba-
daudenak;

⁵ Ikuspegi hau (zuzengarri izateaz gain) «sozialismo erromantikoa»ren analisisaz lortua da. Gaur egungo sozialismoak ez du bere eragina ekonomia-arloraz zuzentzen, gizartearen demokrazia-eraketarantz baina. Makroekonomi-arazoei aurpegi emateko aurkezturiko irtenbideak ez dira, dagoeneko, ezkerren eta eskumaren arteko ezberdintasunak jartzeko erizpide, eta berdin antzean jazotzen da mikroekonomiaz ere (hauteskunde-mitinetako hitzaldi kokatu batzuetan izan ezik). Sozialismoak aldi honetan aurrez-aurre daukan itauna hauxe da: nortzuk dira langileak?, nortzuk dira gizarteko baztertuak? L. LOMBARDO REDICEK aspaldidanik esan duenez, «asmatzeko dagoen sozialismo» da gaurko erantzunkizundun sozialisten ardura nagusia.

⁶ Abertzaletasun etnozentrinoaren eta abertzaletasun polizentrikoaren arteko bereizketa egiten du Anthony D. SMITHEK (cf. *Theories of Nationalism*. London, Gerald Duckworth and Co. Ltd., 1971. Gazteleraz: *Las teorías del nacionalismo*. Barcelona, Península, 1976). Nolabait esatekotan, nahiz eta guztiz zuzena ez izan, abertzaletasun etnozentrinoa abertzaletasunaren alemaniar ulerkeraren harira joango litzateke, eta, abertzaletasun polizentrikoa, abertzaletasunaren frantziar ulerkeraren harira.

Abertzaletasun etnozentrinoaren ustetan, berez dagokio «handizatea» bere kultura-elkarteari. Bere elkarteak da jakintza, edertasunaren, santitatearen, kulturaren... Jaungoikoaren gune. Ohorea da elkarte horretako kide izatea.

c. *Euskal abertzaletasun etnozentrikoa eta marxismoa elkartzen dituztenena.*

b ataleko lehenengo ahapaldian esandakoaz batera egongo lirateke hauek. Horrez gain, euskal gizartean gustora ez daudenen edo zer eskatu daukaten guztien (ekologisten, feministen, «antimilitaristen» —espaniar edo frantziar edo estatu batuak... ejerzitoen aurka dauden antimilitaristen— ...) bozeramailetzat dituzte beren buruak; sarritan, ezeren alde barik beste guztiak egiten dutenaren aurka daudela pentsa daiteke.

Hauen artean badaude euren helburuak lortzeko zilegi deritzotenak edozein errukirik gabeko bortxakeria bideri, eraiketak barne;

d. *Euskal abertzaletasun etnozentrikotik euskal abertzaletasun polizentrikorantz⁷ —nolabait— igaro izan direnena (edo horretan dihardutenena).*

Hauen eritziz, Euskal Herriak badu bere nortasuna edo izaera. Nortasun hau beste aberrienganako zabalik izanik landu eta aberas daiteke, beste aberriak ez bait dira Euskal Herriaren arerio.

Euskal gizartean dagoen aniztasuna ohartu eta onartzen dute, hiritarren arteko elkar-bizitzak arduratzen dielarik.

Burujabetza bilatzen dute Euskal Herrirako (nafarrek beraiek esango elkartu nahi duten ala ez, abertzaleok baiezkoa gura izango luketen arren), horra orduko egin beharreko bidea etengabe mantso-mantso egiteko prest izanik. Europa mutur aurrean, «Herrien Europa»⁸ eraiki nahi lukete,

⁷ Anthony D. SMITHen ikerketen arabera hiru lirateke, beste batzuren artean, abertzaletasun polizentrikoaren bereizgarri nagusiak:

1. *Notin bakitzairen askatasuna edo autonomia.* Elkarteko erabakiak kideen erabakien bitartez hartzen dira. Ezin du inork bere eritziak goitik behera ezarri;
2. *Elkarrearen bakantatuna.* Aberri bakoitzak badu bere «nortasuna» edo izaera. Munduan banaketarik behinena «aberrien» artekoa da. Aberri bakoitzak bere Estatua du, beraren ahalmenak landu heinean dituen bizikizun bereziak gizadiari eskeinirik «aberrien arteko familia»ratzeko helburuaz.

Beste elkarteak ez dira etsaitzat hartzen. Abertzale polizentrikoak autokritikoak dira: ikusten dute akatsik beren aberrian eta eurenganatzeko baliogarri den gauza onik ere bai beste batzuenen;

3. *Aniztasuna.* Munduaren askatasuneko eraketa Aberri-estatuen sistemaren bidez osatu izango da, bakoitzak beregandikoa eskeiniz gizadiari.

Anthony D. Smithen abertzaletasun etnozentrikoaren eta abertzaletasun polizentrikoaren arteko bereizketa, berak dioenez, azterketa-mailan egindako sailkapena da. Errealitatean gauzak ez daude hemen azaldu bezain zehazki emanak.

⁸ «Herria» kasu honetan Aberria izango litzateke. Eta burujabetzaz Euskal Aberri-estatuen pareko zerbaite (ez gauza bera) eskatzen dute. Jakinean daude egunean Aberri-estatuen izatea krisialdian dagoela Europaren elkartzea gainean izanik. Eta, horretaz gain, konturatzen dira baita Euskal Herria eratzerakoan zelako arazoak egongo liratekeen ere (arazo horietaz jabetzeko 1991.05.26ko hauteskunde-emaitzak aditzea baino ez dago: Autonomi Elkarteko Lurralde Historiko bakoitzak joera ezberdinak ditu, eta hori Nafarroako eta Iparraldeko egoerak aztertzen sartu gabe).

horretarako bidegarri izan daitekeen federalismoa zein aberrien beste eraketa-sistemaren bat gogoko izanik. Dena delatara, artegatasun eroankorrez daude etorkizunari adi, bide berriak arakatzeko gertu.

Elkartasuna edo solidaritatea proposatzen dute gizartean (Euskal Herrira bertora eta kanpora ere adituz) hiritarren artean diren arazoan erantzubidetzat, kristau-demokrazian edo sozial demokrazian oinarriturik.

Eta azkenik, ohar bat. Euskal Herrian abertzaletasunari buruz dauden jarrerok direla eta, ezin zaio eurotariko bakoitza alderdi politiko jakin bati atxiki, alderdi bakoitzeko kideen artean, ziur asko, jarreretatik bat baino gehiago direlako.

Disekzio bat da nik hemen egin gura izan dudana. Disekzio hori egin ez, ikusten dudana azaldu dut. Besteren batek beste zerbaitek gehiago edota gauza ezberdinak ikusiko lituzke, eta beste norbaitek beste lekuren batetik egingo luke disekzioa. Guzti honekin, errealitatea ulertzeko lagungarri izan daitekeen eskema bat aurkitzea izan da nire helburua, errealitatea hemen agertutakoa baino askoz ere nahasiagoa dela jakinik; manikeismorik gabe, ni neu neure inguruan kokatzeko asmoz (gura ala ez, gustatu ala ez, neu ere, egiten dudana egiten edo egin behar nukeena egin barik uzteagatik, errealitate horren egile naizelako). Aipaturiko datu, jazoera edo adibideak ezagunak izango dira gehienentzat edo antzeko besteren batzuk gehiago aurkez ditzake edonork. Arteragoko zerbaitek baliorik izatekotan, errealitatearen azpildurak ikustera eta ulertzera lagun dezakeen zehaztu edo deskribatu izan dugun azpiegiturak izango duela uste dut.

Luisuari, badakit, baldin eta nik ezagutu izan zintudan modukoa izaten jarraitzen baduzu, haginak estutu eta lapikokada bete ahaleginez, ekin egingo zeniokeela nik orain arte isuri dizudan «rolloa» irakurtzeari. Ez dakit zu, baina ni neu nekatu egin naiz. Gaurkoz, bertan etengo dut. Bihar arte.

Hemen naiz berriro, Luisuari, zure itaunaren bigarren zatiari heltzeko gertu.

2. *INGURUAREN BEREIZGARRION AURREAN TEOLOGIA-HAUSNARKETATIK SORTURIKO KEZKA BATZUK*

2.1. *Teologia-zereginaren behin-behineko helburuetakoa: kristautasunaren bizigarritasuna erakustea*

Ilustrazio-eraginaren, Batikanoko II Eliz-batzar Nagusiaren eta diktaduraldiaren (gure artean) ostean, kristautasunarekiko hiru joera nagusi sailka daitezke:

- a. *Bikoiztasun-bizikizuna*. Bizitza bide batetik zuzendu eta erlijio-bizikizuna besteren batetik, elkarrekin pasoko zerikusia baino ez dutelarik. Bizitzak ez du edukirik eskeintzen erlijio-bizikizunera-ko ezta erlijio-bizikizunak bizitzarako zentzu-ardatzik ere;
- b. *Apurketa*. Katolikotasunak eskeintzen duen jokabideaz apurtzea erabaki izan dute askok gure aldian, beren pentsabideaz bat ez datorrelako edo beren bizitzarako zeresanik ez daukalako edo aiherge direlako edozein moztatako betebeharren aurrean edo...;
- c. *Kristautasuna zintzo bizitzen ahalegintzea*, bizitza eta kristautasuna buztarturik: bizitzak damakio mamia sinesmenari eta sinesmenak zentzua bizitzari.

Kontuak honela, hauxe litzateke teologiaren helburuetatik garrantzitsuenetarikoa: kristautasuna gaur eta hemen bakoitzean bizigarriak dela azaltzeko hiru taldeetako pertsonekin elkarrizketatzeko gai izatea. «Bizigarri dela» esateak, bizitzako arazoei (langabeziari, drogari, IHES-SIDARI, goseari, abertzaletasuna dela eta edo abertzaletasunaren aitzakizko ezinikusiei eta gizatasun-arrastorik gabeko erailketei, aihernetasunari...) aurre eginez bizi daitekeela ezezik bizitzako arazoei aurre eginez bizi behar dela kristautasuna esan gura du. Kristautasuna ez dela bizitzatik alde egiteko, bizitzan sustraiturik bizitza sakonago bizitzeko bidea baino izango litzateke teologiak erakutsi behar lukeena.

Hona jarraian, bide honi segituz, teologiak eskein dezakeenaren adibide bat: logika itogarrien oharterazketa.

Gure gizartean, eratuta dagoen erara, *konpetitibitatea*⁹ da nagusi. Ailegatzeko zara edo bide-bazterrean gelditze zara. Eta hau, eskolatik edo lehenagorik (gurasoen egiten dituzten seme-alaben arteko konparaketak, adibidez) hasita. Ahobeteko berba zirrargarriak gertatzen dira *zuzentasuna* eta *berdintasuna* hitzaldi askotan, baina ekiteko orduan ahal duena egin beza bakoitzak. Unibertsitate-ikasketetan pentsatzea baino ez dago, adibidez. Duela askorik ez oraindik, gutxi batzuek bakarrik izaten zuten Unibertsitate-joateko modua, besteek, gehien jota, batxilerraz nahikoa. Gaur egun, lehengoaren aldean, askok dute Unibertsitate-joateko era. Baina, hezkuntza eta gertakizun hobea duten arren (diskutigarria guzti hau askoren ustez), unibertsitateko ikasketak amaitu eta gero, gorria ikusten dituzte

⁹ Logika itogarrien unte modura hartzen dugu konpetitibitatearen hau. Lehengo atalean agertutako gure inguruaren egoera kontutan izanik, beste hamaikatxo adibide aurki daitezke; bote-prontoan, abertzaletasunak sortzen dituen ikusiezinak, gorrotoa eta erailketa-jokoa da eurotariko bat. Nahi izanez gero, beste egunen batetarako utziko dugu hau, Luisuari.

lanpostu bat aurkitzeko; eta aurkitzera iristen direnean, pozik. Modurik duena, berriz, Estatu Batuetara joango da Unibertsitate-ikasketak edota masterrren bat egitera. Hona itzultzerakoan (itzultzen baldin bada), ziur asko izango duela lanposturen bat. Lehenago, beharbada, Unibertsitate-ikasketak egitea izango zen *berdintasunaren* neurria; gaur, baina, aldiz kanpoko neurria gertatzen da hori. Ez da *zuzentasunaren* aldekoa *berdintasunaren* izenean hala moduzko Unibertsitate-ikasketa baldarren aukera eskeintzea gehiengoari, gutxi batzuk baino ez dutelarik izan behar duten bezalako Unibertsitate-ikasketak egiten kanpora joateko aukera.

Hala izanik, konpetitibitate-dinamika honekin baztertuen aldrak osatzen dira gizartean. Konpetitibitate-jokabide honen arabera, batzuen garapena lortzeko beste batzuen azpigarapena da salneurri: laterri baten bertan eta laterrien arteko harreman-mailan ere bai. Indartsuak hazteko, makalak endekatu behar. Norbaitek esan duenez, azpigarapena bihurtu izan da gaur egungo «ixilpeko genozidioa».

Baina egoera honetan laborritsuena egoera honetaz ez ohartzea da. Ez dugu gaitasunik konpetitibitate-logika horreaz ekinik urkatzaile eta urkatuen arteko historia egiten dihardugula ikusteko: urkatzaileak direnak urkatzaileak direlako, eta, urkatuak diren askok urkatzaile izan gura luketelako (eurrez entzuten dira halako arrazoiketarako urkatuen artean urkatzaileei buruz: «ahal badute, zergatik ez? Ondo egiten dute»; eta gainera honen alde, lotsabakoei doakiela ondo bizimodua dirudiela). Gure gizartean entzuten dira hitz salagarriak, JOSE LUIS SAMPEDRO ekonomilari eta idazlearenak kasu: «zelan egongo da merkatu-askatasunik dirurik ez daukagunentzat?»¹⁰, edo txirotasunaren paradigma den Hegoaldetik datorkigun izengabeko ahots turdituarena: «herrialde garatueta aberatsengandik biltzen den dirua herrialde azpigaratueta aberatsei emateko da»¹¹; baina, orokorrean, galdua da, lortezina delakoan edo, gizarte-zuzentasunaren aldeko grina: kurdoekin, El Salvadorekoekin... gara solidarioak (eta ez da gutxi), etxe barrura adituz, ordea, «beste arazo batzuk dira gureak» dugu mingain-jarioa.

Ohargarria da egunotako beste datu bat ere. Makroekonomiaz ezer gutxi jakin arren, edo beharbada horrexegatik, Europa Elkarteak eraiki nahi duten askok ekonomia-ardatzen gidaritzaz baino ez dutela eraiki gura barruntatzen da, EEBBei eta JAPANi aurpegia erakusteko gai izateko xedeaz.

Denok nahi dugu urkatzaile izan; eta urkatzaile izatera heltzen garenean, ez zela hura gura izan genuena konturatzen gara. JULIAN MARIASEK

¹⁰ *Deia*, 1991.01.17.

¹¹ Norbaitzuek, erizpide zorrotzagoaz, beste honetara dela diote: «herrialde garatueta txirotengandik biltzen den dirua herrialde azpigaratueta aberatsei emateko da.»

dioen bezala¹², gura ez dituen gauzak lortu nahi ditu jendeak: gi-zarte-estatusa zaintzearren, zorientasuna ongizateaz edo erosotasunaz edo atsegin hutsalaz... erratzearren...¹³

Guzti honen aurrean, premiazko galdera aztoragarri bat sortzen da: lehenaldia giza-zientziena izan zen, eta etorkizuna ekonomiaren esku baino ez dugu utziko? Ekonomiaren mugetara baino ez dugu murriztuko bizitza, beste ikuspegi guztiak paraje ainubereren baten zokondoraturik?

Batzuentzako, erlijio-bizikizunean oinarriturik, Jaungoikoa norberarekin dagoenaren seinale da bizitzan *garaile* irtetzea. Euren ustez, urkatua izatetik urkatzaile izatera edo urkatzaile izatetik urkatzaile indartsuagoa izatera igarotzeko da Jaungoikoak eskeintzen duen laguntza. Eta hau, ageri-agerian edo hain bistakoa ez den eratara sines daiteke.

Kristautasunak, ostera, logika hori apurtzera egiten du dei, konpetitibitatearena eten gabeko kate itogarria dela eritzi izanik. Kontua ez da urkatzaile edo urkatua izatea. Pertsonak zorientsu izatea da Jaungoikoarentzat ohore. Urkatzaile-urkatu logika horreaz, zorientsu al dira urkatuak (gosedunak, behartsuak, gutxetsitakoak, baztertuak, zapalduak...)? Urkatzaile-urkatu logika horreaz, zorientsu al dira urkatzaileak (gehiago gura izatea, bekoizkeria, egoneza... medio)? Teologiak (kristau-teologiak, honetaz ari bait gara) ez dauka arazotaz irtenbide zehatzik. Baina bai arazotaz ohartzeko jarrera eta arazooi erantzubideak aurkitzen ihardun nahi dutenekin ibilaldian kide izateko guraria, beregandik emon dezakeena eskeinirik eta besteengandik aurkezturikoa gogotan erabilirik. Teologiaren zutabea ez delako Jaungoikorik badela sinestea eta azaltzea, Jaungoikoa bizi izatea eta bizigarri dela erakustea baino.

2.2. *Kontua ez da Jaungoikorik den ala ez sinestea, Jaungoikoa bizi izatea baino*

Arrazoimenaren jolas atsegingarri gerta litekeen filosofikeria litzateke Jaungoikorik den ala ez eztabaidatzea. Eman dezagun baiezko kasua: zein eragin izango luke horrek bizitzan?

Jaungoikorik badela dioten gehienen batek, Jaungoikoaren bila hasi beharrean bizitzan, Jaungoikoa badela eta hasi dute bizitza. Inguruak (zentzurik zabalenean ulerturik) ezarrita dute Jaungoikoaren izatea, nekez

¹² *Deia*, 1991.05.22; eta, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1991.05.21.

¹³ Konpetitibitate-jokabidea nabaria da pertsonal-mailako harreman askotan ere. Menperatzailemenperatua litzateke ihardundako psikologia-jokoaren neurria. Makalunean bestea norberaren menpe ezartzea da garaile irtetzea; norbera makalunean dagoenean, aldiz, besteak errukiz har dezala lorturik (afektibitate-neurrialdia hezi gabe dugulako, gure bizitza-jobidearen kaxkartasunaren ezaugarri).

oso eurenganatuta. Heteronomi-iturri da Jaungoikoaren bizikizun hau; eta askotan, Jaungoikoarekiko bildur harremanen sortzaile. Salerosketa-harremanak jartzen dira Jaungoikoarekin, hurkoarekin eta norberarekin diren harremanen isladapen, bestalde. (Badirudi Freud-ek honetan arrazoi apurren bat izan zuela).

Kristau-bizikizuna ez da zerbait (hau da: badela Jaungoikoa, eta honi dago-kiona) jakitea, bizitzan zerbait edo norbait hori aurkitzeari ekitea baino; zerbaitek atzetik sakatuta barik, norbaitek aurretik erakarrita bizitzea, beste berba batzuek esanik; bizitza zama legez barik, bizigarritasunak damakion sormen-jarreraz bizitzea, askatasun-sortzaile izanik norberetik eta hurkoarekiko. Sekula ez litzateke nahikoa izango zera azpimarratzea: Jaungoikoarekin izaterik edota Jaungoikoa bilatzerik ez dagoela historian, bizitzan, ez bada.

Jesusen bizikizuna aditurik, nabaria da legenardunekin, emagalduekin, gizarteko baztertuekin... ibiltzen zela (eta euren artean ez zen denbora non emanik ez zuelako edo parrandaldiak igarotzeko —tarteka-marteka lan-tzean bat izan arren, itxuraz—). Askatasuna ereiten zuen menpekotasuna zegoen lekuan, adiskidetasuna ezinikusia zegoen lekuan, zuzentasuna azpijokoa zegoen lekuan, maitasuna gorrotoa zegoen lekuan. Eta bizitza era honetara bizi izanik aurkitzen zen bere Aita Jaungoikoarekin. Teologia-hizkuntza (jerga) erabilirik, Aitaren erreinua (askatasuna, adiskidetasuna, zuzentasuna eta maitasuna nagusi den giroa) egin heinean joan zen Jesus erreinuko Aita aurkitzen. Honegatik esaten du teologiak kristautasuna ez dela filosofia-molde bat, pentsabide-moeta bat edo ideologia bat. Kristautasuna ez da Jesusek aurkeztu zuen teoria bat bizitzea, berak bizi izan zuen bizitza-tankera bizitzea baino. Jesusen deia ez da Jaungoikorik badela esateko, bere Aitaren erreinua eraikitzea ardatz harturik berak bizi izan zuen bizitza bizi izateko gonbidapena luzatzeko baizik. Berak, zer edo zer jakitekotan, haxe zekielako: bizitza-ko zeregina Aitaren erreinua egitea dela, eta beste guztia, erreinuko Aita barne, bere orduan izango zaigula emana.

Eta kristautasuna (Jesusek eskeintzen duen berak bizi izandako bizitza-tankera biziberritzea) azken batean gizatasuna sakontasunez bizi izatea besterik ez delako izan daiteke arteragoko guztia hala.

2.3. Kristautasuna, sakontasunez bizitako gizatasuna

Azkenengo esaldi horrek merezi du azalpen zabalagorik.

Honetaz pentsatzean, IÑAKI MURUAk duela urte batzuk Oñatin abestutako bertsoak datozkit burura, Luismari. Badakit bertsoak gogoko zaizkizuna eta, hona hemen MURUAren hauek goza ditzazun:

«OÑATI (1988-X-11)»

GAIA: Zure mutikoak galdera hau egin dizu. Ba al dago Jaungoikorik?

IÑAKI MURUA

Doinua: Egun lanerat abiatu zait

Hainbat alditan eskolara juan

baina ez nuen ikasi,

hori zalata haurtxo nintzala

barrua neukan nahasi,

«aizazu aita ba al da Jainkorik?»

galdezka ez hadi hasi,

praileok baietz esaten dute

baina nik ez det ikusi.

Galdera horrek hara semetxo

ez du erantzun samurrik,

ez da ikusten, ez da nabari,

ez du egiten agurrik,

kontzientzia garbi ibili

emanaz pauso ziurrik,

horrela inoiz ez dezu izango

Jaungoikoaren bildurrik

Baina halare hori dalata

zuk ez estutu kolkoa,

gizonak beti garbitasuna

behar degu gogokoa,

hau egin zazu, horrenbestekin

dezu zeuretzat naikoa,

gizatasuna da gizonontzat

mundu hontako jainkoa». ¹⁴

Bertsootan nahikoa argi antzeman daitezke gauza bi:

a. Zein den gehien bat aurkeztu izan den eta aurkezten den Jaungoikoa:

a.1. Ikusten ez dena («nik ez det ikusi»; «ez da ikusten, ez da nabari, / ez du egiten agurrik»), baina «praileok» (edo dena delakoak) badela diotena («praileok baietz esaten dute»);

a.2. Jaungoiko horren aurrean bildur izatea da pertsonari dagokion jarreratako bat («horrela inoiz ez dezu izango / Jaungoikoaren bildurrik»);

b. Zer den pertsonarengandik eskatzen dena:

b.1. Jaungoikoarekin aurkitzeko bidea («kontzientzia garbi ibili / emanik pauso ziurrik»; «gizonak beti garbitasuna / behar degu gogokoa»; «gizatasuna da gizonontzat / mundu hontako jainkoa»). Arazoa ez da Jaungoikorik dagoen ala ez erantzutea (badiote

¹⁴ ZALDUBI/LARRAÑAGA, Iñaki (bilketa eta aukeraketa). *Bapatean* 88. Donostia, Elkar/EHBE, 1989, 272-273. orr.

«praileok» baietz, eta zer?), zein den Jaungoikoarekin aurkitzeko bidea baino. Aitak semeak egindako galderaren klabea aldatzen du bere erantzunean:

— Semearen itauna: «aizazu aita ba al da Jainkorik?»; - Aitaren erantzuna:

- «Dakitenen» erantzuna: «praileok baietz esaten dute»;
- Erantzun horren aurrean aitaren egoera:
 - * «Baina nik ez det ikusi»;
 - * «Hainbat alditan eskolara juan baina ez det ikasi». (Jaungoikorik den ala ez, ikasi egiten den gauza da batzuentzat);
 - * «Hori zalata haurtxo nintzala barrua neukan nahasi». Aitari kostatu egiten zitzaion «praileok» esandakoa sinesten, edo hobeto esanda, ulertzen soil-soilik;
- Aitak bizitza bizitzen berak aurkituriko Jaungoikoa eskeintzen dio semeari:
 - * «Gizatasuna da gizonontzat mundu hontako jainkoa»;
- Eta baita Jaungoiko hori aurkitzeko bidea ere:
 - * «Kontzientzia garbi ibili emanaz pauso ziurrik»;
 - * «Gizonak beti garbitasuna behar degu gogokoa».

Edota ia gauza berbera litzatekeen

b.2. Jaungoikoaren bizigarritasuna: kristau izatea edo Jaungoikoarekin aurkitzea bizigarria izan dadila bizitzan, historia honetan, mundu honetan, gizarte honetan... («gizatasuna da gizonontzat / mundu hontako jainkoa»).

Hausnarketa-bide batzuk idarokitzen dute bertsook eskuartean darabilgun gaiaren harira.

Badirudi informazio, berri edo datuak buruan metatzea ez dela Jaungoikoarekin (kristau-Jaungoikoarekin, behintzat) aurkitzeko bidea. Kristau-bizikizuna, berez, eginbide edo prozesu bat da, eta ez datu-base batetako informazioaz egindako eragiketen ondorioa. Orain, noiz jakin, baina, eginbide horretan Jaungoikoarekin edo Jaungoiko-urratsekin aurkitu izan garela? Jaungoikoak ez du *zeru goienetik* esan edo markatu zeintzuk diren bere oinatzak historialdi edo toki bakoitzerako. Pertsoneri eman izan die horretarako ahalmena eta erantzukizuna.

Hala izanik, hau aurkitzen dute pertsonen euren egitean: bizitza, bizi izanez *ikasten* den eginbidea dela, hau da, hausnartuz bizipenak bizikizun bihurtzen diren eginbidea; bizitzan krisialdiak direla eta krisialdiok aberasgarri direla heldutasun-bidean: lorpen eta errakuntza-bizikizunetatik, bietatik, ikasten delako; honegatik merezi duela bizitzan arriskatzea, horretarako, baina, bizitza-kezkak sortutako bilaketa-jarrera dela beharrezkoa; era honetara, gizatasun-hazkuntza bilakatzen delarik bizitza-eginbidea.

Gizatasun-hazkuntza hau litzateke, azken baten, Jaungoikoaganatzeko bidea, denentzat eta bakoitzarentzat gizatasunezko bizitza-baldintza kaxkarrak eukitzerik gizatasun gehiagozko bizitza-baldintzak izatera igarotzea.

Hau ez da, bestalde, Jesusek jarraitzeko eskeini izan digun Aita Jaungoikoaren erreinua eraikitzea ardatz harturik berak bizi izan zuen bizitza besterik¹⁵.

Den-den hau kontutan harturik, baztergarriak dira ertzeko pentsaera biok:

a. Oztopoa da Jaungoikoa pertsona pertsona izan dadin.

Jaungoikoa ez dago gure aurka, gure barru-barrutikoaren alde baizik. Batetik, ez dira «Jaungoikoak bialduriko zigorrak» pertsonen jasandako gaitzak. Orain, hori bai, guk geuk nahi izanik, Jaungoikoa ondoan izango da gaitzoi aurpegi emateko laguntzen. Bestetik, geure buruari izutasunagatik, erosokeriagatik edo dena delakoagatik jarritako ikuspegi motzak luzatzeko edo ortzertza zabaltzeko askapen-aukerak dira Jaungoikoak eskentzen dituenak;¹⁶

b. Pertsona bere kabuz ez da ezer onik egiteko gai.

CAMUSEk dioen bezala, pertsonengan gutxiesteko baino harritzeko gauza gehiago daude. Denok ez al dugu, noiz edo noiz baino ez bada ere, MENANDROren bizikizun hau izan: «Zein gauza liluragarria den gizona gizona denean»? Gizatasuna ez da, aldi batean pentsatzen zen legez, *Jaungoikoaren gudariak* bere aurka burrukatu behar duten arerioa, Jesusen jarraitzaileek Aita Jaungoikoaganako hartu behar duten bidea baizik.

Baina gaur egun, ordea, arazo bat sortzen da honetaz: gizatasuna bera ere beheranzka doala bizitzako boltsa-neurrietan. Gure artean nabarmena da giza-balorezko azpiegiturarikeza. Hiruzpalau ohar gogoratzeko lotuko gara une batez honetan.

¹⁵ Hemen esandakoaren arabera, argi gelditzen da Jesusi jarraitzea ez datzala Jesusi imitatzean (hau ez litzateke bizitza bizitzen ihardutea), bere aditasunez eta sentikortasunez errealitatea ikusi eta bizitzari gaur eta hemen bakoitzean sakontasunez oratzea baino.

¹⁶ Luismari, badakit esandako honek azalpen zabalagoa behar izango lukeena. Baina hau bezelako ezohizko beste eskutitz luze bat behar izango litzateke horretarako. Gaurko honetan nahikoa dela deritzot aitatzeari besterik gabe.

2.4. Giza-balorezko azpiegiturarik-eza

Gogoratzeko diot, lehenago jarrera postmodernoari eta jarrera neokonserbadoreari buruz esandako zer edo zer aipatuko dugulako segidan, gizatasun-arazo hau dela eta argigarri gertatuko delakoan.

Ilustrazio ondorengo korronteen esanetara, gizatasunaren arerio zen Jaungoikoa (aurkezten zen Jaungoikoa, behintzat). Eragozpena zen Jaungoikoa pertsona pertsona izan zedin. Ez zegoen beste aukerarik: pertsona ala Jaungoikoa. Pertsona izan zedin Jaungoikoaren heriotzea iragarri zen.

Orain, berriz, gizatasuna gertatzen da gaur egungo pertsonaren arerio. Kontzienteki edo inkontzienteki, gizatasunik ezaren aldeko aukera egin du gehien batek, gizatasunaren heriotzea iragarririk. Bizitza eginbideari dagozkion nekealdiak ahalik eta arinen jasanez edo ahal izanik beraien-gandik ihes eginez, erosokerian, nagikerian edo gozamenean igarotzea bihurtu izan da bizitza. Ez da astirik hartzen bizitzari buruzko itaunik egiteko; ez dago galderok egiteko gogorik ere. Ez da bizitzako arazoei aurpegi ematen hezten, euroi lepoa ematen baino. Bizitzatik ihes egitean datza bizitza. Ez dago heldutasun-bidea hartzeko ardura ez patxadarik, erantzunkizunik ez gogorik. Ez da bizitza gaindiketa-dinamika bateaz ekin egiteko gogoaz aurrera adi begiratzen. Bilaketarik gabeko aurkikuntzak gura dira, eta badirudi, nahitaez, bizitza bilaketa dela gehien bat. Ekintzak, jazoerak, bizipenak... milaka dira, baina ez da gura euroi buruz hausnartu, edota bada baina baita beste batzuek eman diezaietela euroi buruzko hausnarketa nahi dutenak ere. Jokabide honekin ezin bizikizunik norberaganatu. Ez zaio bizitzari oratzen. Ez da bizitza-egitasmorik. Ez da bizitza-iparrorratzik, edo inork zuzendutakoari jarraitzen zaio. Honela, ez dago bizitza-kosmobisiorik, edo kanpotik jarritakoren bat norberaganatzen da norberak jakin eta iragazi gabe. Ez dago bizitzaz eta bizitzako jazoeraz eta bizipenez dastatzerik ezta gozamen sakonik barneratzerik ere: unean unekoa. Ez dago ezeren itxaropenik, aidean bizitza baino, ezeren ziurtasunik gabe, defensibara jotkatzen, zeregin edo asmo eraikor barik, ilusiorik gabe. Egia da, aurki, FELIPE JUARISTIren *Arinago duk haizea*, *Absalon* elaberriko Bixente zoroak dioena:

«Baloreak ahul, higikor eta aldakorrek direnez, horien gainean erai-
kitzen den guztia gainbera dator. Ezin da maitasuna euskarrizat lukeen
hiri bat edo jauregi bat eraiki. Lurpean ur zurrunbiloa lukeen etxea egi-
tearen modukoa da hori».¹⁷

¹⁷ JUARISTI, Felipe. *Arinago duk haizea*, *Absalon*. Donostia, Erein, 1990, 43. orr.

Azaldutako jokabide hau zoratzekoa dela ez dirudi guzurra denik. Baloreak askorentzat ez dira ezeren euskarri. Dena da zilegi: «Zer egin behar da? Nork jakin. Nahi dena». Ez dago norabiderik. Aihergatasuna da nagusi. Baloreak ez dira balore. Ugertu egin da gizatasunarekiko sentikor-tasuna: askok etxeko txoko batean baztertuta dute aitita edo amama, eta negar anpuluak darizkie jakan dagoen txakurratik. Zentzugabekeria guz-tia. Noraeza. Errealitatea nor berak aldatu edo eraiki beharrean, errealitate-ak norberari gehiago egin diezaion uzten da. Ez da bakoitza bere bizitzaren jabe, edo kanpotik jarritakoaren morroi da. Norgaltzea osoan. Ez da bizitzaren jobideari buruzko itaunik egiten. Egun osoko ordutegia beterik, baina nor-bera hutsik. Pertsonak ez du bere izatea garatzeko azpiegitura lantzen, ez du giza-balorezko azpiegitaririk zizelatzen. Nor beraren gartzelari. Bizitza ez da bizigarri gertatzen.

Sasoi batean (nahiz eta gaur egun ere lekuren batzuetan zentzu fal-tarik ez zukeen izango), mundutik ihes egitearen edo konpromisurikeza-ren salaketa egiten zitzaion erlijioari, edo gure inguruan aurkezten zen ka-tolikotasunari, zehatzago esanda. Gaur egun, berriz, ez da, gehienen aldetik, holako salaketarik egiten, eta ez katolikoak edo kristauak horren konprometitu finak direlako, konpromisu-kontua gogotan hartzen ez de-lako baino. Batzuek, txoko bat egin nahi dute gizartean, beretaz baliatuz kontsumitzeko eta bizitza irauteko; besteek, jakin ala ez, gizarteak jadanik gantzututa daukan makina indartu gura dute; bestetzuek... Ondorioz, ez dago norberekiko eta gizartearekiko perspektibarik, ez dago norbera eta gizarteari buruz hausnartzeko edo kritikatzeko gaitasunik, ez dago norbe-rarekin eta gizartearekin konprometitzeko eta eurok hobetzeko jarrerarik.

2.5. *Gizatasun-oretzaileak*

Hau eta guzti ere, badaude gure inguruan, giroaren eragina izan arren beraiengan ere, «kutsatu gabeko» inor ez dago eta, giro hori beren neurriez gaınditzen eta aldatzen ahalegintzen direnak. Eta ez besteak baino hobeak direlako —onen eta txarren arteko banaketa arazoa ez bait da ho-nako hau—, bizitza bizitzeko aukerak, kemena, korajea... izan dutelako baino.

Badaude gure inguruan zintzotasunez bizitzen saiatzen direnak, ez gauza handiak eginez, egunerokoan erantzunez baizik. Ez dute zoriontasu-na heroi-agerpenetan aurkitzen. (Oroigarria da, ikuspegi honetatik adituz, SEVERO OCHOA Nobel sariaz noizbait esandakoa: «Bada denborarik OCHOA jainkoen Olinpora igon dena, baina ez dirudi zoriontsu

denik»¹⁸). Euren bizitzaren lema eroanik, euren bizitzaren arrazoi emateko gai dira. Honetarako kritikatasunezko jarrera dute ardatz: 1. Norbera eta ingurua begiratzeko soaldiak eta sentikortasuna landurik: huts eta beteak onartzen dituzte beraian eta besteengan; 2. Norbere eta inguruko egoe-rak erizpide (balore) batzuen arabera azterturik; eta 3. Errealitatea hobe daitekeenaren itxaropenaz ekinean iharduteko erabakiak harturik; batzue-tan goibeluneak ere badirela, baina, oinak lurrean izanik, etorkizunaren erakarpenak sorturiko utopiaz gaingiturik. Solidaritatea gidari, euren eta besteen ardura dute, politika, sindikatu, kultura edo beste eraren batetako gizarte-elkarteetako kide eginik. Guzti hauek, berba gutxitan esanda, bizitzaren jobideari buruzko itaunari dagokion erantzun-eginbide bihurtu izan dute euren bizitza.

Eta pertsona hauen artean, badira ere, Bestearen, Absolutoarean, Misterioaren, Askatasunaren, Maitasunaren... edo kristauak Jaungoikoa, Jesusen Aita eta pertsonen Aita, deritzotenaren bizikizuna dutenak; ez euren-gandik eta euren ingurutik at, eurak eta ingurua lantzen doazen heinean bizitzen ari diren bizitzan baino, edo, are gehiago, bizitza horren euskarri legez baino.

Ildo honetatik, interesgarria da teologiak igortzen duen abisu bat. Kristau-testigantza ez da «kristaua naiz» esatea nonnahi, kristau-erara bizi izatea baino. Ez da inori egiten zaion mesedea, horretaz konbentzituta norberarena besteei eskeintzea baino. Ez da nor edo nori agertzearen kristau-kutsua duen ekintza egitea, norberaganaturik barruz sinesten dena egitea eta beronen arrazoa ematea baino. Testigantza ez da Jesusen eta pertsonen Aitaren erreinua eraikitzea besterik.

Beste alde batetik, hari beroni ten eginez, egoera (kultura, politika, hezkuntza...) hobetuz Aitaren erreinua eraikitzeako asmotan kristau askok Eliz-erakundeetatik kanpo egiten duen lana ez duela behar den neurrian gogotan erabiltzen aitortu beharrean dago teologia. Baldin eta kristau-bizikizuna intsentsu-lurrina ailegatzen den giroari (soil-soilean, behintzat) erantsita ez badago eta teologiaren behineneko zeregina kristau-bizikizunari buruzko hausnarketa baldin bada, nahikoa zuzena da ondorioa.

Azkenengo arrazoiketa honi alderantzizko norabidea emanik, bigarren ondorio bat ere atera daiteke: teologia-hausnarketa kristau-bizikizuna duten guztiei dagokien zeregina da, ez abadeei edo praileei edo lekaideei...

¹⁸ Buruz aipatzen dut esandako hau. Nativel PRECIADOK agertu zuen gogoratzen ez dudan asteren batetako TIEMPO aldizkariko bere azkenurreko orrialdean. Eta esan didatenez, aldi batean zehar aldizkari horretako orrialde berorretan Nativel PRECIADK pertsona ezberdinei egindako elkarrizketak biltzen dituen *Fuera de campo* liburuan ere azaltzen da.

bakarrik. Oraintsuarte¹⁹, historia-gertaerak tarteko, abadeena eta praileena eta lekaideena zen benetako kristau-bizikizuna, beste kristauena bigarren maila kaxkarrago batetako zela eritzi izanik. Holan, bada, kristau-bizikizunaren hausnarketa —teologia— beren esku zegoen, beraiei mugatutako esparrua zen. Gaur, haatik, ez dagoela kristau-bizikizuna abade izatearen edo praile izatearen edo lekaide izatearen edo dena delakoa izatearen arabera mailakatzerik ikusi izan da. Kristau-bizikizuna garatzeko bide ezberdinak dira horiek; kristau guztien betekizuna delarik, orduan, bizikizun horri buruzko hausnarketa edo teologia.

Amaitzeko, labur-laburrean, hirukoitza dela esan daiteke teologiaren zeregina gaurko gure inguruko egoeraren aurrean (eta, neurri batean, aldi guztietan eta toki guztietan ere bai):

- a. Norberaren txoko epeletik (ideologiatik, bizimodutik...) irtetzera laguntzea, beste jakintza eta zientzia batzuen laguntzaz errealitatea osoro, ez komeni eta laket dena bakarrik, agertuaz;²⁰
- b. Gure artean diren askatasun, adiskidetasun, zuzentasun, maitasun eta itxaropen-bizikizunez ohartzeko sentikortasuna lantzea (teologia-jergaz: Jesusek eskeintzen duen berak bizi izandako bizitzako —Aitarene erreinuko— urratsak gaur eta hemen bakoitzean ikusteko aditasuna erneraztea);
- c. Sakontasunezko gizatasuna helmuga duen etorkizun-bidea egiten diharduten ibiltarien kide izatea: eurengandikoa gogotan harturik eta beregandik dagoena eskeinirik.

Guk bereiztu egin ditugun arren, ez dago zereginotatik bata bestearen aurretik zein den esaterik.

Lema batekin bukatu behar izango banu hausnarketa hau, *teologia ez dela pentsalarien lana*²¹ *bizilariena baino* esango nuke.

¹⁹ Batikanoko II. Eliz-batzar Nagusia arte, eta oraindik beranduago arte ere bai, gure inguruan —diktaduraldiak zerikusi handia izan du honetan—.

²⁰ Teologia izan da, paradoxikoki, sasikristau-arrazoiaren haizalpean, historian zehar gizadiaren eta, era berean, Aita Jainkoaren erreinuaren aurkako hainbat eta hainbat barrabaskeriatarako ideologia eskeini izan duena. Ez letorkio txarto historiari ondorio batzuk ateratzea.

²¹ Adornok oharteraziko zuenez, bere ahalbideez eta neurriez konturatu behar du pentsalariak. Ideiek soil-soilean ez dute errealitatea (ez inguruarena ez norberarena) aldatzen. Buru-lanaz baliatzen denak ideiak aldatu dituela eta errealitatea hobetu duela pentsatzeko tentaldia du. Teologiariek ere arrisku berberau dute. Historian zehar sarritan pentsatu izan da teologia-eskema batzuk ezertariko ideologia-kutsadurarik gabeak zirela (direla) eta, halaber, egiazko kristau-bizikizunaren adierazbiderik onenak. Bizitzak, ostera, badu besterik erakusten. Giza-ekintza guztiek dute egiten dituztenen eragina, eta egiten dituztenok, jakin ala jakin gabe, beti dute inguruaren edo ingurukoaren zirkuniri. Ez dago aidean kokatua pentsatzerik. Baina, are gehiago, teologia ez da aidentik pentsatu beharreko zeregina, baizik eta

Zuok, empoloia nintzalako edo, zozo zuritzat zenuten hura bele beltza besterik ez dela konturatuko zinen, Luismari, honez gero, hausnarketaldian zehar.

(...)

Hemen iragazitakoak 29 urteko mutikoaren bizikizun gordinak baino ez dira. Baldin eta erarik izango bazendu, jo ezazu ni baino bizikizun gehiago eta sakonagoko baten batengana ere.

Behingoz, ez dut beste zeresanik, Luismari. Nire eskuerara dagoen zerbait gura izango bazendu, esatea baino ez duzu.

Hurrengorarte. Besarkada bat.



gaur eta hemen bakoitzeko egoerako arazo eta itxaropenak abiapuntutzat eta Aitaren erreinua eta erreinuko Aita ortzertatzat harturik osaturiko hausnarketa baino, eraiki ditzakeen eskemak bizikizunaren adierazgarri eta bizikizun horretan sakontzeko lagungarri diren neurrian baino ez direla baliogarriak kontutan izanik gainera.





BILBOKO GAUETAN

BITTOR URAGA

BILBOKO GAUETAN

Bilboko gauetan
euria izaten da
maiz
eta euri tantek
—tirikitauki, tirikitauki—
leihoetako kristal karratuak,
teilatuetako uralita arrunta
eta putzuetako ur azal zikin uhintsua
kolpatzen, mailukatzen dituzte
—poesia ere mailua omen zen—.
Bidaztiari, orduan,
oroitzapenak ilaran inguratzen zaizkio:
bidean sortu eta hil grina malenkoniak,
gehienetan;
burruka gorrietako herra gorrotoak,
sarri;
zorionezko argi izpi iraungiak,
noiz behinka;
bide eta argi
nahi isila ere bai.

Badaki bidaztiak,
Bilboko gauetan,
urratsak oihartzunen itzala besterik ez direla,
berez
—«caminante, no hay camino,
sino estelas en la mar»—
eta kontuz ditu
biltzen,
marrazten,
ordenatzen,
harri bitxiak bailiran,
zeruko izarren antzera
bide izan daitezen,
edo mapa, gutxienez.

Badu bidaztiak,
Bilboko gauetan,

beste bidaztiren marrazkirik
(ezkonberriarena,
Aingeru izugarriaren lagunarena,
lau haizeetakoa,
oihan artekoa,
lur eremukoa,
eta beste hainbat)
eta bertan edireiten du urratsok
nola bildu,
nola marraztu,
nola ordenatu,
zirkulutan galdu gabe
bide izan daitezten.

Horra bidaztia,
Bilboko gauetan,
urratsez urrats urratzen duen bidean
egia bilatzen duela,
bizitzeko.

GRINA MALENKOIAK

ORENDAIN

Dudak dardarkaturik
luzatu hizkidan
—izar keinu hauskor gisa—
beso bero usainok.

—espantuz
begiratzen zigutenan
gau hilkorreko ihintzak,
egunsenti hurbileko lainoek—.

Zeinen betegarria
ene bihotzeango hustutze hura!
Dena izan zunan, orduan,
hire ezer eza!
Lur osoa hintzen,
zerua ere bahintzelarik!

HASTAPENEKO KOPLAK

Bizkai azpiko burdina
altzairuaren berdina;
are latzagoa dugu
maite ezinaren grina.

Bihotz barruan algara,
begitaratean islada;
zure begi nabarretan
hegaka dabil enara.

Bidaian ez nuke gura
damuaren arrenkura;
maitasuna gora behera
zalantza gorrizko duda.

Ezin omen dugu etsi
nahiz infernuraino jetsi;
baina orain, oinazetan,
ezin deus ere irentsi.

BILBO ALTZAIRUZKOA

Martxoko haizeak dena darama:
oinazea, berbak,
zalantzarik eza, batez ere.

Kimatzen da barnean zerbait
—udaberria zen eta hostoak,
hala ere, nabar!—
baina haizeak,
kale hotzetako haize grisak,
ez du ezer ere
(ezer ere ez?)
bizirik uzten.
Izangokoa izankizun amets huts
ote?

Haizean doaz ametsak —zementua
eta altzairua, besterik ez inguruan—
ihauteri zoro
eta garai guztiez kanpoko.

AHAZTEA

Gauak bereganatu dizkin
arrastiri haren gomuta
eta hire begi nabarrak.
Bion itsu nahia geratu dun,
soilik,
oroitzapenean
—eta bihotza, zahartuxeago
bat batean—.

Ez.

Ez haut maite jadanik,
labanean joan haiz,
pinuak gorritzen zituen eguzkiaren antzera.
Baina uztaileko arrastiri hark
ezpainak kiskaltzen zizkidan oraindik,
noizean behin.

Zeinen llabur den maitatzea
eta luze ahaztea!

ESPERANTZAZKO KOPLAK

*Y allá abajo el tiempo sigue siendo,
esperando, lloviendo sobre el polvo,
ávido de borrar hasta la ausencia.*

P. NERUDA

Oroitzen haiza? Haizean
kulunkan eta oinazean
ito gura izan ninan
hire begien hezean.

Oroitzen duna hibaiak
jotako soinu alaiak
kulunkatzen zituela
hire berba eta nahiak?

Baina gaua hilez doa
—uhuluka haize auspoa—;
harekin hil zitzaigunan
azken izar urrezkoa.

Ez bainaiz udaberria
eta hi gerezi gorria,
ezin lora eraztea
dinat nik negargarria.

Han, hausnartzen genuela
etsipenaren ustela,
bagenekinan behin oro
esperantza izan zela.

ZURETZAT

Zuretzat, soilik zuretzat
idazten ditut hitzok
—haize samur ametsok—
entzun ditzazun, nazazun,
entzun
(bizileku zuten lehen
orain zuk betetzen duzun bakardadea,
beste nork eraman lezake,
uso mezulari,
hango argiaren goibela?).
Baina ezpainetatik ahotsera gabe, zerbait da hiltzen
—larrialdi beltzean ito hegalean dardara—
eta pinu hostoen burni harizko intziria dakar oihartzunak haizean,
aiaria baino ez.

Hurbil nahi zaitut orduan, eta oroitzen:
zure ezpainak eneak hesten,
egunsentiko sua soan,
preso biok, besoen kartzelan.
Eta zurekin urratu nahi dut bide zaharra
(han ez baita larririk, heriotzarik, negurik zelatan),
eta ahotsez, oihartzunez, lehen minez,
berriz bidea bete.

Maita nazazu, laztana, ene ondo-ondoan iraun.
Ondo-ondoan. Ez nazazu utzi estualdi oldartsuan.

ZORION IZPI IRAUNGIAK

LAGUN EZ

Lagun ez,
maitale;
uhinek ere aparra baitute lagun,
eta zoriona gizonak.

Adiskide ere ez,
maite;
adiskide baitu biziak heriotza
eta piztia gizonak.

Ezta bidaide ere:
maitale, maite.
bidaide baititu bidaztiak izarrak
eta gizonak utopia.

Maitale,
maitale nahi haut
eta maitea, maite:
hala nola itsasoak kresala
edo poetak oinazea,
bat,
beti.

BIDAIDE

Halaxe zirudien
—irakin edo amata—
zeren sua eta ura
ezin nahas ei daitezkeen;
mendabal bortitzak
dorre sendoa
lurreratu nahi arren,
ez du itsasoak hausten
—errez—
harkaitz sendoa;
ez omen da etxerik
areatan eraikitzen ahal
eta martxoko hormak
erraz, erruz eta arras
ei ditu eihartzen
lore polit goiztiarrak.

Baina hor dirauzu,
urratsez urrats urratzen dugun
eguneroko bide berrian,
oroitzapenen hots oihartzunak
bezain ezti...
bidaide.

EGIA BIZITZEKO

MAIATZAK 13 ZITUEN

(Iñaki Guinea gogoan)

*¡Dios mío!
Sólo el olor de unas flores.
J. R. JIMÉNEZ*

Maiatzean
bihotzean
nik ere badut mina;
enarak jin
eta horrekin
Iñakik alde egina.

Ez al dira
hilobira
hainbat hamasei urtez?
Ez al dut nik
gaur, jadanik,
so egin behar aurrez?

Ez al dute
hamar urte
Araiako txoriek
eman izan
lehengo gisan
kantatuz kantu horiek?

Ipar izar
zerutiar
hura higitu al da?
Bigundu da
behin, ardura,
Araia hartako malda?

Primadera
da berbera
soilik, eta ereinotzak.
Biziaren
usaiaren
bortitza heriotzak!

ABERRIAREN SONETOA

Bizi behar badut, izan dadila,
askatasunari dena emanik,
beti ere ontziaren lema nik
daramadala, ez zaitezten hila.

Ez dut onartu nahi jende umila
bazterrera uzten duen esanik,
ezta ere, neure anaienganik,
kontra dugun etsaiaren fusila.

Madarikatzen dut gure lepoan
eraman behar dugun uztarria
(lehen legez, berdin egunekoan).

Hala zaitut maite, Euskal Herria:
inork agintzen ez didanekoan
maite dut, maite, bai, aberria.

EGUN ARGIA

Gauaren beldurra ikasi genuen,
iluna non nahi genuen genuelarik,
begirik gauak edu genedukanean
eduki beharra
—erraza zen, orduan,
burruka,
katea astintzen zutenentzat—
eta ilun izuak zigun zorrozten soa,
ihesean zein erasoan,
sugeak irudi.

Gaur
argiz jantzi da goibela;
hogeitamar txanponen dizdiraz,
etsaien arma berberen suaz,
uretako irudien isladaz
mamituriko neon argiek
maskaratzen dute iluna
—Gerra ala dantza?
Dantza ala gerra?—;
eta guk,
ihauteri jai honetan
ezin lagunik ezaguturik,
ez dakigu nora garamatzan
nondik datorren ez dakigun haizeak,
dugun lemazain bakarrak.

Hautsi da anphora?
Ez.
Oraindik ez
Jainkoari eskerrak
iritsiko da itsurik
sinetsi dugun
egun argia.

DATORRENA

Badakit
ibilian soilik garela ibiltari
—gariak hilez du uzta,
ez bestela—
eta agortuak bakarrik asetzen duela.
Baina berandu ez ote den susmoak
inguratzen nau,
zelatan igurikatzen,
noizean behin;
eta oroitzapenak ez dira
oihartzunen itzal hutsa baizik
izaten, orduan.

Ez,
ez da ilearen urdindura
—ene laugarren hamarkadaren iragarle
dagoeneko nabarmen samarra—,
ezta denboraren urrats geldiz ezinaren
muga ezezaguna ere.

Datorrenaren arruntak
larritzen nau ni!

BERRIDATZ NITZAKEENAK

BERRIDATZ NITZAKEENAK

Anitz, anitz bitxi berridatz nitzake
gaur gauez:
«Dudak dardaturik
luzatu hizkidan
—izar-keinu hauskor gisa—
beso bero-usainok»,
«Maitale nahi haut,
eta maite;
hala nola itsasoak kresala
eta poetak...»
edota «urratsez urrats urratzen dugun
eguneroko bide berrian,
oroitzapenen hots-ohartzunak
bezain ezti, bidaide».
Baina alferrik.
Gau hilkorreko ihintzak,
egunsenti hurbileko lainoak,
espantuz begiraten digute,
berriz ere;
baina egun berriak ez dakar
etorkizuna gurea den duda baino.

Gatza geza denean,
zer geratzen da?
Eta «oroitzapenak ez dira,
jadanik,
oihartzunen itzal hutsa baizik».

Berbera da ihintza,
berbera lanbroa,
berbera gaua,
baina gu?

Gaurko gau hau bezalako
beste gau batzuetan
berbak labanka,
ezari-ezarian sortzen ziren

arimatik.
Gaur berriz, ihintzak eta lanbroak
negar isila baino ez dakarte,
izango baita, izan, beste ihintzarik,
beste lanbrorik egunsentian
—enarak ere urtero ei dira etortzen—;
ibiltari, alabaina, ibilian gara bakarrik;
eta egindako bidea
—eta egin bakoa—
itsas bits huts bihurtzen dira.

Ez dakit hauek diren
idazten dizkizudan azken hitzak
eta hartzen dizudan azken oinazea;
lur osoa zinen
zerua ere bazinelarik
—halaxe esan nizun—.
Zein llabur den, ordea maitatzea
—hamaika urte—
eta luze, eta mikatz, eta gordin...
ahaztea!







KRISEILUAREN ITZALTZE HURA

NEREA ZULOAGA

EGURALDIAREN BERRI IRRATIAN EGUNERO LEZ «...GOIZEAN eguzkia izango dugun arren, eguerdi partera zenbait aldaketa izango dugu...»

Igandea, inor ez kalean. Loak alde egin duen arren, ametsek utzitako azken imajinak gogoratu nahiean nabil, alperrik da ordea. Bertan aurkitu nahi izan dut barruan sentitzen dudan sentzazio berezi honen zergatia; nire bizitza aldatuko duen norbaitekin topatuko naizenaren susmo ezezagun hori.

...eta orduan ulertu nuen ezinezkoa zela, edo behintzat, ez zuela fruiturik emanen, zeren amodioz jositako gau baten azken besarkada eta azken promesak zeruari so eginez pasa genituen. Eta egun sentia ez zen beti bezala azaldu, ez momentu horretan behar bezala; eguzkia zurbil zegoen, hodeiak, izarak balira, mendien artean zabaldu ziren, esnatu berria zegoen eguzkiak kasik atera ezin izan zuelarik. Beste edozein egunetako zerua, margolariaren paleta litzateke. Eskuak loturik genituen, bihotza berdin, ahoan, gazteak lehen aldiz maitasuna ezagutzen dueneko gusto goxoa oraindik dastagai. Baina zeruak ez zuen gure lekuko izan nahi... eta orduan ulertu nuen ezinezkoa zela, edo behintzat ez zuela fruiturik emanen.

Ez, oraindik ez dut hasi ofizinara heldu den liburu honen irakurketa, bai, arrazoia duzu, arratsaldean erantzun definitiboa eman behar zaio Joserra, edo... delakoari. Bueno, eskerrik asko, ez ditut asko atsegin makineta-ko kafe ureztatu hauek, baina irakurtzen dudan bitartean hartuko dut gusto onez.

Izenburua: *Heriotzaren eskua muxukatu zutenen oroimenez*. Izenburu xelebrea benetan. «Famatu egin zueneko izena ahaztu ondoren, dardaraz zuen eskuak ezin zezakeen bere agudeziaren izenburu zen zirriborro konplexuaren trazadurik egin. Eta gortina gorridun, urrezko pintzeldun eta itsas usainez perfumaturiko estudioa, ilargiaren begirada sotilaren esklabu bihurtu zitzaion.»

«Bakardadea, pintzel bat eta lau kolore, hiru lientzo zuri, hori bai, aukia, etxerik ez, eta bere existentzia ahaztu nahian, koadro bakoitzean asmatu-rikiko istorio bat, besterik ez.» Argitaletxeko zuzendariak gogoko zuen hasiera behintzat.

...eta kanpandorreak hiru dilin dalan abestu zituen, jaio berriaren negarrarekin bat bailara osoa busti zutelarik. Sukaldean, osaba Alberto, tia Matilde eta Martina zeuden, nola ez zen bada auzoko Martina azalduko! Ongi baitzekien Joserra jaiotzerakoan konbentutik izekok ekarritako pasatxoak aterako zituela amona Agusek.

Nekaturik nengoen, izan ere logelara egindako joan-etorri guztiek, Joserraren etorkizunari buruzko gogoetek eta, kontxo! aita jaio berri bat izatearen kezkek hauts eginda utzi ninduten. —Leonardo, mutil eder eta sendo bat bidali dizu Jainkoak, horrek bai! Horrek ongi zekien zein beharrezko zenituen esku fuerte batzu soloan laguntzeko!— esaten zuten.

Denok geunden pozik aitona Xalbador ezik. —Ekaitza dago— aitoren esanak, sukaldeko leihotik zerurantz begi triste batzu jasotzean— hiru tximista zeruan, hiru ezpata bihotzean.

Aitona zoroa, lehenago sartu behar izan genuen zoroetxe horretan, horrela, zutik iraungo luke oraindik baserriak.

Lerro zuri eterno baten atzean joateak ez digu uzten, zorionez, inguratzen, edo hobeto esanda, itotzen gaituzten adreilu erraldoiekin topo egiten. Zorionez diot, zeren neonezko iragarki intermitente, semaforoaren gorri-berde, eta leihoetako geranio kutsatuek gure ingurua osotzen dutela pentsatzea, eta pentsatze honek sorturiko bihotzaren gaitza tristeak bait dira. Gaurkoan oinek ez dute markatzen pausua, bihotzak baino, esnatu naizenetik, zeruaren agurra entzun ondoren, norbaiten presentzia izango dudala baitakit. Norena baina? Nor ote da? Argitaletxeko zuzendaria, baietza ahoan dakarkidalarik agian? Arima lapurtu nahian dabilen inpernutako agintariren bat akaso? Edo jainkosaren bat? Edota...

Igandea, kalean inor ez, kaleak zeharkatzen ditut, auzoetan barna, noraezean, lerro zuri eternoa noiz hautsiko zain.

Zigarro bat piztu ondoren, hankak mahai gainean jarri ditu, idazle gazte batek ekarritako nobela, gero eta gustorago irakurtzen duelarik.

«Arrats horretan, eskuak dantza majikoa gozatu ondoren, udazkenez jantzitako zuhaitzez inguratutik, dorretxe bat irudikatu zuen. Martzel jaunak,

erosi berria zuen etxeko leihoan zirauen gau eta egun, leihoaz bestaldera, lorategi batean, *Minervaren* estatua zegoelarik. Ordurarte zaldunaren begiek ez zituzten gorpu hilak besterik ikusi, belarriek, ezpaten soinu garratzak bakarrik entzun zituzten bezala. Egunetik egunera, gaitz izugarri batek dardaraz astintzen zizkion atal guztiak. Gerora jakin zuen, gaitza estatuarekiko desio inkontrolatua zela. Arratsero estatuaren aurpegia muxukatu eta gorputz biluzia, urrez brodaturiko jantziz estaltzen zion. Halaz ere, estatuaren begiradak, ezpata balitz bezala, zeharkatzen zion bihotza, eta marmol zuriaren testurak azal osoa erre. Iluntasunak eguzkia ito, eta dorretxeko atera noble beltza hurbildu zitzaionean, bere patua gaitzetsi zuen. Estatua ederraren barnean sentitu nahiean, bere hilobia osotuko zuten marmolezko zatitan hautsi zuen. Gaur egun, marmolezko hilobiaren gainean, estatua berri bat hazten omen dagoelarik.»

Ez nuen uste gau infinitorik esistitzen zenik; luzeak dira beti ni bezalako zahar batentzat ilunak, arnasak ere nekez aurkitzen du argia. Zeruan izar bat ere ez. Bizitasuna behar du izan zeruak, kolore gorritz blaiturik egon, berotasuna, argia... zaude lasai baina, nire jaun eta jabe zaren zeru goibel hori, nik berpiztuko zaitut, baserritik askatuko diren txinparta eta sugarrez.

Bi orduz nabil oinez. Zerua goibeltzen hasia, burua zalantzas josia. Arnasa estu, oinak, nekeak sorturiko ibilera torpearen dantzari. Halaz ere, ezin geldi naiteke. Alboko tabernan, herdoiltzen hasia dagoen irrati zahar batean eguraldiaren berri, egunero lez.

...eta alde egin behar izan nuen, nire familia guztiarekin batera, ni haur bat besterik ez, suak beldurtu ninduen, eta tximistek, eta...

Joserra, bere paper guztiak besapean zituelarik, argitaletxeko ofizinan sartu zenean, ez zuen zuzendariak begi onez ikusi, beste *idazletxo* bat bezala ikusi baitzuen. Baina nobela irakurriz zihoan neurrian...

«Margolariak koadro hura tristegia zelakoan baztertu zuen. Bere esperantza bakarra ziren bidaiek gehitzen zioten ospareen ixiltasunak urraturiko zauriaren mina. Bere *Nia*-ren zati batek marmolezko hilobian zirauen, bertan gatibu, itzulia, itsasoak nor maite duen jakitea bezain ezinezkoa zelarik. Ahulduz zihoan margolaria. Makal zegoen, triste, goseturik, famatu egin zueneko izena ahaztu ondoren ahulduz zihoan.

—Aizu! Salgai al dago koadro hura?

—Ez dizu erantzungo, beste munduren batetan balego bezala gortzen zaizkio belarriak, mututu ahotsa. Famatua omen zen, etxe eder baten jabea, emakume eder bat ondoan, hiru loretxo jaiο berriren aita... Baina bere zoramenak lurperatu omen zituen berak eraikitako marfilezko dorre guztiak.

—Utz dezagun bada bere mundu horretan, itzuliko da bidaia amaitze-rakoan.

Horrela gertatu zen, begiak behingoz zabaltzean, trastu guztiak hartu eta alde egin zuen, gauero lez, babesa aurkitu nahiean.»

...eta anitz galdera izan dut beti, erantzun gabeko itaunak guztiak. Aitaren «horrela delako»-ak eta amaren «Jainkoak daki»-ak entzutearekin ez nuen jakinahia asetzen. Sukaldeko leiho ondoan, hanka bat kolokan zuen jezarlekuan, aitona Xalbador beti zegoen niri erantzuteko prest, honek, zeruan iltzaturik zituen begien aldentze bat suposatzen bazuen ere —Zergatik izarrak aitona? Zergatik laztan ezin daitekeen ilargi bakartia?

Halaz ere, ordungo galderak ez zizkidan azaldu, eta niri Jainkoak ja-kingo zuela otu zitzaidan.

Hamaika argialetzek emandako ezetzak bihotzarekin bat datozkit burura; *taup-taup-ez-ez-taup-taup...* Agian egia da beti esan didatena, eta idazle izatearen amets hori bertan behera utzi beharko dut. Ezinezkoa izanen zait ordea, paperean ez bada ere, beti bainabil, odolezko tintaz iragana izkiriartzen gogoan.

Lau kale berri. Izerdi tantak bat egiten dira nire masailean zeruko tantekin, bat egin dira gorputza eta zerua.

«Poetak liburuz beteriko mahaian zuen bere gunea, erdian poeten la-gun diren paper zuria eta luma. Margolaria, poetaren bizar zuria margoztu ondoren, prest zegoen lientzoaren zerraila zabaldu eta alde egiteko. Erosia zuen istorio berri batera eramango zueneko txartela.

—Boumi poeta, Maitasun anderearen parfumeak blaitzen ditu beti zure idatziak, Maitasun anderearen edertasunaz eta zure arimatik ateratako hitzez, urrezko kordontze infinituak egiten dituzu. Gaue-ro, kriseilua ere lotan delarik, Maitasun anderea hurbiltzen zaizu, bat egiten zaretelarik ohantzean. Berari egindako poemek estaltzen dituzte logela honen paretak. Maita nazazu ni, Boumi, Maitasun andereak ezezik, Bakardade anderea naizen honek ere zu behar zaitu eta, sor dezagun gure amodioaz argituriko egunsenti berri bat.

—Bakardade anderea, askotan etorri zatzaizkit gogora, ni ere izkutu-an, bakardadearen Jainkoa bainaiz. Baina ez al duzu konpreni-tzen poeta triste baten eta Bakardadearen arteko fruitua heriotza izango zela? Ezinezkoa da beraz.

—Egunen batean zure eskutan izango duzu nire erraietan gorpuztu-riko haurtxo bat, zin dagizut!
Behin, Bakardade anderea...

...eta orduan izan zen azkeneko aldia. Alde egin zuen, espero nuen bezala. Hilabete batzu pasatu ondoren kotxe istripua... bi hildako... Amaia eta Martin Donostiarako bidean... ez nuen entzun nahi izan. Ni izan nintzen hildakoak hiru zirela jakin izan nuen bakarra; Amaiak nire haurra zeraman errailetan, istripua gertatu zeneko gauean jakinerazi zidanez. Egunsentia ez zen urte askotan azaldu nire leihora.

Euria. Eta tantak, nire masaila ferekatu ondoren lurrean desegiten dira, gogora datorkit nola nire malkoek ere berdin egiten duten, idatzi nahi eta ezin dezakedan horietan, istorio bat irunsi nahian dabilen folio zurian.

Harritzen hasia nago, inoiz ez bainaiz horren oldarkor izan, eta gaurko ibilaldia, ezin esan daiteke asko pentsaturiko paseo lasaigarria denik. Beraz, niregandik urrun dagoen indar batek mugitzen ditu nire artikulazio guztiak.

Belztu da zerua, eta ez gaua delako.

«...bere majiaz baliatuz, Maitasun anderearen maskara eta arima jantzi ondoren, Boumiri hurbildu zitzaion, honek, itsu-itsuan, bere bihotzaren giltza eman ziolarik. Bizar zuriko poetaren kriseilua ez zen gehiagotan esnatu, Heriotza deituriko jaio berriak besarkatu baitzuen bere aita.»

...eta ez zitzaidan atsegin hiriko bizitza, are gehiago aitona Xalbadorren presentzia ez edukitzea. Baina aitona ezezik, berak hain gogoko zuen zeruaren mugagabetasuna ere niregandik urrun zegoen harrizko paraje ezezagun honetan.

Leihotik begiratzerakoan, teilatuek eta beraien tximiniek gorenari egindako zaurietatik isuritako odolez zikintzen nuen bekokia.

Amaia ezagutu nuen geroztik, alde batera utzi nuen tristura, honekin aitona Xalbador lurperatu ahal izan nuelarik, ez lehenago, zerua bere atsedanaren lekuko jarri gabe baina.

Irratia ez da nahastu gaurkoan, ekaitza hastear dago. Forma ezberdinez landuriko hodeien jatorria ez da denek uste dutena. Aitona Xalbadorrek esan zidanez, hodeiak hildakoen aurpegi eta gorpuak besterik ez dira. Zeruko atea aurkitu nahian dabilta, baina ez dute Paradisura sartzeko gogo handirik ez baitituzte lurrean utzi nahi lagun eta senide guztiak. Horregaitik, gaur bezalako egun tristeetan hiri eta herrietan sartzen dira, beraien orroez, barnean daramaten min eta desesperantza askatzeko asmoz.

Eta euria ez da meteorologoen eta jakintsuen esaten dutena. Hauek errealitatea azaldu nahian ahaztu egiten dituzte mundu honetakoak ez diren gauzak, munduaren parte txiki bat bakarrik ezagutzen dutelarik. Baina aitona ongi ezagutzen zuen euri tanta horien jatorria, sarritan ikusi baitzituen hodeiak negarrez, eta aitona, sukaldeko leihotik hitz goxo eta

hunkigarriak zuzentzen zizkien, aitak, zeinek aitonaren jakituria zoramena-
rekin nahastu zuen, zaharraren esanak tristuraz entzuten zituen.

Ekaitza hastear dago. Zentzazio madarikatu honek noiz arte iraunen
du nire azalean? Nazkatzen hasia nago eta gainera eguraldi hau.

...eta ezin izan nuen ulertu zergatik eguzkiak alde egiten zuen men-
dien artera, udazkeneko arratsetan, zerua kolorez blaiturik utzi ondoren.
Baina nola ez? Denek zorotzat zuten aitonak bazekien erantzuna.

Egun osoz dago eguzkia zeruan —esaten zuen aitonak bere pipa esku
baten hartu eta magalean jesartzen ninduelarik.— esnatzerakoan, loak uz-
ten duen nekearen erruz, ahul agertzen da zeruan. Eguerdia aldera txoriak
bere argitasunean murgiltzen dira, eskerrak eman nahian, kantuz inguratzen
dutelarik egunaren Jauna. Baina inolako euskarririk gabe egoteak, guztiz
nekatu izan du eguzkiaren ditzira. Hori dela eta, ilunabarrean alde egi-
ten du atsedean bila, halaz ere natura ez da esker onekoa bizi ematen dion
Maisuarekin, eta bere arratsaldeko azken ibilaldian trabak jartzen dizkio,
eguzkiak, mendien ertzekin sorturiko zauriak direla eta, heriotza ikusten
duelarik. Eta gorpu hil berriarengandik askatzen den odolak blaitzen du
zerua, naturak beltzez pintatzen duelarik goi-parte, bere maliziaren kutsurik
egon ez dadin. Eguzkia gogorra da baina, eta goizero berpiztu egiten da, ni
bezalako zahar zerutarrek bidalitako errezoen bidez...

—Aizu Jose, gaur margolaria ez dago betiko lekuan, haur jaioberri
baten imajinaz margozturiko koadro ilun bat besterik ez da geldi-
tu bere txokoan.

—Ez dakit, agian bere buruarekin topo egin eta heriotzaren eskua
muxukatu du.»

Harriturik utzi nau Joserra honek. Poztu egingo da nire baietza en-
tzutean, gaixoak, ziztada gogorregiak izan ditu galtzailearen papera mundu
honetara heldu bezain pronto jaso zuenetik. Bere egoera larria zela ezin
uka daiteke, baina bere burua hil nahi horiek...ez ditut ulertzen, edo agian
ez ditut ulertu nahi izan.

Eguerdiko zerua, eguraldi madarikatuaren poderioz belztu da. Jose-
rraren oinak gelditu egin dira bat batean, ez berak nahi izan duelako baina.
Eskumuturrean daraman erlojuak, edozein kanpandorreko *dilin-dalanak*
imitatu nahian, hiru abestu ditu. Zerurantz jasotako begi tristeak leku-
ko... hiru tximista zeruan, hiru ezpata bihotzean.

Behin norbaitek esan zuen zoramena ez zela errealitate ezezagunaren
islada baizik.





DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
ARGITARAPEN SAILA

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
DEPARTAMENTO DE PUBLICACIONES